

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GENEROA ETA SEXUALITATEA HAUR HEZKUNTZAN. IRAKASLEGAIEN FORMAKUNTZAREN DIAGNOSIA.

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Eskitxabel Diaz, Garazi.

ZUZENDARIA: Álvarez-Uria, Amaia.

2021/2022

GENEROA ETA SEXUALITATEA HAUR HEZKUNTZAN. IRAKASLEGAIEN FORMAKUNTZA.

Garazi Eskitxabel Diaz

UPV/EHU

LABURPENA: Gradu Amaierako Lan honek egun pil-pilean dauden genero eta sexualitate gaiak jorratzen ditu Haur Hezkuntzako etapan ematen den lanketa ardatz harturik. 0-6 urte bitarteko haurren genero eta sexualitate hezkuntzaren garrantzia azpimarratu nahi da, eta horren ondorioz, baita Haur Hezkuntzako irakaslegaien formakuntzaren garrantzia ere. Lan honen helburu nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako irakaslegaietzako genero eta sexualitateari buruz eskaintzen diren formakuntza aukerak aztertzea da, gaur egungo unibertsitateak gai hauei buruz eskaintzen duen hasierako prestakuntza nolakoa den ezagutu eta hobekuntza aukerak proposatzeko. Horretarako, lehenik eta behin, terminologia sakonki aztertu da, hitz-gakoei buruzko informazioa bilduz eta zenbait kontzeptu definituz. Jarraian, Haur Hezkuntzan genero- eta sexualitate-heziketaren egoeraren diagnostia egin da, duen garrantzia azpimarratuz. Ondoren, heziketa hori bermatzeko, Haur Hezkuntzako irakaslegaiak jaso beharko luketen formakuntza zein izango litzatekeen aztertu da. Azkenik, ikerketa kualitatibo bat burutu da, zeinean gaur egun EAEn Haur Hezkuntzako Gradua eskaintzen duten bi unibertsitatetako (Euskal Herriko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) kide ezberdinek parte-hartu duten, eta egungo formakuntza eskaintzaren berri eman duten.

HITZ GAKOAK: Generoa, Sexualitatea, Haur Hezkuntza, Irakasleen formakuntza.

RESUMEN: Este trabajo de Fin de Grado aborda los temas actuales de género y sexualidad, centrándose en el tratamiento que se da en la etapa de Educación Infantil. Se quiere incidir en la importancia de la educación de género y sexualidad en niños y niñas de 0 a 6 años y, en consecuencia, en la importancia de la formación del profesorado de Educación Infantil. El objetivo principal de este trabajo es analizar las posibilidades formativas que se ofrecen en materia de género y sexualidad para el profesorado de Educación Infantil de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el fin de conocer la formación inicial de la universidad actual en estas materias y proponer opciones de mejora. Para ello, en primer lugar, se ha analizado en profundidad la terminología, recopilando información sobre las palabras clave y definiendo una serie de conceptos. A continuación se realiza un diagnóstico de la situación de la educación de género y sexualidad en la Educación Infantil, destacando su importancia. Después se analiza la formación que deberían recibir los/as aspirantes de profesorado de Educación Infantil para garantizar dicha formación. Finalmente, se ha llevado a cabo un estudio cualitativo en el que han participado diferentes miembros de las dos universidades que actualmente imparten el Grado en Educación Infantil en la CAPV (Universidad del País Vasco y Mondragon Unibertsitatea), que han dado a conocer la oferta formativa actual.

PALABRAS CLAVE: Género, Sexualidad, Educación Infantil, Formación del profesorado.

AURKIBIDEA

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA	3
1. MARKO TEORIKOA	4
1.1. Sexu-genero sistema	4
1.2. Genero-identitatea	4
1.3. Sexualitate sistema	5
1.4. Genero- eta sexualitate-heziketa Haur Hezkuntzan	7
1.5. Haur Hezkuntzako irakasleen formakuntzaren garrantzia	10
2. HELBURUAK	11
3. METODOA	12
3.1. -hartzaileak	12
3.2. Tresnak	13
3.3. Prozedura	14
4. EMAITZAK	14
4.1. Genero eta sexualitate gaien lanketa	15
4.1.1. Generoaren eta sexualitatearen lanketa Haur Hezkuntzan	17
4.2. Haur Hezkuntzako ikasgeletan genero eta sexualitatearen lanketa egiteko irakaslearen beharrak (jarrera edota formakuntza)	20
4.2.1. Non, noiz eta norengandik jaso genero eta sexualitatearekiko formakuntza	22
4.3. EAEko Hezkuntza Fakultateetan genero eta sexualitatearen inguruko formakuntzaren eskaintza	23
4.3.1. Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko profesionalen iritzia	24
4.3.2. Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasle eta ikasle-ohien iritzia	26
4.3.3. EHUko eta MUko Haur Hezkuntzako ikasketa-planen behaketa	27
4.4. Haur Hezkuntzako ikasleen genero eta sexualitateari buruzko formakuntza eskaintzaren bilakaera gaur egun arte	29
4.5. Haur Hezkuntzako ikasleen genero eta sexualitateari buruzko formakuntza eskaintza etorkizunean	30
5. ONDORIOAK	32
6. MUGAK ETA ETORKIZUNERAKO IRADOKIZUNAK	38
7. BIBLIOGRAFIA	40
8. ERANSKINAK	43

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Jarraian aurkezten den lana Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduaren amaieran buruturiko nire Gradu Amaierako Lana da. Graduan zehar etorkizunean Haur Hezkuntzako irakasle izateko hainbat eta hainbat kontzepturen barneraketa egin den arren, egungo gizartean gako bilakatzen ari diren bi terminoren lanketaren falta sumatu dut: generoarena eta sexualitatearena. Horregatik, irakasle-ikasketetan nahitaezko kontzeptuak direla deritzodanez, nire GrALaren muina gai horien inguruan oinarritzea erabaki dut.

Lehenik eta behin, terminoen berrikuspen teorikoa egin da, hala nola, genero eta sexualitatearen oinarritzko definizioak eta horien sistema sozialak, genero motak eta genero-identitatearen eraikuntza, genero eta sexualitatearekin loturiko estereotipoak, eta abar aurkezten dira. Era berean, gai horien hezkuntza jorratzen da, Haur Hezkuntzako etapako haurren hezkuntzaren garrantziaren analisira bideratuta. Marko teorikoarekin amaitzeko, Haur Hezkuntzako irakasle izango garenon formakuntzaren garrantzia azpimarratu nahi izan da.

Bigarrenik, egindako ikerketari bidea irekitzeko asmoz, GrAL honen helburuak zehazten dira. Besteak beste, aurreko paragrafoan zehazturiko atalak egokitasunez barneratzeaz gain, ikerketaren helburu nagusia gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntza eskaintzen duten bi unibertsitatetako -Euskal Herriko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea- formakuntza eskaintzaren diagnostika egitea da, unibertsitate horietako kideekin harremanetan jarriz eta haien iritzi eta esperientzia profesionalak kontuan harturik. Jarraian, ikerketaren nondik norakoak zehazten dira, parte hartu duten kideak, erabili diren tresnak (galdetegiak eta elkarrizketak) eta aurrera eraman den prozedura azalduz.

Helburuak eta metodoa azaldu ondoren, egindako ikerketarekin loturiko emaitzak aurkeztuko dira, parte-hartzaileek galdetegi eta elkarrizketetan emaniko datuak kontrastatuz eta joera nagusiak identifikatuz. Emaitza horiei esker, ondorio nagusi batzuk atera ahal izan ditugu, azterlana atal horrekin amaitzen delarik. Atal horretan, emaitzetan oinarrituriko ondorioez gain, hausnarketak eta Haur Hezkuntzako Graduako ikasleen formakuntza eskaintzari buruzko etorkizunerako proposamenak egiten dira.

Azkenik, lana burutzeko erabili diren erreferentzia bibliografikoak daude eskuragarri, baita eranskinak ere, ikerketa burutzeko pasatako galdetegi eta elkarrizketen transkripzioak azaltzen direlarik bertan.

1. MARKO TEORIKOA

1.1. Sexu-genero sistema

Egun, mundura haur berri bat datorren aldiro, ezaugarri biologiko eta fisikoetan oinarritutako klasifikazioa hasten da martxan. Jendartearen ikuspegiaren arabera, ar eta eme gisa sailkatzen gaituzte, eta gure gorputzen ezaugarri biologikoak dira (kanpo zein barne organo genitalak, bigarren mailako ezaugarri sexualak, kromosomak eta hormonak) eraikuntza sexual honen erantzuleak (Coll-Planas, 2013 apud Gorrotxategi eta Alvarez-Uria, 2017: 97). Baina, gorputz baten sexua kontu konplexuagoa da eta desberdintasun-mailak egon litezke (Fausto-Sterling, 2006).

Bi multzotan egiten den bereizketa horrek, besteak beste, intersexualitatearen errealitatea kanpo uzten du. Intersexualitateaz ari garenean, gizabanako baten gorputz sexuatu kulturalki indarrean dagoen emakumeen edo gizonen gorputzasun-estandarrarekin alderatuta ezberdinak diren egoera guztiei buruz ari gara: mosaiko kromosomikoak (XXY, XXO), gonaden konfigurazio eta kokapen partikularrak... (Cabral eta Benzur, 2005). Pertsona hauei ar edo eme etiketa jartzen zaie gizataldearen banaketa mantentzeko arauetatik ateratzen diren gorputzak kontrolatu behar direlako. Intersexualek aldi berean bi sexuak gorputzen dituztenez, haien existentziak sexu-desberdintasun binarioei buruzko usteak ahultzen dituzte (Fausto-Sterling, 2006: 23).

Sailkapen horrek gizakion sexua ez ezik generoa ere determinatzen du, sexua eta generoaren arteko lotura zuzen bat eginez. Izan ere, genero sistema bitarraren existentzia hutsak sinismen inplizitu hau dakar: "generoa erlazio mimetikoan dagoela sexuarekin, eta generoak ispilatu egiten duela sexua, edo, bestela, sexuak zedarritzen duela generoa" (Butler, 2018 apud Aizpurua, 2020: 8). Diskurtso honi sexu-genero sistema bitarra deritzo, eta honen ondorioz, bi sexu-genero posible baino ez ditugu aintzat hartzen, gizon eta emakume zisgeneroak (ikus 5. orrialdeko 2. paragrafoko definizioa) soilik legitimatuz, munduko identitateen eta gorputzen aukera aniztasuna mugatuz (González, 2019: 103).

1.2. Genero-identitatea

Sexu-genero sistema ulertzeko, "sexu" eta "genero" terminoak haien osotasunean ulertu behar dira. Sexuak desberdintasun biologiko eta fisikoei egiten die erreferentzia, eta generoak, berriz, horien gainean eraiki den itxaropen eta jarreraren multzoari. Hau da, sexuak pertsonak emakume eta gizon bezala sailkatzen ditu, ezaugarri biologikoetan oinarrituta. Generoa, berriz, sailkapen horren gainean sortu den eraikuntza soziala da (Colás, 2007 apud León et al., 2020: 42). Generoak erreferentzia egiten die sozializazioaren bitartez pertsonari beraien sexuan oinarrituta esleitzen zaizkien rol jakinei eta horren ondorioz jokatu behar diren jarrera eta jokaera konkretuei (Coll-Planas, 2013 apud Gorrotxategi eta

Alvarez-Uria, 2017: 97). Ildo beretik jarraituz, identitateari erreferentzia egitean norberaren eraikuntza pertsonal eta sozialaz ari gara. Genero hitza txertatzen badiogu (genero-identitatea), kulturalki transmititutako itzaropen, norma, arau, rol, balio, sinesmen eta jarrerak norberaren eraikuntzan izan duten eraginaz ari gara, bakoitzari esleitu zaion generoaren arabera (Colás, 2007 apud León et al., 2020: 42); genero-adierazpenak pertsona batek bere genero-identitatea beste pertsona batzuei komunikatzeko duen moduari egiten dio erreferentzia, jokabideen, janzteko moduaren, orrazkeren, ahotsaren edo gorputz-ezaugarrien bidez (American Psychological Association, 2011).

Arestian aipaturiko sexu-genero binarismoak araubide zisnormatiboa du oinarri. Zisnormatibitateak zis pertsonak (sexu biologikoan oinarriturik gizarteak esleituriko generoak eta norberak erabakitakoak gorputz edo pertsona batean bat egiten dutenean) pribilegio-egoeran jartzen dituen menderatze-erregimenari egiten dio erreferentzia. Pribilegio horiek zisgeneroen normalizazio (eta, beraz, onarpen) sozialean dute jatorria. Identitate ez zis-ak “arrotz” edo “anormal”, eta, beraz, patologizatu eta menderatzeko edo arbuizatzeko modukoak iruditzen zaizkigu (González, 2019: 103). Emakume-gizon zis dikotomiatik at dagoen genero-identitate aniztasuna handia da. Askotariko genero-identitateak aurki ditzakegu, eta baita genero horien definizio anitz ere. Hau da, definizio finko eta jakinik egon gabe ere, badira, besteak beste, denboran zehar genero-identitatea edota genero-adierazpena maskulinoaren eta femeninoaren artean aldatzen dutenak; genero-identitate eta -adierazpenen espektroa jaiotzean esleitutako sexuan oinarritutako aukera baztertzailatzat eta mugatzailetzat ulertzen dutenak eta etiketa finkorik gabe bizitzea nahiago duten pertsonak; edota, haiengandik espero ez den genero-identitatea duten pertsonak (Missé, d.g.).

Genero identitatearen eraketa haurtzaroan hasten da haurrak bere buruaren kontzeptua garatzean eta bere gorputza deskubritu eta honekiko jarrera bat hartzen duenean (gorputza zer den, nolakoa den, berea eta besteena, honen aukerak eta mugak, zein genero esleitu zaion) (Becerra eta Melo, 2012 apud Gorrotxategi eta Alvarez-Uria, 2017: 98). Hau da, bereziki bizitzako lehen urteetan, jaiotze bezain pronto, identitate pertsonal propio bat eraikitzea bideratuta gaude, eragile sozializatzaileen bidez. Beraz, gainontzekoekiko elkarrekintza funtsezkoa da norberaren nortasuna eraikitzeke eta sendotzeko prozesuan, besteekin ezartzen ditugun harremanen bidez geure burua ezagutzen eta eraikitzen ikasten dugulako (Zaro, 1999).

1.3. Sexualitate sistema

Dakigunez, generoa eta sexualitatea gauza desberdinak dira, baina ezin dira erabat bereizi. Sexualitate mota batzuk generoari buruzko fantasiekin lotuta daude, eta generoa bizitzeko modu batzuek sexu-praktika mota batzuk behar dituzte (Butler, 2009). Sexualitatea

gizakiaren berezko alderdia da, bizitzan zehar presente edukitzen dena. Barne hartzen ditu sexua, genero-identitateak eta -rolak, erotismoa, plazera, intimitatea, ugalketa eta sexu-orientazioa. Pentsamenduen, fantasien, desioen, sinesmenen, jarrerren, balioen, jokabideen, praktiken, paperen eta pertsonen arteko harremanen bidez bizi eta adierazten da. Faktore biologiko, psikologiko, sozial, ekonomiko, politiko, kultural, etiko, legal, historiko, erlijioso eta espiritualen elkarrekintzaren eragina du (World Health Organization, 2017).

Sexualitate- eta sexu/genero-sistemek bat egiten dute azpimarratzean XIX. mendean pentsamendu bitarra normalizatu zela bizitza sozial modernoaren oinarri nagusi gisa (Zambrini, 2015: 45). Gaur egungo jendartea sistema bitarrean dago oinarrituta, zeinean gizon eta emakume heterosexualak egotea aurreikusten den. Aurreikusteaz gainera, sustatu ere egiten da, eta harremanak sortzeko patriarkatuan oinarritzen den eredu tradizionala inposatzen da, sistema ekonomiko kapitalista sostengatzeko eredu hau ezinbestekoa baita (STEILAS, 2015). Ildo horretan, praktika ez-heterosexualak oso estigmatizatuak izan dira modernitatean pentsamendu bitarra sendotu zuen prozesu historikotik abiatuta (Zambrini, 2015: 45). Honi heteronormatibitatea edo heteroaraua deritzo, alegia, botere harremanen multzoa, heterosexualitatea (sexu/genero desberdineko pertsonenganako erakarpen sexuala sentitzea) sexu-jardun "normal", natural eta onartu bakarra izatea inposatu duen gizarte eta kultura erregimena da (Gimeno, 2017 apud Garcia de Eulate, 2021: 15). Heteronormatibitateak LGTBIQ+fobia legitimatzen du, eta baita heterosexismoa ere, hau da, orientazio afektibo-sexual ez-normatiboa dutenekiko diskriminazioa gizarte-harremanen eta -egituren barruan. Ondorioz, sexualitate ez-heteroarautuak baztertuta geratzen dira (Robinson, 2016).

Gizatalde horien eskubide eta ikusgarritasunaren alde borrokatzeko eta gizaki ororen ongizatea bermatzeko, gizakion bizi-esperientziei erreparatu behar zaie, sexu-garapena bizipenekin lotuta baitago. Sexualitate-garapen hori etengabe gertatzen da, eta bizitzako prozesu eta etapetan integratzen da, jaiotzetik heriotzara arte. Beraz, sexu-esperientziek eragin handia izango dute gizabanako bakoitzaren ongizatean eta osasunean (Grozelle, 2017, apud Alonso-Martínez et al., 2021: 474). Sexu-garapena egokia izan dadin osasun-sexual egokia bermatu beharra dago. Sexu-osasuna, ongizate fisiko, emozional, mental eta sozialeko egoera bat bezala ulertzen da; ez da soilik gaixotasunik, disfuntziorik edo gaitzik ez egotea. Sexu-osasunak sexualitateari eta sexu-harremanei buruzko ikuspegi positiboa eta errespetuzkoa eskatzen du, baita sexu-esperientziak, hertsadurarik, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabekoak, atseginak eta seguruak izateko aukera ere. Osasun sexuala lortzeko eta mantentzeko, pertsona guztien eskubide sexualak errespetatu, babestu eta asetu behar dira (WHO, 2017).

Osasun-sexuala bermatze aldera, premia sexualei eta afektiboari buruzko orientazioa behar da haurtzarotik hasita, banako bakoitzaren izaeraren eta berezitasun pertsonalaren

konfiantzazko eta errespetuzko giroan, identitatea, autoestimua, askatasuna, plazera, eta norberarekiko eta bestearekiko errespetua sortuz (Aguilera et al., 2022). Orientazio hori sexu- edo sexualitate-hezkuntzaren bidez bermatzen da. Urteetan zehar sexu-hezkuntza gai polemikoa eta ekiteko konplexua izan bada ere, gaur egun, hezkuntza mota hori gero eta gehiago funtsezko eta lehentasunezko interesekotzat hartzen da (Zientzia eta Kulturarako Hezkuntzarako Nazio Batuen Erakundea [UNESCO], 2010; Osasunaren Erakunde Panamerikarra [OPS], Osasunaren Mundu Erakundea [OME] eta Sexologiaren Munduko Elkarte [WAS], 2000), apud Fallas et al., 2012).

1.4. Genero- eta sexualitate-heziketa Haur Hezkuntzan

Identitate eta joera sexualaren askatasunari dagokienez aldaketa bizitzen ari gara, eta hortaz, ezinbestekoa da ideia eta ikuskera desberdinak gure eguneroko esparruetan erakustea, hala nola familia- eta hezkuntza-testuinguruan (Colmenero, 2018). Hau da, gaur egungo aniztasunaren errealitateari erantzuna emango dion hezkuntza sistema baten beharra dago, hezkuntza planetan aniztasunari lekua egin behar zaiola azpimarratu behar da. Izan ere, eskola edo hezkuntza da gutxiengo desberdinetako umeen integrazioa bermatzeko eragile nagusienetakoa, hau da, gizarte kohesiorako tresna izan daiteke (Bronfman eta Martinez, 1996 apud Aizpurua 2020: 10). Ikastetxea dugu haurtzaro eta gaztaroan agente nagusia heziketa-prozesuei dagokienez, bertan ikasten baitira ezagutza, jarrera, balio eta arau sozialak (Alfonso eta Aguado, 1992; Miyares 2006 apud León et al., 2020). Generoa eta sexualitatea sozialki eraikitzen diren terminoak diren horretan, hezkuntza-sistemaren garrantzia berebizikoa da, eskola-espazioa sozializazio handieneko lekuetako bat delako. Familia eta ikasleen beharrei aurre egin behar zaie, eta eskolaratze momentutik beretik eskolak harreman anitzak, maitasun modu desberdinak, askotariko izaerak, eta genero aniztasuna kontuan hartu ez ezik, hezkuntza proiektuan gaiarekiko jarrera egokia hartu eta lanketa egokia egin behar dela garbi utzi behar da (STEILAS, 2015).

Hezkuntza sistemaren diskurtso eta praktikaren oinarria jendarte inklusibo eta askatzaile bat eraikitzeko markoan egon beharko litzatekeen arren, indarrean dagoen hezkuntza sistemari hamaika gabezia azaleratu zaizkio, segregatzailea izatearen ondorioz (Aizpurua, 2020: 29). Binarismoak eskoletan eta antolamendu sozialean duen papera aztertuz, naturalizatua edota normalizatua dagoela ondoriozta daiteke. Eskolak, gizartearen ispilu lez, binarismoa sustatzen du, komunen bereizketatik hasi eta irakasleen jarrera arte (Platero, 2016). Oro har, hezkuntza formalak menderatze-tresnak erreproduzitzen ditu, besteak beste sexu-genero eta sexualitate sistemak, eta, beraz, hezkuntza guztiz bitarra, zisnormatiboa eta heteronormatiboa ematen da, ikasle batzuk identitate eta adierazpen ez-bitarra edo ez-heteronormatiboa badute ere (González, 2019). Azken batean, eskola erakunde heterosexual, heteronormatibo eta heteronormalizatzailea da. Horregatik,

premiatzkoa da lan kritikoa egiten jarraitzea eta hezkuntzaren hasierako zikloetatik (Haur Hezkuntzatik) diskurtsoak deseraikitzea; ondoren, beranduegi izango da eta (Trujillo, 2015).

Haurtzaroan, une askotan, mundua bitarra dela ikasten ari diren bitartean, jariakortasun handia dago errealitatean, eta jariakortasun hori landu egin behar da (Missé, 2019 apud Borraz, 2019). Lanketa hori normalitatearekin eta sexu-desberdintasunekin apurtzearekin bat dator, honela dikotomiari aurre egitea lortuko da. Horretarako pedagogia transgresore bat eratu behar da, kritika eta identifikazio alternatiboetara eramango gaituena, norma edo araua zalantzan jartzeko (Alonso eta Zurbriggen, 2016 apud León et al., 2020). Esate baterako: Queer pedagogia. Queer jakintzek zalantzan jartzen dute hetero, gay, lesbiana edota transexualen identitateen ustezko koherentzia, eta susmagarri bihurtzen dituzte, subjektuen prestakuntza eta kategorizazioa arautzeko prozesuak agerian utziz eta deseginez. Queer praktikek, istorioek eta esperientziek zalantzan jartzen dituzte genero-identitateen eta sexu-identitateen mugak, homogeenak eta finkoak ez direlako (Trujillo, 2015). Ildo beretik jarraiki, hezkuntza afektibo-sexualak beharrezko tresnak eskaintzen dizkigu haurrei elkar ezagutu eta elkar errespetatu dezaten irakasteko, beren burua eta inguruko guztiak, autonomia izaten eta beren gorputza eta emozioak kudeatzen laguntzeaz gain. Beraz, haurren adinera eta hezkuntza-etapara egokitzen da. Genero-berdintasuna eta sexualitatea, elkarrekiko errespetua eta norberaren eta norbanako bakoitzaren beharrak ulertzen laguntzen die (Sanjuán, 2018 apud Martos-Cueto, 2020).

Egungo egoerari erreparatuz, indarrean dagoen legedia aztertzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako curriculum-dekretura jo daiteke. Bertan, genero eta sexualitateari buruzko hezkuntzako hainbat terminori egiten zaie erreferentzia, hala nola, aukera-berdintasunari, diskriminazio-ezari, aniztasun afektibo-sexualari, etab.:

Ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako planteamendu etiko batetik abiatuta, aukera-berdintasunerako bermea da Haur Hezkuntza, inolako diskriminaziorik egiten ez duena ezaugarri pertsonalengatik, nortasun kulturalarengatik, genero-nortasunagatik edo sexu-joera eta -nortasunarengatik. Izan ere, diferentzia ekonomikoak, sozialak, hizkuntzazkoak, kulturalak eta pertsonalak gainditzea da haren xedeetako bat (237/2015 Dekretua: 2).

Alor pertsonalean, akademikoan eta sozialean aurrera egiteko hezkuntza-aukerak eta laguntza –curriculum-alorrekoa, pertsonala edo materiala– eman behar dizkiete ikastetxe inklusiboek haien ikasle guztiei. Pertsonen egokitutako testuinguru bat sortu behar da, desberdintasunei erantzuten diena eta talderik edo pertsonarik ahulenei babes eta laguntza zehatzak emango dizkiena. Hezkuntza inklusiboak aniztasunaren adierazpen guztiak hartzen ditu aintzat: hizkuntza, kultura, gaitasunak, sexu-orientazioa, generoa eta baliabide sozioekonomikoak (237/2015 Dekretua: 5).

Honez gain, legedi honen arabera, ikastetxeetako Hezkuntza eta Curriculum Proiektuek kontuan izan behar dute “bereziki aniztasunaren errespetua eta inor ez baztertua jaioterri, adin, arraza, sexu, egoera zibil, sexu-joera, gaitasun fisiko,” (237/2015 Dekretua: 11) eta abarreatatik. Irakasleen prestakuntza eta ebaluazioetan:

“hezkidetzan, aniztasun afektibo-sexuala, eta hezkuntza-behar bereziak behar dituzten kolektiboentzako arreta egokia sustatzeko hezkuntza inklusiboa garatzea eta erantzukizun soziala duten profesionalak trebatzea, kritikoak baina proaktiboak eta sortzaileak [izan daitezten] aldaketan aurrean” (237/2015 Dekretua: 15)

proposatzen da dekretu edo lege moduan. Oinarrizko kompetentzia espezifikotan, kompetentzia sozial eta zibikoan hurrengoak irakur daiteke:

“haurrek gizarte-errealitatea ulertzeko bidea urratzen dute familian eta eskolan prestutasunez, errespetuz, elkarlanean eta ekimenez parte hartzen dutenean, genero-diskriminaziorik gabe. Honako jardun hauek landu behar dira bizikidetzarako trebetasun sozialak eskuratzeko gizarte plural eta demokratikoetan: norberaren inguruko esparru guztietan gogoz eta arduraz parte hartzea, jokabide egokiak eta desegokiak bereiztea, gatazkak bide baketsuetatik konpontzea, norberaren iritziak adierazi eta defendatzea, eta gainerako pertsonen iritziak errespetatzea” (237/2015 Dekretua: 26).

Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremuko ezaugarrietan honako hau dakar curriculumak:

“Adin horietan ekiten zaio sexu eta generoko nortasuna eraikitzeari, eta biak bereizi ezean, gizarteak egindako hautuak barneratzen dira, gizon edo emakume izatearen ondorio ezinbesteko direlakoan. Horrenbestez, premiazkoa da haurra hartuko duen eskolak, esku-hartze hezitzailearen plangintza egitean, sexualitatea bizitzeko aukera ematea eta bizipen horren haria nor bere burua deskubritzea, jakin-mina, topaketa eta gozamina izatea” (237/2015 Dekretua: 28, 29).

Bigarren zikloko edukietan, 2. multzoan hurrengoak adierazten da: “Haurrek harreman orekatuak izatea elkarren artean. Estereotipo eta aurreiritzi sexistak batzuk identifikatzea eta baztertua” (237/2015 Dekretua: 34). Ebaluazio-irizpide eta -adierazleetan ebaluagarria da hurrengoak: “Pertsonen arteko diferentziak eta antzekotasunak ezagutzen eta azaltzen ditu, gorputzaren ezaugarri eta bereizgarri batzuei erreparatuta” (237/2015 Dekretua: 34) eta “giza irudia irudikatzen du eta gizakien ezaugarri fisiko batzuk ikusten dira irudi horietan” (237/2015 Dekretua: 34). Azkenik, metodologia eta ebaluazioko orientabideetan, “aukeratutako materialek agertuko dituzten pertsonak eta portaerak ez dira estereotipatuak edo sexistak izango” agertzen da (237/2015 Dekretua: 47).

237/2015 Dekretuak genero eta sexualitate hezkuntzari buruzko kontzeptuak inplizituki eta esplizituki aipatzen baditu ere, errealitatean Haur Hezkuntzan generoarekiko oso lanketa urria egiten dela esan liteke. Materiala moldatzeko zailtasunak daude; familiekin gaia lantzea zaila izaten da, eta gorputzaren lanketa oso urria da. Haur Hezkuntzan hutsune

handia dago generoaren inguruan egiten den lanketari dagokionez (León et al., 2020: 59). Sexualitateari dagokionez, egoera are etsigarriagoa da. Ikastetxeek ez dute estrategiarik beren ikasketetan gai hori sartzeko eta ia ez dago lanerako material eta metodologiarik (Romero eta Abril, 2008).

Gai hauekiko lanketa urriaren zergatietako bat irakasleen gain jartzen den ardura izan liteke, askotan soilik irakasleen sentsibilitatearen araberakoa izaten baita eduki horiek curriculumaren parte direla onartzea eta lanketa bermatzea (Romero eta Abril, 2008; Platero, 2016). Hortaz, irakasleei sexualitateari eta generoari buruzko gaien kontzeptuak zabaltzen hasteko tresnak emateak, neurri handi batean, ekitatea lortzen lagun dezake, eta, bereziki, ikasleen ezinegona arintzen lagun dezake, sexu-orientazioari eta generoari buruzko gaiak lantzerakoan (Zacko-Smith eta Smith, 2010). Azken finean, gizarte zis-heteronormatibo batean bizi garen heinean, helduek ikuspegi hori izanik, haurrek hori ez erreproduzitzea oso zaila da. Horregatik, patriarkatuak ezartzen duen rolen hierarkia eta haien arteko botere harremanarekin apurtze aldera, irakasleen formakuntza eta ezagutzaren bidezko kontzientzia hartzea behar-beharrezkotzat jotzen da eta, horrekin batera, ikastetxeen inplikazioa (León et al., 2020).

1.5. Haur Hezkuntzako irakasleen formakuntzaren garrantzia

Eredu kulturalen transmisioan hezkuntza da oinarritzko zutabeetako bat, eta ikastetxeek aukera ematen dute eraldaketa hezitzaile eta sozialak egiteko (Gorrotxategi eta Alvarez-Uria, 2017: 100). Horregatik, hezkuntza-sistemaren parte den orok esfortzua egin behar du aipaturiko dinamika baztertzaila edo diskriminatzailetatik kanpora irteteko (Platero, 2016). Hau da, genero-sistema bitar dikotomikotik eta indarrean dagoen sexualitate sistematik at dagoen errealitatea hauteman eta horren arabera jokatu behar dute irakasleek. Beraz, gure eskolek, neurri batean behintzat, gizarte-arauak oinarritzeko eta "normaltzat" jotzen dena definitzeko ardura dutenez, ikasleen eguneroko bizitzaren parte garen hezitzaileon aldetik, gure ikasleek beren burua definitzen eta adierazten dutenaren eta haien arteko erlazio aldakorren berri izan behar dugu (Zacko-Smith eta Smith, 2010). Hezkuntzako profesionalek gai izan behar dute ikasgeletako errealitateari erantzun inklusibo bat emateko, egungo sistemetatik kanpo geratzen diren ikasleen ongizatea ere bermatzeko. Eta horretarako hezitzaileak beharrezko tresnak eskura ez baditu, ez da hezkuntza egokia izango (Martos-Cueto, 2020).

Jakin badakigu hezkuntzan oraindik ere jarrera sexista eta heteronormatiboak transmititzen direla. Horregatik, irakasleen prestakuntzan apustu formalagoa egin behar da berreraikuntza sozial eta demokratikoaren eredu inklusibo-kritikoaren alde. Gizarte-aldaketa hori irakasleek berdintasunari eta aniztasun afektibo-sexualari buruz duten ikerketa-prestakuntzaren ondorioz sortuko da, hezkuntza-sistemari buruz jardun eta gogoeta

eginik (Bejarano eta Mateos, 2014 apud Martos-Cueto, 2020). Beraz, Haur Hezkuntzako irakasleak ikasgela batean egon daitekeen genero eta sexualitate aniztasuna kudeatzeko gai izatea beharrezkoa den heinean, garbi dago irakasleen formakuntza gakoa dela. Gizarte ireki eta plural batean bizi garenez, beharrezkoa da gai horiek naturaltasunez eta sistematikoki lantzea eta irakasleak prestatzea ikasgelen aberastasuna eta aniztasuna lantzeko gaitasunetan (Romero eta Abril, 2008: 49).

Are gehiago, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistamarako hezkidetzaren plana sortu du (2019). Eta bertan, argi islatzen da hezkidetzaren prestatutako irakasleen beharra: "Beharrezkoa da irakasleek prestakuntza jasotzea; prestakuntza etengabea ez ezik, hasierako prestakuntza ere bai, berdintasunean eta berdintasuneranzko hezkuntza zeharka txertatuko duena. Irakasleek parekotasun ezarekiko sentiberatasuna izan behar dute, horiek nola sortu eta errepikatzen diren ezagutu eta kontzientzia hartu behar dute. Halako irakasleek abian jartzeko tresna gehiago izango dituzte, halako prestakuntza jaso ez duten irakasleek baino" (Eusko Jaurlaritza, 2019: 34).

Laburbilduz, hezkuntza-sistema inklusibo eta ez zis-heteronormatiboa lortzeko asmoz, hezkuntza-profesional orok gai izan behar du ikasleen aniztasunari erantzuna emateko, Haur Hezkuntzatik hasita. Hori dela eta, irakasleen formakuntza guztiz funtsezkoa da, genero eta sexualitatearekiko arreta egokia izan eta gizarteko sistemaren barnean zein kanpoan dagoen ikasle edota pertsona ororen ongizatea bermatu dadin.

2. HELBURUAK

Lehenik eta behin, Gradu Amaierako Lan honetako marko teorikoan genero eta sexualitatea zer diren ulertu eta gaur egungo gizartean gai horiekiko egoera zein den aurkeztu nahi da. Era berean, gai horiekiko hezkuntzaren egoera aztertu eta haren garrantzia azpimarratu nahi da, Haur Hezkuntzatik hasita eta etapa horretan kokatuta. Azkenik, hezkuntza eremuan gai hauekiko ezagutza eta lanketaren garrantzia dela eta, irakasleen formakuntza berebizikoa dela jakinarazi nahi da.

Ikerketa lanari dagokionez, Haur Hezkuntzako irakasle izango garenok eskaintzen zaigun formakuntza, ikasgela barruan zein kanpoan, ikertu nahi da. Horretarako, Euskal Herriko Unibertsitateak Hezkuntza Fakultateetako ikasleei eskainitako formakuntzaren eta Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Graduan eskainitako formakuntzaren diagnostika egiteko zenbait irakasle eta arduradun elkarrizketak egin zaizkie; eta EHUko Arabako Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntzako ikasleen iritzi eta esperientziak arakatu dira. Haiek ahalbideturiko informazioari esker eta jasotako informazioarekin egingo den datuen analisiari esker, etorkizuneko Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako irakasleentzako genero eta sexualitateari buruz eskaintzen diren formakuntza aukerak

aztertu nahi dira, gaur egungo unibertsitateak gai hauei buruz eskaintzen duen hasierako prestakuntza nolakoa den ezagutu eta horren inguruko hobekuntza posibleak aurkezteko.

3. METODOA

3.1. Parte-hartzaileak

Honako ikerketa hau burutzeko, hasteko, EAEko Haur Hezkuntzako Gradua eskaintzen den Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko kideekin (ikasle zein irakasle) jarri naiz harremanetan, galdetegi bat betetzeko proposamena helaraziz. Partaide multzo bakoitzari galdetegi desberdin bat (1. eranskinean ikusgarri) bidali zaio, bakoitzaren lanpostu eta egoerara moldatutakoa, baina oinarri bera duena. Galdetegia erantzun duten partaideak (guztira 19) ondorengo 5 multzotan daude sailkaturik -sailkapenaren ordena ausazkoa izan da-, eta egindako ikerketaren emaitzen atalari begira multzo bakoitzak laburtzapen bana jaso du agertuko diren aipamenak identifikatzeko:

- (EHU-BZ) Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasunerako Zuzendaria.
- (EHU-BB) EHUko Hezkuntza Fakultateetako Berdintasunerako Batzordeetako kideak (Donostiako, Gasteizko eta Leioako Campusetako kide bana). Kide bakoitza bereizteko ondorengo kodeak erabiliko dira: Donostiako Hezkuntza Fakultateko Berdintasunerako Batzordeko kideari "EHU-BB-D" deituko zaio, Gasteizekoari "EHU-BB-G", eta Leioakoari "EHU-BB-L".
- (EHU-MZ) EHUko Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterraren zuzendaria.
- (MU-HHK) Mondragon Unibertsitateko Huheziko Haur Hezkuntzako Gradu koordinazioko kidea.
- (Gasteiz-HH) EHUko Haur Hezkuntzako Gradu ikasle eta ikasle ohiak (Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko 13 ikasle/ikasle-ohi). Ikasle bakoitza bereizteko "Gasteiz-HH1", "Gasteiz-HH2", etab. kodifikazioak erabiliko dira, zenbakiak galdetegia erantzuteko ordenarekin bat etorririk, hau da, galdetegia erantzun zuen multzo honetako lehen partaidea Gasteiz-HH1 izango da, bigarrena Gasteiz-HH2...

Bestalde, ikerketa sakonago bat burutzeko asmoz, ikuspegi feminista duten EHUko Campus ezberdinetako Hezkuntza Fakultateetatik aukeratutako lau irakaslerekin elkarrizketak egin dira, haien ibilbide feministarengatik aukeratuak izan direnak gai hauetan edo behintzat gaietako batean erreferenteak eta adituak direlako. Jarraian, ikerketaren

emaitzak antolatzeko erabilitako elkarrizketatuen kodeak, bakoitzaren izen-abizenak (haien baimenarekin erabiliak) eta haiek irakasle diharduten fakultateak irakur litezke -ordena elkarrizketa burutu zen dataren arabera delarik:-

- (E-Do) Amaia Elizalde (Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultateko irakaslea).
- (E-Le1) Laura Mintegi (Leioako Hezkuntza Fakultateko irakaslea).
- (E-Le2) Urtza Garay (Leioako Hezkuntza Fakultateko irakaslea).
- (E-Ga) Uzuri Albizu (Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslea).

3.2. Tresnak

Bi tresna desberdin erabili dira lan hau burutzeko, batetik galdetegia, eta bestetik elkarrizketa (1. eta 2. eranskinetan ikusgarri, hurrenez hurren, galdetegiak eta elkarrizketetarako gidoia). Galdetegiak 10-13 (kasuan kasu) galderaz daude osatuta, eta bertan genero eta sexualitatea hezkuntzan lantzearen garrantziari, metodologiari eta irakasleen formakuntzari buruzko galderak daude, besteak beste. Galderak modu koherentean eta plangintza jakin baten arabera daude antolatuta, beharrezko informazio guztia jaso ahal izateko. Bi galdera mota daude, batzuk itxiak dira eta besteak irekiak. Galdera itxiek azkartasuna ematen dute, galdetegia freskatzeko dute eta partaideek galdetegia gustura betetze aldera sortu dira, baita erantzun kuantitatibo eta aztertzeko errazak izateko ere. Bestalde, galdera irekiek informazio sakonagoa eta bakoitzaren proposamen propioak emateko aukera ematen dute, honela datu kualitatiboak jasoz. Galdetegiak e-mail bidez Google Inprimaki moduan helarazi dizkiot partaide bakoitzari. Plataforma horri esker, partaideen erantzunak modu seguru eta ordenatu batean jasotzeko aukera izan dugu, eta era berean, galdetegia erakargarriagoa eta betetzeko errazagoa izan da.

Bestalde, elkarrizketei dagokienez, esan liteke tresna egokia dela gai baten edo batzuen inguruko hausnarketa sakonagoa egiteko. Izan ere, galdetegiei esker informazio ugari eskuratu badugu ere, EAEko Hezkuntza Fakultateetako ikasleen formakuntzari buruzko datu gehiago eskuratzeko baliagarriak izan zaizkigu elkarrizketak. Elkarrizketaren gidoia edo nondik norakoak partaideei aurretik bidali genizkien e-mail bidez, horrela, haiek aurretiaz erantzunak gutxi gora-behera prestatzeko eta haien burua hobeto informatzeko aukera eduki zuten. Aurrez-aurreko hizketaldiek alde negatibo eta positiboak dituzte. Batetik, elkarrizketa burutzeko leku eta ordu bat adosteko beharra dago, eta horrek ikerketa

moteltzen du. Baina, bestalde, ulertu gabeko edozein kontu momentuan argitzeko aukera ematen da, gainera partaideak informazio gehigarria emateko aukera dago mugarik gabe, ideia propioak gehituz eta ikerketa aberatsago bat ahalbidetuz.

3.3. Prozedura

Ikerketari hasiera emateko, errebisio bibliografikoari ekin nion, hala nola, gaiaren inguruko artikulua, egunkari, sare-sozial edota liburuetara joaz. Oinarrizko informazioa jaso ondoren, eta ikerketaren muina guztiz definitu ondoren, galdetegiak eta elkarrizketak diseinatu nituen. Jarraian, partaideen aukeraketa burutu nuen, ikerketarekin zerikusia duen oro barne hartzeko asmoz. Bakoitzari zuzenduriko gutunak prestatu nituen, ikerketari buruzko aurkezpen labur bat eginez, beharrezkoak ziren ezaugarriak eta lanaren xedea zehaztuz, eta haien parte-hartzea eskatuz. Gutun horiek e-mail bidez bidali nizkien galdetegiekin batera (Google Inprimaki moduan).

Galdetegiak bidali eta erantzunak jaso ostean, elkarrizketak prestatu nituen. Galdetegien kasuan bezala, lehendabizi partaideak erabaki eta gero ikerketaren nondik norakoekin eta parte-hartzeko eskaerarekin partaide bakoitzari gutuna bidali nion. Ondoren, elkarrizketetako galderak helarazi nizkien, eta honekin batera haiekin egun eta ordu bat zehaztu nuen elkarrizketa burutu ahal izateko. Egungo egoera dela eta, elkarrizketak aurrez aurre egiterakoan zailtasunak daudenez, internetez egitea erabaki genuen. Gainera, honek elkarrizketa grabatzea ahalbidetzen du, gero elkarrizketako transkripzioa egin ahal izateko. Ondoren, transkripzio hura elkarrizketatuei bidali zitzaien, haiek irakurri eta informazioa gehitu edo moldatu ahal izateko nahi izanez gero.

Azkenik, ikerketan bilduriko emaitza guztiak jaso, antolatu eta informazio hori aztertu ondoren, gaiarekiko lanketa eta hausnarketak sortu ditut, baita ondorio batzuk atera ere.

4. **EMAITZAK**

Jarraian dauden azpiatalak metodoan aipaturiko ikerketako parte-hartzaileengandik jasotako informazioaz osaturik daude, hau da, galdetegia erantzun duten 6 profesionalengandik eta Haur Hezkuntzako Gradu 13 ikasleengandik eta baita Gradu horretako EHUKo hiru campusetako 4 irakasle elkarrizketatuengandik ere (elkarrizketen transkripzioak 3. eranskinean daude ikusgarri). Jasotako datu, iritzi, esperientzia-pertsonal zein gogoetak ondorengo atal eta azpiataletan sailkatu dira eta parte-hartzaileen kodifikazioaren bidez ikerketaren emaitzak egokitasun handiagoz antolatzeko, ulertzeko eta aztertzeke aukera dago.

4.1. Genero eta sexualitate gaien lanketa

Hasteko, Gasteiz-HH multzoari ikerketaren muinak diren bi gai nagusiak -generoa eta sexualitatea- zer diren eta nola ulertzen dituzten galdetu zaio. Izan ere, gai horietan adituak edo profesionalak ez diren heinean, ikerketari hasiera emateko eta gaien kokatzeko erabili da galdera, baita haiek orain arte jasotako ezagutza zein den jakiteko ere. Generoaren definizioari erreparatuz honakoak jaso ditugu:

“Rol eta estereotipo jakin batzuk betetzen dituen sexuaren gainean gizarteak sortutako banaketa dikotomikoa” (Gasteiz-HH1), “identitatea” (Gasteiz-HH2, Gasteiz-HH6), “emakume zein gizonei euren sexuaren arabera (giza espezieko emea edo arra) inposatzen dizkieten jarrera multzoa da; horrela, emakumeei exijitzen zaie feminitatea eta gizonei aldiz maskulinitatea. Generoa gizarte-konstruktua bat da, eta hori indargabetu beharra dago, emakumeoi horregatik zapaltzen baikaituztelako” (Gasteiz-HH3), “biologikoki definitzen gaituen burokrazia kontua” (Gasteiz-HH4), “genitalak kontuan hartu gabe bakoitzaren nortasunaren araberako identifikazioa” (Gasteiz-HH5), “norbere burua ikusteko modua” (Gasteiz-HH7), “femeninoa edo maskulinoa izatea da; gizonei eta emakumeei esleitzen zaizkien portaera-, pentsamendu-, jarrera- eta nortasun-ezaugarriak dira, bizi diren gizartearen arabera” (Gasteiz-HH8), “ez nuke definitzen jakingo” (Gasteiz-HH9), “gure irudiaren identitatea eraikitzea” (Gasteiz-HH10), “nork bere identitatearen eraikuntzan duen marka, hautaketa da. Berau ezaugarri batzuekin (rol) zehatz batzuekin lotu ohi dena” (Gasteiz-HH11), “inposizio soziala” (Gasteiz-HH12), “maskulinoa edo femeninoa izan daiteke” (Gasteiz-HH13).

Jasotako erantzunen artean aniztasun handia dago, erantzuten jakin ez duen partaide batetik hasita beste hainbat erantzun desberdinetaraino. Partaideek generoa nola irudikatzen duten ikusi ahal izan dugu, eta bi joera nagusi identifika daitezke: batzuek sexu-genero lotura aipatu dute, generoa pertsonen sexuaren arabera eraikitzen den estruktura, banaketa edo inposizio soziala dela esanik (Gasteiz-HH1, Gasteiz-HH3, Gasteiz-HH8, Gasteiz-HH12). Beste batzuek, aldiz, sexuarekiko loturarik aipatu gabe, generoa norberaren identitatea edo irudi pertsonala dela diote (Gasteiz-HH2, Gasteiz-HH6, Gasteiz-HH5, Gasteiz-HH7, Gasteiz-HH10). Honez gain, generoa ezaugarri edo joera jakin batzuekin lotu dute batzuek (Gasteiz-HH3, Gasteiz-HH11), maskulino edo femenino bezala definituz (Gasteiz-HH8, Gasteiz-HH13). Bestalde, sexualitateari erreparatuz, honako definizioak eman dituzte Gasteiz-HH multzoko kideek:

“Ezaugarri biologikoetan oinarriturikoa” (Gasteiz-HH1), “orientazioarekin edo nahiekin lotzen dut” (Gasteiz-HH2), “zer sentitzen garen eta nola sentitzen garen” (Gasteiz-HH4), “erakusten duen jarrera” (Gasteiz-HH5), “norbera bere gorputzarekiko edo beste batzueganako desioa (fisikoa, pertsonala...)” (Gasteiz-HH6), “bakoitzak bere harreman intimoak bizitzeko modua” (Gasteiz-HH7), “pentsamendu, fantasia, desio, sinesmen, jarrera, balio, praktika, rol eta harremanen bidez bizi eta adierazten da”

(Gasteiz-HH8), "sexuaren inguruko jarrera, praktika eta emozioekin" (Gasteiz-HH10), "generoari lotuta dagoen eta zenbait praktika, pentsamolde, harremantzeko era etab. barne biltzen dituen pertsonon alderdia da" (Gasteiz-HH11), "sexua biologia da" (Gasteiz-HH12), "zuk pertsona bezala identifikatzen zaren horri egiten dio erreferentzia" (Gasteiz-HH13). Gasteiz-HH3k ez du erantzunik eman, eta Gasteiz-HH9k adierazi du ez lukeela definitzen jakingo.

Generoaren definizioekin gertatutakoaren erara, partaideek sexualitatea era desberdinetan irudikatzen dutela aztertu ahal izan dugu. Batetik, badira sexualitatea eta biologiaren arteko lotura egiten dutenak, sexualitatea gizakion sexu biologiko gisa ulertzen dutelarik (Gasteiz-HH1, Gasteiz-HH12). Bestetik, sexualitatea bakoitzaren orientazio sexuala dela esateaz gain (Gasteiz-HH2), askok definizio sakona eskaini dute eta pentsamendu, balio, jarrera, praktika, desio eta emozioak hartu dituzte kontuan (Gasteiz-HH6, Gasteiz-HH8, Gasteiz-HH10, Gasteiz-HH11), baita sexualitateak generoarekiko eduki dezakeen lotura aipatu ere (Gasteiz-HH11).

Generoa eta sexualitatea bizitzan landu beharreko gaiak diren galdetzean, galdetegietan parte-hartu duten guztiek (irakasleek eta ikasleek) bat egin dute galdera horren erantzunean, ehuneko ehunak baiezkoa erantzun duelako. Ildo beretik jarraituz, lanketa hori non bete beharko litzatekeen aipatu dute, erantzuteko aukera itxiak "etxean", "eskolan" eta "aisialdian" eta aukera irekia "beste bat" izanik. Denen iritziz gai hauek bai etxean eta bai eskolan landu beharko lirатеke. Aisialdiari dagokionez, aldiz, galdetegietako 19 parte-hartzaitatik bik ez dute aukera hori hautatu. Honez gain, batzuek -erantzuteko aukera irekia erabiliz- adierazi dute "sare-sozialetan", "lagunartean" eta "narratibetan" ere landu beharko lirатеkeela. Hala ere, oro har generoa eta sexualitatearekiko lanketa testuinguru guztietan eman beharko litzatekeela adierazi da, "ez soilik eremu edo esparru konkretuetan".

Galdetegietan gai hauek lantzen noiz hasi beharko litzatekeen galdetzean, ia %70k bizitza osoko kontua dela dio, jaiotzetik hain zuzen ere. Salbuespenak ikasle taldeko 6 partaide izan dira. Izan ere, 3ren iritziz haurrak 3 urte dituenen hasi beharko litzateke lanketa hau ematen, 2ren iritziz haurrak 6 urte dituenen, eta pertsona baten iritziz haurra bere gorputzaren propiozepzio argia (edo norberaren gorputzaren kontzientzia) izaten hasten denean. Era berean aipagarria da, Masterraren zuzendariak dioela gai hauek jaiotzetik ez ezik "jaiotza aurretik lantzea ere gomendagarria dela, askotan umeak jaio aurretik generoaren araberako aurreikuspenak eta harremanak egiteko moduak eraikitzen baititugu".

Laburbilduz, ikasle taldeak genero eta sexualitate kontzeptuei buruz emandako definizioak askotarikoak izan dira, guztiak desberdinak; Deigarria da jasotako erantzunen aniztasuna, nabarmen geratzen delarik haien artean jakintza maila desberdintasuna

dagoela, edota, behintzat, galdetegia erantzuteko momentu hartan kontzeptuak definitzeko eta haien erantzunak arrazoitze gaitasun desberdinak zituztela. Gai hauek bizitzan landu beharko liritekeen gaiak direla adierazi dute guztiek, eta denak ados daude etxean eta eskolan landu behar diren gaiak direla esatean. Aldiz, %10,5ak gai hauek aisialdian edota beste eremu batzuetan lantzea ez du kontuan izan. Baina oro har, bizitzako alderdi guztietan landu beharrekoak direla diote. Azkenik, gai hauen lanketa jaiotzetikoa (eta batzuen ustez jaiotze baino lehenagokoa) izan beharko litzatekeela dio ia %70k, hala ere ikasle taldeko 6k beste adin tarte bat adierazi dute: 3k haurrak 3 urte dituenean, 2k haurrak 6 urte dituenean, eta pertsona baten iritzi haurra bere gorputzaren propiozepzio argia izaten hasten denean.

4.1.1. Generoaren eta sexualitatearen lanketa Haur Hezkuntzan

Ikerketa Haur Hezkuntzako eremuan zehazten hasteko, ondorengo galdera planteatu zen: "Haur Hezkuntzako haurrekin gaia lantzea posible dela deritzozu? Zergatik?". %100k baiezkoa erantzun du, baita "Noiz hasi beharko ginateteke gai hauek lantzen?" galderari "6 urterekin" erantzun dioten bi ikasle ere, haien baldintzak edo zergatiak ondorengoak izan direlarik: "baina adi egon behar dugu nola lantzen dugun haurrei mezu desinformatzaileak ez bidaltzeko" (Gasteiz-HH3) eta "ariketa anitz sortu daitezke gai honen harrera egiteko" (Gasteiz-HH4). Jaiotzetik edo 3 urterekin gaiak lantzen hastea aproposa deritzoten galdetegi-egileek honela arrazoitu dute Haur Hezkuntzan gaiak lantzeko baiezko erantzuna:

"Haur hezkuntzako haurrek ereduak ikusiz eta horien jokaerak jarraituz ikasten dutelako" (EHU-BZ).

"Haurrek 3 urterekin jada generoen kategoriak oso argi ezarrita dituzte ingurunetik jaso duten informazioa (komunikabideak batez ere) kontuan izanda, beraz oso argi dute, adibidez zeintzuk izango liritekeen nesken eta mutilen gauzak-jolasak-jostailuak. Sexualitatea ere badute, noski. Sexualitatea harreman egokiak dira, tratu egokia, afektuak, gorputza, eta Haur Hezkuntzako haurrak beste edozein adineko pertsonak bezala, izaki sexualak dira, adierazpen sexualak dituzte, eta arriskua ere, zoritxarrez abusua sufritzeko. Gelan gai hauek giro egokian landuko balira lan handia egin zitekeen bai genero eredu ekitatiboagoak ezartzeko bai bestelako egoera konplexuak detektatzeko" (EHU-BB-L). "Etapari horretan identitate pertsonala eta soziala eratzen den momentua delako" (EHU-BB-D). "Gaia sortzen den bakoitzean hitz egin behar da, adinaren eta ulermenaren arabera azalpenak desberdinak izango dira, bizitzari buruzko beste gaiez adierazten dugun moduan" (EHU-BB-G).

"Edozein adinean lantzeko gaia delako" (EHU-MZ).

"Identitatea hor definitzen delako. Baina "lantzea" zer den definitu beharko litzateke" (MU-HHK).

"Txikitatik gizarteak behartutako rol eta estereotipoak imitatzen hasten direlako" (Gasteiz-HH1). "Edozein gai adinari egokituta landu daitezkeelako eta landu behar delako" (Gasteiz-HH2). "Hasi gaitzke gaiari buruz hitz egiten haiek txikitatik informatzeko"

(Gasteiz-HH5). “Haur Hezkuntzatik hasten baitira haurrak haien identitatea garatzen eta prozesu horren parte bat da” (Gasteiz-HH6). “Txikitatik gauzak lantzen joatea funtsezkoa dela uste dut” (Gasteiz-HH7). “Txikitatik hasten dira haurrak ipuinekiko, abestiekiko, marrazki bizidunekiko eta jolas interaktiboekiko interesa pizten, adinaren arabera garapen egokirako jarduera egokiak bilatuz lan egin daiteke” (Gasteiz-HH8). “Normaltasunez landu beharreko gaia iruditzen zait, eta haurrengana egokitu daitekeela, hauek gaia ulertu dezaten” (Gasteiz-HH9). “Etapan honetan jada kontzeptuen nozio basiko batzuk barneratzen eta identitatea garatzen hasten direlako eta oso gomendagarria izango litzateke hauek lantzen hastea” (Gasteiz-HH10). “Ezinbestekoa. Garapenaren parte eta haien eguneroko zalantza, errutina eta beharrekin lotuta” (Gasteiz-HH11). “Haur guztiek gaien inguruan hausnartzeko gaitasuna baitute askotan hala ez dela iruditzen zaigun arren” (Gasteiz-HH12). “Kontziente dira, gaia ulertzen dute eta kuriositatea dute” (Gasteiz-HH13).

Genero eta sexualitatearen lanketa Haur Hezkuntzako etapan guztiz oinarritzotzat edo beharrezkotzat jotzen dute partaideek. Batik bat, etapa horretan haurrak generoa eta sexualitatea ulertzen eta barneratzen hasten direlako, eta ingurutik jasotzen duten informazio edo inputei esker ikasten joaten direnez, gai horien lanketa goiztiarra ezinbestekoa dela dirudite.

Elkarrizketei erreparatuz, gai hauekiko lanketa Haur Hezkuntzan eman litekeen galdetzerakoan, aditu guztiek baiezkoa eman dute. Are gehiago, “beharrezko” eta “ezinbesteko” (E-Do, E-Le1, E-Le2) hitzak erabili dituzte:

“Uste dut beharrezkoa dela, egin beharko litzatekeela. Moldatuta beraien adinera eta beraien ulermen mailara [...]. Uste dut gaiak ez direla derrigorrez adinka bereizi behar. Baizik eta gai guztiak adin guztietan landu beharko lirakeke, moldatuta adin bakoitzeko ezaugarrietara” (E-Le2).

“Beharrezkoa da lanketa batez ere kanpoan dagoenari begira. Gure kultura ez balitz egongo tradizionalki kodifikatua egon den moduan, ez litzateke ezer egin beharko. Besterik gabe, naturalki hazten utzi. Baina badago errealitate kultural bat deseraiki nahi duguna, eta horregatik da beharrezkoa lanketa bat egitea” (E-Do).

“Haurrak inoiz ez dira gazteegiak heziketa jasotzeko. Adinaren arabera moldatu beharreko heziketa da. Hain zuzen ere, haurrak jaiotzen diren unetik –eta nik esango nuke lehenagotik ere– ari dira zenbait input hartzen gizartetik eta, orduan, garrantzitsua da lehen unetik ere irizpideak ematea horren gainean” (E-Le1).

Azken honek, Masterreko zuzendariak bezala, jaio aurretiko unea ere azpimarratu duela azpimarragarria da. Honez gain, Haur Hezkuntzako haurren adinera egokituriko lanketa bat beharrezkoa litzatekeela adierazten dute, eskolatik kanpo bizi dezaketen inguru tradizionalaz at dagoen informazioa jaso ahal izateko asmoz.

Haur Hezkuntzako ikasgeletan gai hauek zein modutara landuko lituzketen edo landu beharko lirakekeen galderari erantzun desberdinak eman dizkiote, lanketa inplizituki egitetik

esku-hartze zuzenaren bidez egitea proposatzeraino. Askok ikasgeletako materialaren erabilera aipatu dute, “non genero aniztasuna eta sexualitatea bizitzeko forma desberdinak landuko diren” (EHU-BZ) eta “ez-sexista eta genero nortasuna islatzen dutenak” (EHU-BB-G) izan beharko liratekeen, horien artean ipuinak, bideoak, panpinak, irudiak, eta abestiak, besteak beste. Gainera, jarduerak, hala nola, dramatizazioa, hitzaldiak, adituak ikasgelara gonbidatzea eta jolasak ere aipatu dituzte (EHU-BZ, EHU-BB, EHU-MZ, Gasteiz-HH). Materiala eta jarduerak ez ezik, ikasgelako testuinguru osoari erreparatu diote batzuek; “testuingurua da gakoa. Bai testuinguru fisikoa (eskainitako espazio, material eta denborak zainduz) eta bai testuinguru soziala (irakasleak erreferente eredugarria izan behar du)” (MU-HHK), “ingurune egoki bat sortu behar da, non haurrak eroso senti daitezkeen galderak eginez eta zalantzak agertuz” (Gasteiz-HH).

Ildo beretik jarraiki, beste askok egunerokotasunari egin diote erreferentzia:

“Jarrera sexistaren bat ikusten badut hortik abiatuta ere gaia landuko nuke” (Gasteiz-HH1), “beraiek dakitenetik eta jakin nahi dutenetik abiatuz, edukiak egokituz, proiektu modura zein egunerokotasuneko elkarrizketetan” (Gasteiz-HH2). Era transbertsalean eta naturaltasunez, errealitatearekin lotutako adibideak emanez haurrak identifikatuta sentitzeko (Gasteiz-HH).

“Ez da zertan esku-hartze berezirik behar, horiek lagundu badezakete ere. Irakaslea gaiez kontziente bada eta horiekiko sentikortasuna badu egunerokotasuna oso ondo aprobeitza dezake lantzeko: gertaeretan eta komentarioetan, gelarako aukeratzen duen materialean, horren erabileran... horrekin lan handia egin dezake” (EHU-BB-L).

Azken honek honela jarraitu du haren erantzunaren arrazoiketa, erantzukizuna ikasgelatik haratago doala adieraziz: “Hala ere gela edo irakasle bakarrek apustua baino, zentrokoa izan beharko litzateke” (EHU-BB-L). Ez da ikasgelatik harago joan behar izatea aipatu duen bakarra izan, izan ere Gasteiz-HH taldeko batek ere irakasle klaustro osoarekin hitz egiteko beharra azpimarratu du.

Elkarrizketei erreparatuz, galdetegien kasuan bezala, erantzun desberdinak jaso dira. Batek “ikasgelako edo ikastetxeko beharraren araberrako” (E-Do) lanketa egin behar dela dio: “Ikastetxe guztietan ez dago errealitate berdina, ez daude behar berdinak, ezta aukera berdinak ere. Ikastetxe batzuetan egon liteke nolabaiteko erresistentzia gurasoen aldetik. Eskola publikoaz ari baldin bagara, gurasoengandik datozen erresistentziak baleude ere ez lirateke onartuak izan beharko” (E-Do). Zirkunstantzia desberdinak egonik:

“Hoberena dagoen horretatik abiatzea da. Ikusten baldin bada haurrek oso normaltasun handiz daramatela, etxetik gaia oso modu askean bizi dutela, hori mantendu, elikatu eta zaintzen saiatzea izan beharko litzateke irakaslearen lana. Aldiz, ikusten baldin badugu haurrengan rol estereotipatuak hasi direla, jarrerak eta komentarioak agertzen, lanketa sakonagoa egin dezakegu. Materialean ikuspuntu kritiko

bat ezarri behar da. Gero, kasuan kasu ikusten diren beharren arabera, esku-hartze edo planteamendu desberdinak egin daitezke, intentsitate desberdinekin, haurren errealitateen arabera” (E-Do).

“Irizpide orokor batzuk eman behar dira, betiere giza eskubideetan oinarrituta, [...] ikasleek haien iritzi propioa eratu dezaten” (E-Le1). Azkenak “estereotipoen apurketa” nabarmendu du, “ez derrigorrezkotasunaren bitartez, baina gonbidapen berriak eginez”. Gainera, “irakasle bezala gai izan behar gara identifikatzeko zer ari den gertatzen eta inertziei buelta emateko erremintak garatu behar ditugu” (E-Ga).

Laburbilduz, Haur Hezkuntzako hurrekin gaia lantzea posible dela deritzote denek. Are gehiago, beharrezkoa edota ezinbestekoa dela diote batzuek. Bestalde, Haur Hezkuntzako ikasgeletan generoaren eta sexualitatearen lanketa burutzeko material eta jarduera zehatzen erabilera aipatu da. Baina, batzuek egunerokotasunaren garrantzia azpimarratu dute, baita ikasgelako testuinguru osoarena ere. Ildo beretik jarraituz, ikastetxearen beharrak aztertu eta horren arabera jokatu beharko litzatekeela aipatu da, ikasgeletako inertziei buelta emateko eta ikasleek iritzi propioak sortu ahal izateko. Hitz gutxitan, “zaila da gauza hauei formula bakar bat ematea” (E-Do), baina ondorengo atalean aipatuko den bezala, “lehenengo gaiaren inguruan ikertu behar dute irakasleek” (Gasteiz-HH).

4.2. Haur Hezkuntzako ikasgeletan genero eta sexualitatearen lanketa egiteko irakaslearen beharrak (jarrera edota formakuntza)

Haur Hezkuntzako ikasgeletan genero eta sexualitate gaiekiko lanketa egiteko, irakaslearen formakuntzaren eta jakintza zehatzen beharra edo garrantzia aipatu dute galdetegietako eta elkarrizketetako partaide gehienek, zehazki 23tik 18k:

“Ikasgeletan erabiltzen duten metodologian genero ikuspegia, aniztasuna eta sexualitatea txertatzeko jarraibideak eman ditzaketen formazio ikastaroak jasoaz. Era berean, zentroko tailerrak antolatuz irakasle lan talde desberdinen artean” (EHU-BZ).

“Zeharkako eta etengabeko formakuntza” (EHU-BB-G). “Genero aniztasuna eta Hezkuntza sozio-afektiboa” (EHU-BB-D).

“Umearen prozesuak ondo ezagutu beharko lituzke: noiz eta nola garatzen duen genero identitatea, ze lotura duen honek sexualitatearekin, gizarteko joerak zein diren...” (MU-HHK).

“Sexualitatearekin loturiko formakuntzak ezinbestekoak iruditzen zaizkit” (Gasteiz-HH2). “Nik oso garrantzitsua deritzot sexologiaren inguruan informatzeari, baina haurren sexu abusuen inguruan formatu izana ere funtsezkoa iruditzen zait. Formakuntza ez badugu, ez dugu jakingo esku hartzen ezta seinale horiek detektatzen ere. Halaber, garrantzitsua iruditzen zait feminismoaren inguruan kontzeptu dezente jakitea eta horiek

argi edukitzea” (Gasteiz-HH3). “Formakuntza handia, ikuspuntu ireki batekin” (Gasteiz-HH5). “Gaiaren inguruko formakuntza” (Gasteiz-HH6) “Formakuntza ezberdinak, hala nola identitate ezberdinak ezagutzekoak, haurrek sentitu ditzaketen egoera berezietan lagundu ahal izatekoak” (Gasteiz-HH7). “Beti berri behar da eta autodidakta izan” (Gasteiz-HH8). “Orokorrean gai askoren inguruko formakuntza eduki beharko genukeela uste dut, kasu honetan gaia ondo menperatu beharko litzatekeela uste dut” (Gasteiz-HH9). “Esperientzia eta iritzi propioetatik harago doan formakuntza profesional eta gehigarri bat” (Gasteiz-HH10). “Formakuntza alor emozionalari so egiteko, (enpatia, sentiberatasuna...) konstantea eta autokritika eta jakin-nahiak bultzatutakoa. Terminologia ezagutu eta estereotipo eta aurreiritziez gain lan egiteko gaitasuna bermatuko duena” (Gasteiz-HH11). “Graduan honen inguruko formakuntza bat ematen ez dela jakinik, ondo legoke gai honekin lotutako masterren bat edota kurtsoak egitea” (Gasteiz-HH12).

“Batuetan jakintza kontua ere bada. Orduan, nik uste dut ezagutza maila, behintzat, daukagun sistemarekin, asko elikatu litekeela, asko hobetu” (E-Do).

“Gutxienez bermatu beharko litzateke edozein irakaslek edukitzea formazioa edozein egoeratan jarduteko, ezin baitugu utzi boluntarismoan bakarrik. Edozein irakaslek formazio nahikoa jaso behako luke alde batetik formazioa emateko eta, bestetik, bere eremuan kasu bereziren bat sortzen bada, erantzuten jakiteko” (E-Le1).

“(Irakasleek) beharko lukete genero eta sexualitate ikuspegia ondo landuta eta garatuta izan, ondo ulertzea zer esan nahi duen horrek. Baita dibertsitatearen inguruko ere” (E-Le2).

“Formakuntza behar da, hori argi dago” (E-Ga).

Irakasleen formakuntza, eta zehazki ondorengo gaien inguruko jakintzak eskuratzearen garrantzia aipatu da: genero eta sexualitate ikuspegiak, sexu-adierazpen eta genero identitate aniztasuna, familia eredu ezberdinak, sexologia, haurren sexu abusuak, umearen prozesuak (noiz eta nola garatzen duen genero identitatea, ze lotura duen honek sexualitatearekin, gizarteko joerak zein diren...), eta hezkuntza sozio-afektiboa, besteak beste.

Bestalde, irakasleen formakuntzari erreparatu orde edo erreparatzeaz gain, haien jarrerari eta izaerari erreparatu dioten partaideak ere badaude (4 irakasle eta 2 irakaslegai):

“Irakaslearen inplikazioa gakoa da. [...] Bi gauza beharko lirateke, legez antolatzea eta aurreikustea (curriculumean ezartzea irakasle batek ezagutu behar duen eremua), eta irakasleen inplikazio eta motibazioa, konpromisoa, baina hori ezin da legez inposatu, beharrezkoa bada ere. Bi horien elkarrekintza gabe porrot egiteko aukera handia dago” (E-Le1).

“Ez bakarrik formakuntza, baizik eta hausnarketa edo gogoeta beharko litzateke. Askotan formakuntzak ez du aldatzen gure pentsatzeko era, edo gure usteak. Formakuntzak bakarrik ez du balio, baizik eta enpatia sortzea, ulertzea” (E-Le2).

“Langileek sentsibilitatea eduki behar dute gutxiengoekiko. Jakin behar dute diskriminazio positiboa ere egiten, egin behar baldin bada momenturen batean. Horrelako jarrerak, kontzeptuak oso barneratuta eduki behar dira. Nik uste dut hori izaera kontu bat dela” (E-Do).

“Ikuspegi feminista beharko luke, ikuspegi kritikoa, gaiekiko sentikortasuna” (EHU-BB-L).

“Formakuntza baino, burua zabalik edukiz” eta “egunerokotasunean normaltasun osoz landu behar diren gaiak dira” (Gasteiz-HH).

Hori bermatu ahal izateko, elkarrizketa batean Graduan sartu baino lehenagoko elkarrizketen beharra aipatu da: “nik defendatzen dut elkarrizketa pertsonalak egin behar direla jendareekin irakasle eskoletan sartzeko (Gradu mailan). Bestelako proba batzuk egin beharko lirateke, bestela ez du balio. Nota media batekin ez daukazu ezer ziurtatuta, eta horrela curriculumaren hainbat eta hainbat aspektu ez dira gero praktikara ekarriko” (E-Do).

Laburbilduz, %80 inguruk Haur Hezkuntzako ikasgeletan genero eta sexualitatearekiko lanketa egin ahal izateko irakaslearen formakuntza lehenetsi du, genero eta sexualitate ikuspegiei, sexu-adierazpen eta genero identitate aniztasunei, eta abarrei buruzko formakuntza behar dutela adieraziz. Honez gain, irakaslearen berezko jarreraren garrantziari ere erreparatu diote, irakasleen konpromiso eta motibazioaren beharra adieraziz. Esan bezala, “bi horien elkarrekintza gabe porrot egiteko aukera handia dago”elako (E-Le1).

4.2.1. Non, noiz eta norengandik jaso genero eta sexualitatearekiko formakuntza

Aurreko atalean irakasleen formakuntzaren beharra aipatu da, eta azpiatal honetan formakuntza hura non, noiz edo norengandik jaso dezaketen adieraziko da. Hasteko, batzuek formakuntza autodidakta moduan jaso daitekeela adierazi dute: “adin batetik aurrera (formazioa) bilatu ere egin dezake norberak, gaur egun informazio ugari dago. [...] Norberaren erantzukizuna ere bada” (EHU-BB-L). Norberak informazioa bilatzeko leku edo aukera ugari aipatu dituzte, hala nola, emakumeen eskubideekin, genero-indarkeriarekin eta haurren sexualitatearekin lan egiten duten elkarteak bilatuz; elkarteen, topaketen zein jardunaldien bidez; liburu, artikulua eta interneten bidez... (Gasteiz-HH).

Bakoitza bere kabuz informazioa toki desberdinetan aurkitu dezakeela adierazteaz gain, erakunde desberdinek (Berritzeguneek, Lanbidek, Delegaritzak, UEUK, eta abarrek) formazioak eskaintzen dituztela adierazi dute. Gainera, genero eta sexualitate ezberdinen kolektiboen webguneen, gai hauek jorratzen dituzten herri mugimenduen edota jakintza arlo hauetan espezializatuak diren adituen bidez ere formazioa jaso litekeela diote, baita norberaren esperientziarengandik ikasteko aukera aipatu ere.

Hala ere, askok Haur Hezkuntzako Graduan eskainitako formazioaren beharra aldarrikatu dute: “Nik uste dut egon beharko litzatekeela Graduetan irakasgai bezala” (E-Le2), “nik uste dut fakultateetik hasi beharko genukeela formakuntza ematen” (E-Ga), “Haur Hezkuntzako graduan bertan hasita” (MU-HHK), “gai horiek lantzen dituzten irakasgaiak egon beharko liratekeela uste dut” (EHU-MZ), “irakasgai moduan unibertsitatean” (Gasteiz-HH) eta “Magisteritzako Graduan (landu beharko litzatekeela)” (EHU-BB-D) aitortzen dute.

Ildo beretik jarraituz, Hezkuntza Fakultateetan gai hauekiko formakuntza eskaintzeari dagokionez, Hezkuntza Fakultateetako irakasleen formakuntzaren beharra aitortu da: “lehenago unibertsitateko irakasleok ere formakuntza behar dugu” (E-Ga), “unibertsitateetako irakasleek ere gai hauekiko formakuntza beharko genuke. Gure esku dago ikastaroak eta honelako gauzak egitea, nahiz eta beti eskaintzarik ez dagoen” (E-Do). Hau da, unibertsitatean jaso beharko litzatekeen formakuntzaren harira, unibertsitateetako ikasleen formakuntza ez ezik, irakasleen formakuntza beharra mahai gaineratu da: “Gai bakoitzeko adituengandik (jaso behar dugu formakuntza). Hezkuntza fakultateetan gauden irakasleak ez gara adituak gai horietan, gure eremuak dira literatura, hizkuntza, matematika, musika... Ez gara adituak, uste dut formatzaileok ere formazioa jaso behar dugula gero formatzaile izango direnei formazioa emateko. Hau da, dena katean doa” (E-Le1).

Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitateak eskainitako bestelako (Graduez gain) formakuntza espezifikoa ere aipatu da, horien artean Berdintasun Zerbitzuak eskaintzen dituen online ikastaroak eta Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra. Baina, elkarrizketatutako irakasle batek zera aldarrikatzen du: “masterrak ere badaude, baina irakasleok sakondu beharreko gauza bakoitzarekiko master bat egin behar badugu... Formakuntza minimoa Graduan eman beharko litzateke” (E-Do).

Laburbilduz, leku askotatik eta era askotara jaso liteke aztergai diren gaien formakuntza, autodidakta moduan, unibertsitateetik kanpoko erakunde eta elkarten bidez eta baita unibertsitate barneko ikastaro osagarri zein Graduondokoen bidez ere. Hala ere, aipagarria da askok Graduaren barneko formakuntzaren beharra adierazi dutela.

4.3. EAEko Hezkuntza Fakultateetan genero eta sexualitatearen inguruko formakuntzaren eskaintza

Hezkuntza Fakultateetan genero eta sexualitatearekiko formakuntza ematen den ala ez aztertzeko eta ematen den formakuntza zein den jakiteko, alde batetik Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko profesionalen iritzi eta esperientziak jakin nahi izan dira. Eta, bestetik, Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasle eta ikasle-ohienak.

4.3.1. Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko profesionalen iritzia

Haur Hezkuntzako Graduetako ikasleek jasotzen duten formakuntza eskaintzaren egoera aztertu nahi izan da. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan Haur Hezkuntzako titulazioa eskaintzen duten bi unibertsitateko (EHU eta MU) profesioletara jo da (irakasle, koordinatzaile edota sail bateko zuzendariarengana).

Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Graduako koordinazioko kideak dioenez, “Huhezín modulu edo irakasgai ezberdinetan heltzen zaio gaiari: gizartearen analisisia egiten denean, eta baita umearen garapena ikusten denean ere” (MU-HHK). Hala ere, nahikoa izango ez litzatekeela dio, “hau hobeto lantzeko ikerketa gehiago behar dugu unibertsitatean, lehenengo ezagutza sortu, gero Gradura eta gizartera eraman ahal izateko”. MUko ikasleek “gehiago jakiteko gogoia” adierazten dutela dio, “baina batez ere ezagutza gehiena dutenek ikusten dute beharra: talde feministetan militatzen dutenek adibidez. Aldiz, beharra gehiago egon daiteke maskulinitateak lantzeko, adibidez. Batez ere HHn gizon eredu gutxi ditugulako, eta hauen funtzioa gakoa izan daiteke” (MU-HHK).

Euskal Herriko Unibertsitateari dagokionez, Haur Hezkuntzako Graduaz kanpo eskaintzen diren formazioak aipatu dira. “Berdintasunerako Zuzendaritzak urtero bi deialdi ateratzen ditu EHUko ikasle, irakasle eta AZPkoei zuzenduta. Formazio ikastaro horiek genero ikuspegia lantzen dute ikuspegi desberdinetatik begiratuta: hezkidetzak, berdintasuna, maskulinitateak, hizkuntza inklusiboa, sexu-dibertsitatea, emakumeen aurkako indarkeria eta haurren kontrako abusua” (EHU-BZ), “baina, ikastaroak ez doaz horrenbeste generoaren eta sexualitatearen gaineko formazioa lantzerak, baizik eta emakumeak prestatzerak ardurak lantzeko. Hau da, ahalduz ikuspegia dute gehiago” (E-Le1). Sexualitateak unibertsitatean, eta zehazki ikastaro horietan duen presentziari buruz galdetzean, batek dio “sexualitatearen inguruan formakuntza espezifikorik ez dagoela esango nuke. Gaur egun Haurren Aurkako Sexu Abusuen ikastaroa dago (online eta dohain) ikasleen eskura, baina ez litzateke sexualitatearen inguruko ikastaroa izango” (EHU-BB-L). Ikastaro horiek burutu dituztenek, “amaitutakoan, balorazio kualitatiboa egiten diote irakasleari eta asebetetze maila altua da: hamarretik 8,8/9” (EHU-BZ). “Beste programa batzuk ere martxan daude berdintasunaren arloan” (EHU-BZ), “*Indartu* (emakumezko ikasleei zuzendurikoa) eta *Eraldatzen* (gizonezko ikasleei zuzendurikoa), eta emakumezkoak ahalduz lantzeko eta gizonezkoek haien pribilegioak ezagutzeko balio dute, besteak beste. Oso ezezagunak dira ikasleen artean” (E-Ga).

EHUko Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra ere aipatu dute, eta Masterreko zuzendariak dioenez, “generoa jorratzen da, noski, lantzen ditugun gai guztien erdigunean dagoen gaia da eta. Sexualitatea, irakasgai batzuetan bai eta besteetan ez” (EHU-MZ). Masterrean formatzen direnen artean Hezkuntza Fakultateetako ikasleen

presentziari buruz galdetzean, zehazki Haur Hezkuntzako ikasleen presentzia aipatzen du, eta hurrengo dio: “aurten ikasle bakarria dagoela esango nuke eta azken urteetan oso gutxi izan direla, urte askotan % 0 eta beste batzuetan % 5” (EHU-MZ).

EHUko Hezkuntza Fakultateen barneko formakuntza aztertuz, modulu lanetan eta Practicum lanetan genero eta sexualitatearen presentzia aipatu da: “modulu lan askotan landu beharreko arazoak edo gaiak genero ikuspegiarekin zerikusia du” (EHU-BB-L) eta, “Practicum lean, nolabait eskatzen zaie ikasleei horren inguruko behaketa bat egiteko. Behaketa horretan faktore sozial ezberdinei begiratu behar zaie, eta bat generoa da. Orduan, badago presente lekutxo batzuetan” (E-Ga). Horrez gain, Leioan Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza eta Gizarte Hezkuntzako graduetan “35 irakasgaik eskaintzen dute genero ikuspegia (20 LHn eta 9 HHn, orain dela 2-3 urte jasotako datuen arabera), eta lanketa teorikoa, praktikoa edo teoriko-praktikoa egiten dute. Haur Hezkuntzan badago irakasgai bat genero ikuspegia izenburuan bertan duena (Hezkuntzen Elkarrekintza. Ikus-entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik)” (EHU-BB-L). Gainera, “GrAL askok ere genero ikuspegia txertatuta dute, izan ere bikaintasunarekin kalifikatutako %20k - %15k genero ikuspegia zuten txertaturik 2013 eta 2017 urteen bitartean” (EHU-BB-L). “Generoa lantzen duten GrALak gero eta gehiago saritzen ditu unibertsitateak instituzionalki, hau da, gehiago ari dira sustatzen eta bultzatzen genero ikasketak egitea ikerketa munduan, eta ezinbestekoa da, bai doktorego-tesietan, bai GrAL lanetan, eta bestelakoetan ere” (E-Le1). EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak Francisca Aculodi, María Goyri eta Micaela Portilla Sariak antolatzen ditu, genero ikuspegia duten Gradu Amaierako Lan, Master Amaierako Lan eta doktorego-tesiak sarituz urtez urte. Sexualitate ikuspegiari erreparatuz, Empar Pineda saria dago, LGTB ikuspegia gradu eta master amaierako lanetan barne hartzea saritzen duena.

Graduko ikasgaietan gai hauen inguruan ematen den formakuntzari dagokionez, genero eta sexualitatea “zeharka lantzen dira. Izan ere, horrela eskatzen du EHUK, genero ikuspegia zeharka lantzea Gradu guztietan, [...] baina zeharkakotasunak zailtasunak edo alde negatiboak ditu. Genero ikuspegia zeharka landu behar denez, irakasle bakoitzaren esku gelditzen da hau egitea edo ez. Irakaslea gaiarekiko sentikorra bada, esfortzua egingo du, ez bada, ez du egingo” (EHU-BB-L). Ildo beretik jarraitu dute ondorengoek, formakuntza unibertsitateetako irakasleen baitakoa dela esanez: “Orain kontzientzia gehiago hartzen ari gara Graduetan, genero eta sexualitate ikuspegia lantzen den ikasgairik ez dago, baina ikuspegi hau nik uste dut bai ari dela zeharkako era batean sartzen (bai unibertsitatean eta bai beste hezkuntza eredu profesionaletan). Nik uste dut batzuetan badagoela presente, irakasle gehienek badute kontzientzia hori eta beraien irakasgaietan ere kontuan hartzen dute” (E-Le2), “badaude irakasleak lantzen dutenak generoa, sexualitatea ez dakit, baina bolondreski egiten den zerbait da. Ez dago arautua, ez dago jasota inon” (E-Ga).

Bestalde, badago Graduan gai hauekiko formakuntza eskaintzen ez dela dioenik: “ez dut uste eskaintzen dugunik. Gero eta gehiago ikusten ari gara nola ari den transbersalizatzen gaia, baina nik esango nuke EHUko irakasleok orokorrean ez dugula formazio hori eskaintzen, neurri batean unibertsitateko irakasleen formakuntza faltagatik. Gai hauetan formatuta ez gaudenez, norberak egin behar du ibilbide pertsonala arlo horretan.” (E-Le1). “Nik uste dut, gaur-gaurkoz, Graduek ez dituztela genero eta sexualitateari buruzko edukiak ziurtatzen” (E-Do).

Laburbilduz, Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Graduaren kasuan irakasgai ezberdinetan heltzen zaio gaiari, baina ikasleek diote gehiago jakin nahiko luketela. EHUren kasuan, Graduez kanpoko formakuntza eskaintzari dagokionez, alde batetik Berdintasunerako Zuzendaritzak eskaintzen dituen online ikastaroak, Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra eta *Indartu* eta *Eraldatzen* programak aipatu dira. Graduen barnealdea aztertuz, Modulu Lanetan, Practicumetan, Leioako Fakultateko irakasgaietan eta Gradu Amaierako Lanetan dagoen presentzia aipatu da. Bestalde, Graduetako irakasgaien kasuetan, gai hauekiko formakuntza zeharkakoa eta irakasleen boluntariotzaren baitakoa dela diote. Gainera, Graduetan gai hauekiko formakuntza ziurtaturik ez dagoela aipatu dute.

4.3.2. Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasle eta ikasle-ohien iritzia

Atal honetan ikasleek adierazi dutenari erreparatuko zaio. 13tik 11k aitortu dute, haien esperientzian oinarrituta, unibertsitatean formakuntza edo prestakuntza hori ez dela eskaintzen, edota eskaintzen dena oso azalekoa dela: “4 urte hauetan zehar ez dugu jaso horrelako formakuntzarik” (Gasteiz-HH12). Horien artean etorkizunean gai hauekiko eduki beharreko jakintzarik eskuratu ez duela onartzen duen partaide bat dago, sexualitate gaiak ukitu ere ez dituztela egin dioen beste bat, eta formakuntza gehigarri bezala eskaintzen dela baina gela barruan aipatu ez dela dioen beste bat. Gainontzeko bi partaideen kasuan, unibertsitate barruan ematen den formakuntzaren berri jaso ahal izan dutela diote (batek e-mail tresna aipatu du), baina formakuntza hori ez omen da Graduako ikasgaien bitartez ematen, baizik eta Graduaz aparteko ikastaroen eskaintzaren bitartez. Horietako batek “Haurren Kontrako Sexu Abusua” online ikastaroan parte hartu zuen, eta besteak ordutegi desegokia dela eta ezin izan zuen parte hartu.

Gasteiz-HH multzoak EHUren eskutik jasotako formazio edo formazio-ezari buruzko iritzi berdina dute ia denek, Graduan gai hauekiko jasotako formakuntza urria izan dela diote eta nabarmen handitu beharko litzatekeela, ez dituztelako gai hauek apenas landu. Batzuek aipatu dute unibertsitatean interesa piztu eta haiek haien formakuntza bideratuz, gaia ikasgela batean lantzeko prest ikusten dutela. Graduan zehar jasotako formakuntzari

buruzko ondorengo adibideak eman dituzte: “soziologia irakasgaien (1. mailakoa) genero eta sexismoaren inguruko gaiak landu ziren, baina oso ginetik”; “nolabaiteko baliabideak edo informazio zientifikoa eskaini da, baina zaila izango litzateke gai hauek gela batean aurrera eramatea”. Graduaz gain “Haurren Kontrako Sexu Abusua” ikastaroan parte hartu zuenak dio “interesgarria” izan dela, “lana eskatzen duela baina, behintzat, oinarri-oinarrizko formakuntza jaso” duela. Gainera, “irakasleak oso adituak eta lagungarriak” zirela. Azken finean, denak ados daude dagoen eskaintza handitzeko beharrarekin. Adierazgarria da, haien burua formatuta ikusten duten bakarrak Graduaz kanpo jasotako formakuntzari esker jakintzak eskuratu dituztenak izan direla.

EHUk eskaintzen duen formakuntza aztertuz, ikasle batek aipaturiko ikastaroaz gain eta aurretik aipatu bezala, Berdintasun Zuzendaritzaren eskutik gai hauekin zerikusia duten hainbat online ikastaro daude doan (7 zehazki). Horiez gain, Ikasketa Feministak eta Generokoak deituriko Masterra ere badago. Ikasleei formakuntza horien berri duten ala ez galdetzerakoan, erdiak baino gehiagok erantzun dute ez zituztela ezagutzen (13tik 8k). Gainontzekoek, “e-mail” bidez bidalitako mezuengatik eta Master edo ikastaro horietan parte-hartu duen jendea ezagutzen dutelako eduki dute horien berri. Baina, batek aitortu du formakuntza horien berri edukita ere, “unibertsitatean egonda ezinezkoa zaiola biak batera aurrera eramatea”.

Laburbilduz, ikasleen %80k baino gehiagok aitortu du haien esperientzian oinarrituta, unibertsitatean genero eta sexualitateari buruzko formakuntza edo prestakuntza ez dela eskaintzen, edota eskaintzen dena oso azalekoa dela, eta nabarmen handitu beharko litzatekeela. Bestalde, Berdintasun Zuzendaritzak eskaintzen dituen online ikastaroei eta Ikasketa Feministak eta Generokoak deituriko Masterrari buruz galdetzerakoan, erdiak baino gehiagok erantzun du ez zituztela ezagutzen.

4.3.3. EHUko eta MUko Haur Hezkuntzako ikasketa-planen behaketa

Genero edo sexualitatearen lanketa Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Graduetako zein irakasgaietan ematen den jakiteko asmoz, aipaturiko unibertsitateen webgune ofizialetan ikusgarri dauden Haur Hezkuntzako ikasgaien irakaskuntza-giden behaketa burutu da. Informazio horren arabera, ondorengo ikasgaietan ematen da lanketa hura (esan liteke gainontzekoetan ez dela lantzen edo behintzat irakaskuntza-gidetan ez dela aipamenik egiten):

- Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduan (EHU):

- 1. mailako 1. lauhileko adarraren oinarrikoa den “Hezkuntzaren Soziologia” ikasgaiaren genero desberdintasunak lantzen dira.
- 1. mailako 1. lauhileko adarraren oinarrikoa den “Hezkuntzaren Teoria eta Historia” ikasgaiaren sexualitatea lantzen da.
- 2. mailako nahitaezkoa den “Practicum I”-ean generoa da dibertsitate behaketaren helburuetako bat.
- 4. mailako hautazkoa den “Baliabideen Tailerra I”-ean genero berdintasuna lantzen da.

(Euskal Herriko unibertsitatea, d.g.)

- Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduan (EHU):

- 1. mailako 1. lauhileko adarraren oinarrikoa den “Hezkuntzaren Soziologia” ikasgaiaren genero desberdintasunak lantzen dira.
- 1. mailako 1. lauhileko adarraren oinarrikoa den “Hezkuntzaren Teoria eta Historia” ikasgaiaren sexualitatea lantzen da.
- 2. mailako nahitaezkoa den “Practicum I”-ean generoa da dibertsitate behaketaren helburuetako bat.
- 4. mailako hautazkoa den “Biblioteka eta Irakurzaletasunaren Sustapena” ikasgaiaren genero berdintasuna lantzen da.
- 4. mailako hautazkoa den “Kultura Artekotasunaren Komunitate Dimentsioa” ikasgaiaren genero berdintasuna lantzen da.
- 4. mailako hautazkoa den “Proiektu Espezifikoen Kudeaketa” ikasgaiaren genero berdintasuna lantzen da.

(Euskal Herriko unibertsitatea, d.g.)

- Leioako (Bilboko) Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduan (EHU):

- 1. mailako 1. lauhileko adarraren oinarrikoa den “Hezkuntzaren Soziologia” ikasgaiaren genero desberdintasunak lantzen dira.
- 1. mailako 1. lauhileko adarraren oinarrikoa den “Hezkuntzaren Teoria eta Historia” ikasgaiaren sexualitatea lantzen da.

- 2. mailako nahitaezkoa den “Practicum I”-ean generoa da dibertsitate behaketaren helburuetako bat.
- 4. mailako 1. lauhileko hautazkoa den “Gizarte Zientzietako Baliabide Didaktikoak eta Curriculuma” ikasgaiari genero-berdintasuna lantzen da.
- 4. mailako 1. lauhileko hautazkoa den “Haur Hezkuntzako Lehen Ziklorako Estrategia eta Teknika Psikomotorrak” ikasgaiari genero-berdintasuna lantzen da.
- 4. mailako 1. lauhileko hautazkoa den “Hizkuntzen Elkarrekintza. Ikus-entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik” ikasgaiari genero ikuspegia ardatz hartzen da. Genero desberdintasuna eta generoaren oinarriko kontzeptuak lantzen dira, baita ikus-entzunezko ekoizpenetan agertzen diren sexu estereotipoak eta rola detektatzen dituzten genero ikuspegiari oinarritutako proposamen didaktikoak bildu ere.

(Euskal Herriko unibertsitatea, d.g.)

- Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Graduan:
 - 1. mailako adarraren oinarrikoa den “Gaurko gizartearen analisi kritikoa” ikasgaiari genero berdintasuna lantzen da.
 - 2. mailako adarraren oinarrikoa den “Eskola hedatua” ikasgaiari generoa lantzen da.
 - 2. mailako adarraren oinarrikoa den “Ikaskuntza eta garapena errazten hezitzailearen roletik” ikasgaiari genero-aniztasuna, genero-identitatea, genero-erakuntza, aniztasun afektibo-sexuala eta hezkuntza afektibo-sexuala lantzen dira, baita Queer teoria ere.
 - 2. mailako nahitaezkoa den “Gorputza, musika eta kultura” ikasgaiari genero berdintasuna lantzen da.

(Mondragon Unibertsitatea, d.g.)

4.4. Haur Hezkuntzako ikasleen genero eta sexualitateari buruzko formakuntza eskaintzaren bilakaera gaur egun arte

Elkarrizketa batean Gasteizko Hezkuntza Fakultateko irakasle batzuek idatzitako artikulua aipatu da (*La perspectiva de género en los títulos de Grado en la Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz, 2015*), artikulua honek Gasteizko Irakasleen Unibertsitate

Eskolako gradu berrietan generoko prestakuntzari ematen ari zaion tratamenduan oinarritutako hezkuntza-esperientzia berritzailea deskribatzen du.

“Modulu lanak sortu zirenean, magisteritza diplomatura izatetik Gradu izatera pasa zenean, zentroko hezkidetzak batzordean gai hauei buruz hitz egin zuten. Hasieran ahalegin bat egin zuten eta tanteatu zuten aukera bat gai hauekiko irakasgai bat egotearena, baina ezin izan zuten izan goitik ez zitelako utzi hori egiten. Orduan, beraien saiakera izan omen zen modulu lanen bitartez ikuspegi hori txertatzea. Nik bakarrik ezagutzen ditut K2a eta K5a, eta ez daukat sentsaziorik hor generoaren inguruko lanketarik egiten denik, nire irudipena irakasle bezala da hor ez dagoela ganorazko lanketarik” (E-Ga).

4.5. Haur Hezkuntzako ikasleen genero eta sexualitateari buruzko formakuntza eskaintza etorkizunean

Atal honetan, ikerketan parte hartu dutenen iritziz Hezkuntza Fakultateetako Graduetako genero eta sexualitate gaien formakuntza eskaintzaren eboluzioa etorkizunean zein izan beharko litzatekeen azalduko da.

Ikasleen %100k eskaintza zabalagoa izan beharko litzatekeela esan du, adibidez:

“Handitu egin beharko litzateke eta aurten pasatako graduak ebaluazio batean komentatu genuen” (Gasteiz-HH1). “Zabalagoa izan beharko litzatekeela pentsatzen dut, baita eskuragarriagoa ere, eskolaz kanpoko ordutegian egiten diren ekintzetan jendearen parte hartzea askoz ere murriztagoa dela uste dudalako” (Gasteiz-HH2). “Nire ustez, zabalagoa izan beharko litzateke. Suposatzen dut ikastaroak edota hitzaldiak egongo direla baina, ikasgai moduan sartzeko edo ikasgai baten parte bezala sartzeko komenigarria litzateke. Horrez gain, guztion intereseko gaiak direlakoan nago gaur egun, pil-pilean dauden gaiak baitira” (Gasteiz-HH6). “Zabalagoa izan beharko luke, alderdi batzuetan gehiago sakontzen da beste batzuk alboratuz. (HPB, ikastetxearen antolakuntza, hezkuntzaren antolaketa administratiboa, baliabideak, hezkuntza errealitate ezberdinak, genero ikuspegia...) Eskakerei edo iradokizunak egin ditut asebetetze inkestetan. Ikastaroen bidez edo graduak izan daitezke, halere irakasleriaren "filosofia" jakin bat sustatu beharko liteke; gure lana ondo egiteko nahia eta hala egiteko baliabideak bilatzeko grina eta interesa” (Gasteiz-HH11). “Orokorrean zabalagoa izan beharko luke oraindik badagoelako jendea ez dakienak ezer gai hauei buruz” (Gasteiz-HH5). “Gaiak landu ditugu baina ez ditugu praktikan jarri eta gainera gai asko bi bider landu dira beste asko landu gabe geratu direlarik” (Gasteiz-HH9).

Etorkizunean formakuntza eskaintza zabalagoa izan beharko litzatekeela adierazteaz gain, bi ikaslek Graduaren asebetetze inkestean bidez eskaria egin dutela mahai gaineratu dute. Honez gain, adierazgarria da aitortu dela eskaintza hura Graduak ikasgaien bidez planteatu beharko litzatekeela, edota ikasgaien ordutegiarekiko bateragarria izan beharko litzatekeela, eskuragarria izan dadin.

Galdetegietako gainontzeko partaideek ere, irakasleek, genero eta sexualitatearekiko formakuntza hobetzeko alderdi ugari daudela aitortu dute.

“Gure gizartea ez da estatikoa, dinamikoa eta aldakorra baizik. Beraz, derrigorrez aurrera jarraitu behar da gure geroa osatuko duten pertsonak hobeto prestatzen, gai honetan bereziki. Hobe beharrez eta halabeharrez egin behar da hau” (EHU-BZ).

“Graduan zehar une ezberdinetan ikusten da, baina jarraikortasuna falta zaio oraindik. Bestalde, gai honetan hobeto kokatzeko, irakasleak berak norbere genero eta sexualitateaz kontzientzia hartzea gakoa da, eta bide hori oraindik ondo esploratzeko dago Gradu mailan” (MU-HHK).

“Banaka egiten diren esfortzuak bateratzea oso onuragarria litzateke, baina egunerokotasunean ez da erraza. Lan handia dago egiteke hezkuntzako etapa guztietan, eta goi mailako hezkuntzan ere bai: gure sailetan gaian adituak diren pertsonak kontratatzea, EHUKo irakasleentzako gaian kalitatezko prestakuntza izatea, EHUn diru gehiago izatea gaiari buruzko ikastaroak, jardunaldiak eta ekitaldiak antolatzeko, graduetan gaia modu zeharkakoan txertatzea...” (EHU-BB-L).

Elkarrizketetatik jasotako informazioa arakaturik, joera nagusia ondorengoa litzateke: denek diote egokiena litzatekeela formakuntza bat egotea, sistematikoa, eta urtero aurrera ateratzen dena. Diotenez, hainbat aukera egon litezke formakuntza eskaintza antolatzeko, eta horietako bat unibertsitateko irakasgaien artean genero- eta sexualitate-hezkuntza transbertsal bat antolatzeko da, diziplinarteko gaiak diren horretan. Hainbat zailtasun eduki ditzake bide honek, izan ere, unibertsitateko irakasleek katedra-askatasuna dute, eta honen ondorioz, irakasgaiak haien erara moldatzeko askatasuna dute. Hala ere, ikasketa-planak moldatuz eta gaitegia gehiago zehaztuz bide hau aurrera ateratzea lor litekeela diote. Beste aukera bat irakasgai propio bat txeratzeko litzateke, eta honela, formakuntza ziurtatuta egongo litzatekeela aitortu dute, hori izango litzatekeelako irakasgaiaren muina. Aukera honek alde txar bat eduki dezake, bada, beharbada ikasgai honetan emango litzatekeena kontraesanekin jarriko litzateke gainontzeko ikasgaietan ikasten denarekin. Gainera, beste hainbat zailtasun aurki ditzakegu bide honi jarraiki Graduak aldatzeko kalitate sistemagatik, tramite handiak eta zenbait ebaluazio proba suposatzen baititu. Irakaskuntza transbertsalaren eta irakasgai zehatzaren bidez gain, Graduondokoak egotea ondo legokeela aipatu da, “baina horrekin lotuta, Hezkuntza Graduetako ikasleen kultura aldatu behar da” (E-Le2). Normalean irakasle-ikasketetako ikasleek Gradua amaitu eta lanera jotzen dutela aitortu da, baina “kultura hori aldatuta eta ikerketa bideak begiratuta, etengabeko formakuntza horrekin genero ikuspegiarekin eta sexualarekin lotutako formakuntzak bideratuko lirateke” (E-Le2). Azkenik, seminario edo mintegi gehiagoren antolaketa proposatu dute, baita irakurketa dialogikoak ere. Azken proposamen hauen ildotik jarraiki, elkarrizketetako bi kidek zera iruzkindu dute: irakasle ezberdinak ez ezik, ikasle desberdinak ere behar dira, aktiboak direnak, jakin-mina dutenak. Hura bermatzeko,

irakasle-ikasketetan sartzeko azterketa bat planteatzen omen ari da, eta beharrezkotzat jo dute hainbat elkarrizketatuk.

5. ONDORIOAK

Ikerketan zehar jasotako emaitzek zenbait ondorio interesgarri ekarri dituzte Euskal Herriko Unibertsitateko eta Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Graduetako ikasleek genero eta sexualitatearen inguruan jasotzen duten formakuntzari buruz. Jarraian, emaitzak arakatu eta horiei esker ateratako ondorioak mahai gaineratuko dira.

Ikerketako kontzeptu nagusiak diren “generoa” eta “sexualitatea” definituz eman zitzaion hasiera Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Hezkuntza Ataleko ikasleei helarazitako galdetegiari. Generoaren definizioei erreparatuz, besteak beste, gizarteak pertsonon sexuaren gainean eraikitako etiketa soziala, norberaren identitatea, maskulino edo femeninoa izatea, eta abar eman dute aditzera. Sexualitateari erreparatuz, aldiz, sexu biologikoa, orientazio sexuala, jarrera edo desioa, etab. Ondorioz, marko teorikoaren atalean zehaztutako definizioekin eta azken teoriariek diotenarekin alderatuz, ikasle taldearen gehiengoak emaniko definizioak guztiz osatu gabeak direla esan liteke. Horiek honela, ondoriozta liteke Gasteizko Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Graduetako ikasle askori oinarrizko formakuntza falta zaiela gai hauetan, terminoen definizio sakon edo behintzat zuzenik ez baitute ematen jakin izan, ikasle batzuk 4. mailakoak edo jada Gradua amaiturik dutenak badira ere.

Oro har, gai hauek bizitzako alderdi guztietan landu beharko liratekeen gaiak direla adierazi dute, eta denak ados daude etxean eta eskolan landu behar diren gaiak direla esatean. Aldiz, gai hauek aisialdian edota beste eremu batzuetan lantzearekin %10,5 ez dago ados. Adierazgarria da batzuek oraindik ere soilik etxearen eta eskolaren erantzukizunari erreparatzen diotela, bi eremu horietatik kanpo dauden gune zein jendartearen garrantzia eta ardura alboratuz. Kanpo uzten dituzte lagunartea eta sare-sozialak, besteak beste. Hala ere, gehiengoaren kasuan bizitzako alderdi guztietan ematen den formakuntzari eman zaio garrantzia, bai hezkuntza formalari, bai zeharkakoa izan litekeenari (kalean edo pantailetan jaso dezaketinari). Dena dela, ikerketaren oinarria hezkuntza eremuan kokatuta dagoenez, ondorio gisa har daiteke denek aitortzen dutela eskolak gai hauekiko formakuntzan baduela erantzukizuna.

Genero eta sexualitatearen, eta horiek barne hartzen dituzten azpi-kontzeptu ororen (hala nola, genero-identitatea, genero-adierazpena, etab.) lanketa jaiotzetikoa izan beharko litzatekeela dio ia %70k, eta batzuen ustez haurra jaiotze baino lehenagokoa ere bai. Gainontzeko %30a ikasle taldeko 6k osatzen dute, hauek beste adin tarte bat adierazi dutelarik; 3k haurrak 3 urte dituenean, 2k haurrak 6 urte dituenean, eta pertsona baten iritzi

haurra bere gorputzaren propiozepzio argia izaten hasten denean. Honek zeresanik ematen du, soilik gai hauetan profesionalak edo adituak ez direnen multzoko parte-hartzaile batzuk (13tik 6, ia %50) izan direlako adin-tarte desberdina adierazi dutenak. Lantzeko uneari buruzko erantzunak bateraturik ez egoteak, kontzeptuekiko ezjakintasuna adierazi dezake, hots, formakuntza falta. Halere, denek baiezkoa eman diote Haur Hezkuntzako hurrekin gaiak lantzea posible den deritzon galderari. Are gehiago, batzuk beharrezko bezala deskribatu dute, marko teorikoan adierazitakoarekin bat eginez. Honek ikusgarri uzten du bai Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduetako kideek eta baita gai honen inguruko profesional eta adituek haurrak txiki-txikitatik genero- eta sexualitate-aniztasunean hezteari ematen dioten garrantzia.

Marko teorikoko beste aztergai baten arabera, Haur Hezkuntzako ikasgeletan genero eta sexualitate gaiekiko lanketa egiteko irakaslearen formakuntza eta jakintzak gakoak dira, eta datu horrekin bat egiten dute ikerketako emaitzek. Izan ere, irakasleen formakuntzaren beharra edo garrantzia aipatu du gehiengoak, 23tik 18k. Azken hauek adierazi dute Haur Hezkuntzako irakasleen formazioa gakoa dela gai horiek ikasgeletan egokitasunez lantzeko, bestela arriskutsua izan litekeelako, haurrak haien identitate eta nortasunaren eraikuntzaren hastapenetan baitaude Haur Hezkuntza garaian. Bestalde, irakasleen formakuntzari erreparatu ordez edo erreparatzeaz gain, haien jarrerari erreparatu dioten partaideak ere badaude, irakaslearen berezko edo izatezko jarrera inklusiboei garrantzia emanez. Hori ziurtatu ahal izateko, irakasle-ikasketetako Graduetarako sarbidearen moldaketa aldarrikatu da emaitza batzuetan, ikasle bakoitzaren ebaluazio kritikoago bat, Hezkuntza Ministerioak aurten planteatutako proposamen nagusi baten ildotik. Pilar Alegria buru duen ministerioak Lehen Hezkuntzako eta Haur Hezkuntzako Graduetara sartzeko berariazko proba bat ezartzea proposatu zuen, orain arteko batez besteko notaz haratago doan proba bat, jada Kataluniako eta Balearretako unibertsitateek dutenaren antzekoa (Zafra, 2022). Ondorioz, Hezkuntza Fakultateetara sartuko liratekeen ikasleen jarrera kritikoa eta GrALeko ikerketaren muinak diren terminoekiko izatezko jakin-mina ziurtatuta geratuko litzatekeela suposatuko litzateke. Aipaturiko proba bereziaren bidez ikasleen prestutasuna ziurtatuta edukirik, ondoren Graduan zehar haien jakintza nahiak asebate beharko lirateke. Edota, bestalde, Graduaren amaierako proba bat planteagarria izango litzateke, zeinean irakaslegaiak Graduan zehar jasotako ikaskuntzan zehar barneratuta geratu diren kontzeptuak eta lan mundurako bidea egiteko beharrezkoak diren konpetentziak dituztela ziurtatuko litzatekeen.

Egun EHUren eskutik ematen den formakuntza aztertzeke, nahiko eskaintza zabala dagoela ematen du. Emaitzen arabera, Berdintasun Batzordeak online ikastaroak antolatzen ditu, Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterra dago, *Indartu* eta *Eraldatu* programak daude, irakasgaietan genero ikuspegiaren txertaketa ematen da, ea. Eztabaidagarria

litzateke azken hau, Graduko irakasgaien bidezko genero (eta sexualitate) formakuntzaren urritasuna aditzera ematen delako ikerketaren emaitzetan (4.3.2. atalean). Diotenez, “35 irakasgai eskaintzen dute genero ikuspegia Leioako Hezkuntza Fakultatean, 20 LHn eta 9 HHn. Eta genero hitza izenburuan duen “Hizkuntzen elkarrekintza. Ikus-entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik” ikasgaia eskaintzen da” (EHU-BB-L).

Informazio hori kontrastatu ahal izateko unibertsitateen webgunetan ikusgarri dauden Haur Hezkuntzako ikasgaien irakaskuntza-giden azterketa egin da emaitzetan. Aztertutakoaren arabera, EHUKo hiru Hezkuntza Fakultateen kasuan, “Hezkuntzaren Soziologia”, “Hezkuntzaren Teoria eta Historia” eta “Practicum I” ikasgaietan bat egiten dute genero edo sexualitatearen lanketan. Fakultate horietako 4.mailako hautazko ikasgaiak, aldiz, desberdinak diren heinean, fakultate batzuetan lanketa sakonagoa eskaintzen da besteetan baino. Hau da, Donostian soilik 4. mailako ikasgai batek lantzen du generoa, Gasteizen 4. mailako 3 ikasgaietan ematen da lanketa, eta Leioan ere lanketa 3 ikasgaietan eskaintzeaz gain, ikasgai horietako batek zehazki generoa du ardatz, eta horren ondorioz, formakuntza sakonagoa eskaintzen da. Mondragon Unibertsitatearen kasuan, 4 ikasgai eskaintzen dute genero edo sexualitatearekiko lanketa, bat 1. mailakoa eta beste hiruak 2. mailakoak direlarik. Azpimarragarria da, Leioako fakultateko “Hizkuntzen Elkarrekintza. Ikus-entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik” ikasgai gertatzen den bezala, Mondragoneko “Ikaskuntza eta garapena errazten hezitzailearen roletik” ikasgai ere formakuntza sakona ematen dela, are gehiago, esan liteke sakonagoa ematen dela, generoa lantzeaz gain hezkuntza afektibo-sexuala eta queer teoriaren formakuntza ere ematen delako. Gainera, Mondragoneko ikasgaia adarraren oinarritzkoa da, hau da, ikasle guztiek dute aukera irakasgai horretan ematen dena ikusteko (Leioakoa, berriz, hautazkoa da). Aipagarria da ere, generoaren lanketa handiagoa dela sexualitatearena baino, sexualitatea soilik EHUKo 1. mailako “Hezkuntzaren Teoria eta Historia” ikasgai eta Mondragoneko 2. mailako “Ikaskuntza eta garapena errazten hezitzailearen roletik” ikasgai lantzen delarik.

Aipaturiko formakuntza eskaintza edukita ere, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasle eta ikasle-ohien emaitzen arabera, ez dute haien burua prest ikusten ikasgela batean gai hauen lanketa aurrera eramateko, ez, behintzat, Graduan zehar jasotako jakintzak eskuratu eta gero soilik. Izan ere, EHUK gai hauetarako eskaintzen duen formakuntza ia guztiz hautazkoa eta boluntarioa dela esan genezake. Hau da, unibertsitateko irakasleen baitan geratzen da haien irakasgaietan genero eta sexualitate ikuspegiak txertatzea ala ez (EHUK genero ikuspegia txertatzea eskatzen badu ere, irakasleen katedra-askatasunak eta formakuntza espezifikoki faltak zeharkako lanketa oztopatu dezakete), edota formakuntza eskaintzaren berri ikasleei ematea edo ez, adibidez. Unibertsitateko irakasleen boluntarismoaz gain, unibertsitateko ikasleen baitan ere geratzen

da haien formakuntza bidea bilatu eta osatzea, hautazkoak baitira ikastaro, Master eta programak. Hautazkoak eta Graduz kanpoko ikasketak direnez, eskaintza hauen ez-ezagutzaren ondorioa dela eta, edo Graduarekin uztartzeko zailtasunak direla eta, ikasketa hauek burutzen dituzten ikasleen artean gutxiengoa da Hezkuntza Fakultateetako ikasleena, emaitzetan aipatu denaren arabera.

Beraz, esan liteke formakuntza eskaintza urria edo nahikoa izan baliteke ere, hura Graduetako ikasleengana iristen ez den bitartean, edota beste era batera esanda, ikasleak formakuntza haiengana iristen ez diren bitartean, ikasleek ez dituztela jakintza hauek eskuratuko. Honen ondorioz, ikasleek gai horiekiko interesa eta atxikimendua baldin badute, eta ikasteko grinaz gain haien formakuntza bideari Graduaz aparteko denbora eskaintzeko prest baldin badaude, haien formakuntza bidea hasiko dute, unibertsitateak eskaintzen dituen formakuntzen bidez edo beste bide batzuen bidez. Bestalde, ikasleek ez badute gai hauetan sakontzeko motibazio edo grinarik (berezkoa edota Graduan zehar sorturikoa), ezjakintasun kate bat sortzeko arriskua egon liteke. Hau da, etorkizuneko irakasleak formatzen ez badira, Haur Hezkuntzako ikasgeletan ez dituzte gaiak landuko (edo era desegokian landuko dute), eta hortaz, haurrek ez dute jakintza horiek eskuratzeko aukerarik izango.

Gaur-gaurkoz, irakasle eta ikasleen interesetatik abiatzen diren formakuntza gaiez ari garela ondoriozta daiteke, Haur Hezkuntzako irakaslegaiari oso modu puntualean, isolatuan edo azalekoan eskaintzen zaigulako derrigorrezkoa den formakuntza gai hauen inguruan. Honek ondorengo planteamendura eramaten gaitu: Graduaren barruko formakuntza eskaintzara. Emaitzetan, batzuek Graduetako Modulu lanen edota Practicum lanen bidez aztergaien lanketa ematen dela, edo GrALetan hori lantzeko aukera ematen dela aipatzen bada ere (eta ondorioen atalean aipaturiko irakasgai gutxi batzuek gai hauekiko lanketa eskaintzen dutela azertu badugu ere), beste askok nahikoa ez dela esan eta formakuntza zabalago baten eskaera egin dute. Marko teorikoan aipaturiko gai hauekiko hezkuntzaren garrantzia dela eta, irakasle-ikasketetako ikasle ororengana iritsiko den eta ziurtatua egongo den formakuntza zabal eta duina eskatzen dute, sistematikoa eta arautua izango den zerbait, Haur Hezkuntzara bideraturik egongo dena Haur Hezkuntzako Graduaren kasuan. Hori ziurtatu ahal izateko aukera bat Graduko ikasketa-planaren moldaketa edo eraldaketa litzateke. Horretarako, indarrean dagoen 822/2021 Dekretuaren 33. artikuluan zehazten den bezala, zenbait pauso jarraitu behar dira:

33. artikulua. Instituzionalki egiaztatutako unibertsitate-zentroetan emandako ikasketa-planak funtsean aldatzeko prozedura.

1. Instituzionalki egiaztatutako unibertsitate-zentroek, beren unibertsitatearen bitartez, egiaztatutako ikasketa-planen funtsezko aldaketak proposatu ahal izango dituzte, eta

Unibertsitate Kontseiluak onar ditzan eskatuko dira aldaketa horiek. Proposamen horrekin batera, zentroaren edo unibertsitatearen Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemak egindako funtsezko aldaketaren egokitzapen akademikoari eta araudiari buruzko txosten arrazoitu bat aurkeztuko da.

2. Kalitate-agentziek erabaki dezaketenari kalterik egin gabe, 32.2 artikuluan aurreikusitako alderdiak, gutxienez, nabarmen aldatuko dira.

3. Funtsezko aldaketarako prozedura 26. artikuluan jasotako ikasketa-planen memoriak egiaztatzeko prozesurako ezarritakoaren arabera izapidetuko da. Kalitate-agentziak, txostena egiteko unean, kontuan hartu beharko du, batez ere, funtsezko aldaketa proposatu duen zentroaren edo unibertsitatearen kalitatea bermatzeko barne-sistemak egindako txostena.

4. Funtsezko aldaketa behin betiko onartutakoan, aldaketak aldatutako memorian xede horretarako aurreikusitako ezarpen-egutegiaren arabera izango du eragina.

5. Onartutako aldaketek eragiten badiete ikasketa-planaren memoria egiaztatzeko ebazpenean jasotako tituluaren izenaren terminoei, edo, modu esanguratsuan, irakaskuntzen egiturari, errege-dekretu honen II. eranskinean ezarritako memoriaren dagokion paragrafoan adierazitako terminoetan, ikasketa-plana berriro argitaratuko da, 27. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

6. Nolanahi ere, kalitate-agentziek irizpide orokorrak ezarriko dituzte modu bateratuan zehazteko unibertsitate-titulu ofizial baten ikasketa-planaren memorian zer aldaketa mota sar daitezkeen prozedura mota horretan. (822/2021 Dekretua: 26).

Horiek honela, Graduko ikasketa-planetan moldaketak egiteak zenbait zailtasun eta oztopo ditu, eta horren ondorioz, zailtasun administratibo horiei aurre egin beharko litzaieke.

Gaur egun arte eman diren pausoak aztertzeke, emaitzetan aipaturiko *La perspectiva de género en los títulos de Grado en la Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz* artikuluan aipatzen diren hastapenak aipagarriak dira. Diotenez, orain arte genero eta sexualitatearen lanketa egiteko egon diren saiakerak eta lorpenak askotarikoak izan dira. “1991-92 ikasturtean, EHUren I. Hezkidetzako Graduondoko Berezko Titulua diseinatu eta antolatu zen (Maria Jose Urruzola Hezkidetzako adituaren aholkularitzarekin), eta Espainiako estatu osoko feminismoan eta generoan adituak diren profesionalek eman zuten. [...] Ekimen horren ondoren, hainbat ekimen egin dira: hautazko irakasgaiak, prestakuntza-ikastaroak, sentsibilizazio-kanpainak...” (Vizcarra, Nuño, Lasarte, Aristizabal, eta Alvarez-Uria, 2015: 303). Ondoren, 2008ko Graduen birdiseinuaren ondorioz, ikerketa-prozesu bat hasi zuten 2009an, eta ikasleek zein irakasleek adierazitako beharrei forma instituzionala emateko beharra ikusi zuten bertan. Adierazitako beharrak ondorengoak izan ziren: Hezkidetzako batzordea sortzea edo berraktibatzea, espazio didaktiko bat bilatzea maila berrietan genero-ikuspegia txertatzeko, eta, azkenik, sentsibilizazioa eta prestakuntza hobetzea genero-ikuspegitik hautematen ez diren estereotipoak identifikatzeko.

Aipaturiko bigarren beharraren ildotik jarraiki (espazio didaktiko bat bilatzea maila berrietan genero-ikuspegia txertatzeko), “eskolen arteko Batzordearen eta beste sailen arteko akordioak lortzeko zailtasunak direla-eta, beste gai batzuei lehentasuna eman baitzieten, Graduako titulazioen azken proposamenak ez zuen jaso diseinatutako irakasgaietako bakar batean ere etorkizuneko irakasleen genero-berdintasunari buruzko prestakuntza” (Vizcarra, Nuño, Lasarte, Aristizabal, eta Alvarez-Uria, 2015: 304). Egoera horren aurrean, aipaturiko artikulua araberan, Hezkidetzaren Batzordean planteatu zen eduki horiek ikasgai desberdinetatik jorratzea, titulazioan zehar zabal zitekeen zeharkako irakasgai bat diseinatuz, ikasketa planetan agertuko ez litzatekeena. Irakasgai horren lan-ardatza markatuko lukeen konpetentziak sexismoa identifikatzea eskatzen zuen, genero-berdintasunean oinarriturik. Proposamen hura praktikara eramatea izan zen erronka, eta Graduako titulu berrien planteamendu modularrean txertatu nahi izan zuten, “zeinetan seihileko bakoitzean ikasleei irakasgai guztien artean gauzatu beharreko diziplinarteko lan bat planteatuko zitzaien” (Vizcarra, Nuño, Lasarte, Aristizabal, eta Alvarez-Uria, 2015: 305). Modulu-lan horietan oinarritzeko genero-hezkuntza eskaini litekeela esan badaiteke ere, sexualitate-hezkuntzari buruz ez da aipamenik egiten. Are gehiago, eskaintzen den genero-hezkuntzari dagokionez, emaitzetan argi agertu den bezala 4.4 atalean, “K2a eta K5a ezagutzen ditut, eta ez daukat sentsazio hor generoaren inguruko lanketarik egiten denik, nire irudipena irakasle bezala da hor ez dagoela ganorazko lanketarik” (E-Ga)

Artikulu hartan eginiko ikerketan antzemandako hirugarren beharrarekin jarraiki (sentsibilizazioa eta prestakuntza hobetzea genero-ikuspegitik hautematen ez diren estereotipoak identifikatzeko), 2009tik 2014ra bitartean Hezkidetzaren Batzordeak antolaturiko irakaskuntza-jardueraren osagarriak diren hainbat jardura eta topaketa aurkezten dira. Horien artean mintegiak, lantegiak, mahai-inguruak, jardunaldiak, eztabaida-saioak, eta abar dira ageri. Zoritxarrez, “Hezkuntza eta Kirol Fakultate bihurtu zenetik aurrera gutxika galtzen joan dira hitzaldi eta ikastaro hauek, 2018-2019 artean izan ziren azkenak, gutxi gora-behera” (A. Álvarez-Uria, komunikazio elektronikoa, 2022ko apirilaren 24an).

Nafarroako ikastetxe eta hezkuntza komunitateetarako hezkidetzaren planak barne hartzen duen Skolae programa ere aipatu da elkarrizketetan, irakasle izango garenok gai hauekiko eskuragarri dugun formakuntzari buruz galdetzerakoan. Skolaeren helburua eskola-komunitate bakoitzari laguntzea da, haurra jaiotzen denetik eta hezkuntza-etapa guztietan zehar ikaskuntza-prozesua errazte aldera, bakoitzak askatasunean oinarrituriko erabakiak hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzeko, haien genero edo sexualitate errealitatea edozein dela ere, besteak beste. Programa honek ikasgeletan hezkidetzaren ibilbidea ezartzeko ekintza-plana ezartzen du: prestakuntza-plana, eskola-sistemaren etapa guztietan garatzeko behar diren orientabide didaktikoak eta materialak, ikastetxeek eta Hezkuntza Sailak hori bermatzeko hartu behar dituzten

konpromisoak, eta, azkenik, programaren hastapenak eta orokortze progresiboaren bidezko hedapena (Arconada, García, Moreno, eta Ruiz, 2019: 74). Skolae ezartzeak hezkidetzaren abangoardian jarri zuen Nafarroa, hainbat sari irabazi dituelarik, besteak beste: nesken eta emakumeen hezkuntzako UNESCOren saria; Jaizkibel Konpainiaren Hondarribia, berdintasunaren hiriaren 5.saria; Lesbiana, Gay, Trans eta Bisexualen Estatuko Federazioaren Luma saria; eta abar (Yoldi, 2020).

Horrenbestez, emaitza eta ondorio guztiak bateraturik, argi ikus liteke zenbait profesionalek biziki egiten dutela lan maila guztietako ikasleengan genero eta sexualitatearen formakuntza zabaldu ahal izateko, eta irakasle zein ikasleei material eta laguntzak emateko. Gainera, ikasleek gai hauei ematen dieten garrantzia eta ikasteko grina ere argi ikusi da ikerketaren emaitzetan, are gehiago, Gasteizko Hezkuntza Graduetako ikasle batzuek formakuntza eskaintza zabaltzeko eskaera egina dute jada haien fakultatean. Orain arte egindako borroka eta lorpenak zilegi izateak ez du inola ere esan nahi gaur egungo egoera hobetzeko beharrik ez dagoenik. Arestian aipaturiko hobekuntza posibleak anitzak dira, besteak beste, Gradua hasi baino lehenagoko zein amaitu ondorengo azterketak, aztergaiak era transbertsalean lantzea Graduan zehar dauden ikasgaietan, Graduaren barneko ikasgai zehatz berri bat antolatzea, egun martxan dagoen Modulu Lanak birplanteatzea, etab. Hobekuntza bideek zailtasun argiak dituzte, eta bai orain arte eta bai gaur egun instituzioen aldetik jasotzen diren baliabide urriak edota laguntzarik ezak mahai gainean jartzen du gai hauei ematen zaien garrantzia (edo garrantzi-eza). Hala ere, instituzio mailan genero eta sexualitatearen lanketaren garrantziaren kontzientziazio maila baxua izan baliteke ere, bai unibertsitateetako profesionalek eta bai irakaslegaiak oztopo instituzionalei aurre egiteko behar eta nahi argia dutela esan liteke. Zeren eta, jakin badakigu, Haur Hezkuntzako ikasgeletan gai horiekiko lanketa duin eta egoki bat emateko era bakarra ikasgela horietako irakasle izango direnen formakuntza egoki bat dela.

6. MUGAK ETA ETORKIZUNERAKO IRADOKIZUNAK

Gradu Amaierako Lan honetako mugei erreparatuz, bi muga argi identifika daitezke: denbora eta espazioa. Batetik, lan hau burutzeko soilik ikasturte bateko denbora-tartea eduki dudalako esku-artean, eta bestetik, orri kopurua limitatua izanik eta ni neu Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egonik, aukera posible asko bertan behera utzi behar izan ditudalako. Muga horiek eduki ez banitu, buruturiko ikerketa lanari sakontasun handiagoa emateko aukera edukiko nuke.

Hasteko, galdetegi eta elkarrizketak online egin beharrean, informazioa bertatik-bertara biltzeak onura asko dakartzala deritzot. Batetik, galdetegiak pasatzeko unean erantzun-tasa oso baxua izan delako (Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultate osoko ikasleei bidalirik, 13 erantzun jaso dira), eta horrek ikerketa asko mugatzen duenez,

etorkizunean ikasgeletara eta bulegoetara bertaratzeak erantzun-tasa altuagoa lortzeko aukera emango lukeela uste dut. Eta, bestalde, elkarrizketen kasuan, kontaktu zuzenak komunikazioa erraztuko lukeela deritzot, akats informatikoak saihestuz.

Jarraian, etorkizunean ikerketari jarraipena egingo banio, partaide gehiago eskuratzen saiatuko nintzateke. Izan ere, informazio gehiago lortzeko aukera edukiko nuke, emaitz eta ondorio aberatsagoak eta egungo egoeraren ikuspegi zabalago bat lortuz. Besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza fakultateetako dekanotzekin eta irakasle-ikasketen parte diren ikasle gehiagorekin (hiru fakultate ezberdinetakoak), Mondragon Unibertsitateko ikas-irakasleekin eta koordinatzaile gehiagorekin, Haur Hezkuntzako eskoletako tutore zein zuzendariekin, eta abarrekin jarriko nintzateke kontaktuan. Honez gain, ikerketa EAEra mugatu beharrean Euskal Herri osoko probintzietara zabaltzea posible izango litzateke, eta beraz, probintzia horietako unibertsitateekin ere kontaktuan jarriko nintzateke.

Azkenik, ikerketa lan hau osatzeko asmoz, etorkizunean Haur Hezkuntzako irakaslegaiari zuzenduriko formakuntza-plan bat proposatzea eta hura aurrera eramatea gustatuko litzaidakeela aitortu nahi dut, emaitzetan ageri den formakuntza faltaren hutsunea bete eta oinarrizko jakintzen beharrak asetzeko baliagarria izan litekelakoan. Zeren, Gradu Amaierako Lan honekin lortu nahi izan dudan helburu nagusietako bat egun irakaslegaiari genero eta sexualitate kontzeptuen inguruan eskaintzen zaigun formakuntzaren diagnostia egitea bada ere, aztertutako errealitateari erantzun duin bat emango liokeen hezkuntza-planteamendu bat aurrera eramatea izango litzateke ondorengo pausu argia.

7. BIBLIOGRAFIA

- 237/2015 Dekretua. (2016ko urtarrilaren 15a, ostirala). Xedapen orokorrak. Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- 822/2021 Dekretua. (2021eko irailaren 29a). Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, por el que se establece la organización de las enseñanzas universitarias y del procedimiento de aseguramiento de su calidad. https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2021-15781
- Aguilera, R. P., Sánchez, A. C., Andino, E. E., Llerena, Á. G. eta Torres, R. E. (2022). Percepción sobre la sexualidad en los estudiantes universitarios. *Revista Eugenio Espejo*, 16(1), 59-70.
- Aizpurua, I. (2021). Genero aniztasuna haur hezkuntzan. Irakasleen formakuntza.
- Alonso-Martínez, L., Heras-Sevilla, D., Charilaou, L., Alcaraz, J. P. eta Fernández-Hawrylak, M. (2022). Diferentes actitudes hacia la sexualidad entre estudiantes de Enfermería de primero y cuarto curso. *Enfermería Global*, 21(1), 473-503.
- American Psychological Association. (2011). Respuestas a sus preguntas sobre las personas trans, la identidad de género y la expresión de género. *Washington DC, Estados Unidos: APA*.
- Arconada, M. A., García, M V., Moreno, M. A. eta Ruiz, C. (2019). *Plan de coeducación 2017-2021. Para los centros y comunidades educativas de Navarra*. Departamento de Educación. <https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/1325202/Plan+de+Coeducaci%C3%B3n+2017-2021+Web5.pdf/6a6ef96d-b12f-0873-cfa8-de7862183455>
- Borraz, M. (2019ko urtarrilak 12). Miquel Missé: “No hay nada biológico en ser trans, como no hay nada biológico en ser hombre o mujer”. *El Diario*. https://www.eldiario.es/sociedad/problema-discurso-hegemonico-diciendo-biologico-miquel-misse_128_1754713.html
- Butler, J. (2009). Performatividad, precariedad y políticas sexuales. *AIBR: Revista de Antropología Iberoamericana*, 4(3), 321-336.
- Cabral, M., eta Benzur, G. (2005). Cuando digo intersex: un diálogo introductorio a la intersexualidad. *Cadernos Pagu*, (24), 283-304.
- Colmenero, R. M. (2018). Rompiendo la brecha de la heteronormatividad. Identidad de género y nuevas tendencias sexuales en educación primaria. *Revista Internacional de apoyo a la inclusión, logopedia, sociedad y multiculturalidad*, 4(3), 165-173.
- Euskal Herriko Unibertsitatea. *Bilboko Hezkuntza Fakultateko Ikasketa plana*. 2022ko maiatzaren 21ean errekuperatuta hemendik: <https://www.ehu.eus/eu/haur-hezkuntzako-gradua-bizkaia/kreditu-eta-irakasgaiak>
- Euskal Herriko Unibertsitatea. *Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Ikasketa plana*. 2022ko maiatzaren 21ean errekuperatuta hemendik: <https://www.ehu.eus/eu/haur-hezkuntzako-gradua-araba/kreditu-eta-irakasgaiak>
- Euskal Herriko Unibertsitatea. *Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Ikasketa plana*. 2022ko maiatzaren 21ean errekuperatuta hemendik: <https://www.ehu.eus/eu/haur-hezkuntzako-gradua-gipuzkoa/kreditu-eta-irakasgaiak-ikasturteka>
- Eusko Jaurlaritzak (2019). *EAE-ko Hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetza-plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean 2019-2023*. Euskal Autonomia Erkidegoko

- Administrazioa. Hezkuntza Saila.
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/liburua/eae-ko-hezkuntza-sistamarako-ii-hezkidetza-plana-berdintasunaren-eta-tratu-onaren-bidean-2019-2023-ii-plan-de-coeducacion-para-el-sistema-educativo-vasco-en-el-camino-hacia-la-igualdad-y-el-buen-trato-2019-2023/>
- Fallas, M. A., Artavia, C. eta Gamboa, A. (2012). Educación sexual: Orientadores y orientadoras desde el modelo biográfico y profesional. *Revista Electrónica Educare*, 16, 53-71.
- Fausto-Sterling, A. (2006). *Cuerpos sexuados. La política de género y la construcción de la sexualidad*. Melusina.
- García de Eulate, G. (2021). *Irakasle feministak: gaur egungo egoeraren analisia eta erronka berriak*. (Gratu amaierako lana). Euskal Herriko Unibertsitatea, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Hemen eskuragarri: https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/53556/GrAL_Garc%c3%ada%20de%20Eulate.pdf?sequence=2&isAllowed=y
- González, C. B. (2019). Estructuras de sexo-género binarias y cisnormadas tensionadas por identidades y cuerpos no binarios: Comunidades educativas en reflexión y transformación. *Revista Punto Género*, 12, 101-125.
- Gorrotxategi, M. eta Alvarez-Uria, A. (2017). Genero desadostasuna Haur Hezkuntzan. irakasle on erronka berria. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko hezkuntza aldizkaria*, 29(1), 95-122.
- León, I., Martínez, J., Gamito, R. eta Vizcarra, M. T. (2020). Haur Hezkuntzan genero-ikuspuntutik egiten den lanketa. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 112, 41-61.
- Martos-Cueto, V. (2020). *Educación afectivo-sexual en Educación Infantil*. (Master amaierako lana). Universidad de Jaén, Didáctica de las Ciencias, España. Hemen eskuragarri: https://tauja.ujaen.es/jspui/bitstream/10953.1/13650/1/Martos_Cueto_Veronica_.pdf
- Missé, M. (d.g.). La gente trans vive en un género que no es el que se esperaba de ellos. La Trivial. Hemen eskuragarri: <https://latrivial.org/miquel-misse-la-gente-trans-vive-en-un-genero-que-no-es-el-que-se-esperaba-de-ellos/>
- Mondragon Unibertsitatea. *Ikasketa plana*. 2022ko maiatzaren 21ean errekeratuta hemendik: https://www.mondragon.edu/eu_ES/gradua-haur-hezkuntza/ikasketa-plana
- Platero, L. [Educación Conectada] (2016ko martxoak 16). *El género en el aula*, Lucas Platero [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=J8FomGkSshM>
- Robinson, B. A. (2016). Heteronormativity and Homonormativity. The Wiley Blackwell Encyclopedia of Gender and Sexuality Studies, 1–3. <https://doi.org/10.1002/9781118663219.WBEGSS013>
- Romero, A. eta Abril, P. (2008). Género y la formación del profesorado en los estudios de Educación Infantil. *Revista electrónica interuniversitaria de formación del profesorado*, 11(3), 43-51. <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/77736/00820103007434.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Steilas. (2015). *Genero eta aniztasun sexualerako gidaliburua*. [Liburuxka]. Hemen eskuragarri:

<https://steilas.eus/wp-content/uploads/2015/05/Genero-eta-aniztasun-sexualerako-GIDA.-STEILAS.2015.pdf>

- Trujillo, G. (2015). Pensar desde otro lugar, pensar lo impensable: hacia una pedagogía queer. *Educação e pesquisa*, 41, 1527-1540.
- Vizcarra Morales, M. T., Nuño Angos, T., Lasarte Leonet, M. G., Aristizabal Llorente, M. P. eta Alvarez Uria, A. (2015). La perspectiva de género en los títulos de Grado en la Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz. *Red U: revista de docencia universitaria*.
- World Health Organization. (2017). *Sexual health and its linkages to reproductive health: an operational approach*.
<http://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/258738/9789241512886-eng.pdf;jsessionid=C1E595B3B17F7FE6E1675F6933E5F469?sequence=1>
- Yoldi, U. (2020ko ekainaren 19a). Skolae, un programa educativo de premio. *Noticias de Navarra*.
<https://www.noticiasdenavarra.com/actualidad/sociedad/2020/06/19/programa-educativo-premio/1055849.html>
- Zacko-Smith, J. D. eta Smith, G. P. (2010). Recognizing and Utilizing Queer Pedagogy: A Call for Teacher Education to Reconsider the Knowledge Base on Sexual Orientation for Teacher Education Programs. *Multicultural Education*, 18(1), 2-9.
<https://files.eric.ed.gov/fulltext/EJ916840.pdf>
- Zafra, I. (2022ko urtarrilaren 27a). El Gobierno propone que haya un examen especial para entrar en la carrera de Magisterio y evaluar a los profesores para poder ascender. *El País*.
<https://elpais.com/educacion/2022-01-27/el-gobierno-propone-que-haya-un-examen-especial-para-entrar-en-la-carrera-de-magisterio-y-evaluar-a-los-profesores-para-poder-ascender.html>
- Zambrini, L. (2015). Diálogos entre el feminismo postestructuralista y la teoría de la interseccionalidad de los géneros. *Revista Punto Género*, (4), 43-54.
- Zaro, M. J. (1999). La identidad de género. *Revista de psicoterapia*, 10(40), 5-22.

8. ERANSKINAK

1. Eranskina - Galdetegiak

- a) Euskal Herriko Unibertsitateko Berdintasunerako zuzendaria eta EHUko Donostiako, Leioako eta Gasteizko Hezkuntza Fakultateetako Berdintasunerako Batzordeetako kideentzako prestatutako galdetegia.
- **Iruditzen zaizu generoa eta sexualitatea landu beharreko gaiak direla?**
BAI/EZ
 - **Non landu beharko lirateke gai hauek?**
Etxean, eskolan, aisialdian, eremu guztietan, beste bat...
 - **Noiz hasi beharko ginateke hau lantzen?**
Jaiotzatik, 3 urterekin, 6 urterekin, 12 urterekin, 18 urterekin, beranduago...
 - **Haur Hezkuntzako haurrekin gaia lantzea posible dela deritzozu? Zergatik?**
(Galdera irekia)
 - **Zein modutan landuko zenuke gaia Haur Hezkuntzako ikasgeletan?**
(Galdera irekia)
 - **Zer nolako formakuntza eduki beharko luke gai hauek ikasgela batean landuko dituen irakasleak?**
(Galdera irekia)
 - **Irakasle horrek nola/noiz/norengandik jaso dezake edo jaso beharko luke formakuntza hori zure ustez?**
(Galdera irekia)
 - **Euskal Herriko Unibertsitatean formatzen diren Hezkuntza Fakultateetako ikasleei (HHkoak eta LHkoak) formakuntza hori eskaintzen al zaie? Nola, zein da sexualitate eta generoaren inguruan eskaintzen den formakuntza? Zein iritzi duzu eskaintzen den formakuntzaren inguruan?** Dagoen eskaintza nahikoa da edo handitu/txikitu beharko litzateke, Gradu edo Campus desberdinetan orekatuta dago, ikasgela barruan ematen da edo osagarri gisa eskaintzen da, Berdintasun Batzordeak formakuntza eskaintzen du...
(Galdera irekia)
 - **Zein da gai hauen formakuntza eskaintzari buruz jaso duzuen iritzia EHUko (zuen inguruko) irakasle eta ikasleen partetik?**
Pozik daude eskaintzarekin eta haien burua ondo prestatuta dutela uste dute, bestelako formakuntza bat nahiko lukete, eskaintza handitzea eskatzen dute, ez duzue honen inguruko iritzirik jaso...

- **Amaitzeko etorkizunari begira jarriko gara. Aurreko galderei erantzun ondoren, ondorio batzuk atera edo gogoeta bat partekatzea eskatu nahi dizugu. EHUko Haur Hezkuntzako (zein Lehen Hezkuntzako) Gradu(eta)ko ikasleek egun sexualitate eta genero kontuetan duten formakuntza eskaintza kontuan izanik, zure ustez badago hobetzeko alderdirik, edo aldatuko zenukeenik?**
(Galdera irekia)

- b) EHUko Haur Hezkuntzako Graduako ikasle eta ikasle ohientzako prestatutako galdetegia.
- **Haur Hezkuntzako Graduako 4.mailako ikaslea zara?**
BAI/EZ
- **Zure ustez, zer da generoa? Eta sexualitatea?**
(Galdera irekia)
- **Iruditzen zaizu generoa eta sexualitatea landu beharreko gaiak direla?**
BAI/EZ
- **Non landu beharko lirateke gai hauek?**
Etxean, eskolan, aisialdian, eremu guztietan, beste bat...
- **Noiz hasi beharko ginatke hau lantzen?**
Jaiotzatik, 3 urterekin, 6 urterekin, 12 urterekin, 18 urterekin, beranduago...
- **Haur Hezkuntzako haurrekin gaia lantzea posible dela deritzozu? Zergatik?**
(Galdera irekia)
- **Etorkizunean, irakasle moduan jardutean, zein modutan landuko zenuke gaia Haur Hezkuntzako ikasgeletan?**
(Galdera irekia)
- **Zer nolako formakuntza eduki beharko luke gai hauek ikasgela batean landuko dituen irakasleak?**
(Galdera irekia)
- **Irakasle izango garenok nola/noiz/norengandik jaso dezakegu gai hauekiko formakuntza?**
(Galdera irekia)
- **Zure esperientzian oinarrituta, unibertsitatean formakuntza edo prestakuntza hori eskaini al dizute?**

- (Galdera irekia)
- **Zein iritzi duzu eskaintako edota jasotako formakuntza horren inguruan?**
Dagoen eskaintza nahikoa da edo handitu/txikitu beharko litzateke, ikasgela barruan ematen da edo osagarri gisa eskaintzen da, jasotako formakuntzari esker zure burua prest ikusten duzu gai horiek ikasgeletan lantzeko edota gai horiei buruz ikasitakoa praktikan jartzeko ala ez, etab.
(Galdera irekia)
 - **EHUk eskaintzen duen formakuntza aztertuz, Berdintasun Zuzendaritzaren eskutik gai hauekin zerikusia duten hainbat online ikastaro daude doan. Horiez gain, Ikasketa Feministak eta Generokoak deituriko Masterra ere badago. Ba al zenuen hauei buruzko berririk? Hala bada, nola ezagutu dituzu?**
(Galdera irekia)
 - **Amaitzeko, etorkizunera begira jarriko gara. Zure iritzi, irakasle izango garenok unibertsitate mailan (ikasgela barruan zein kanpoan) dugun formakuntza eskaintza egokia da ala murriztagoa/zabalagoa izan beharko litzateke? Egin al duzu inoiz formakuntza hau murrizteko/zabaltzeko eskaerarik? Hala bada, noiz, nola eta zeini?**
(Galdera irekia)
- c) EHUko Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterraren zuzendariarentzako prestatutako galdetegia.
- **Iruditzen zaizu generoa eta sexualitatea landu beharreko gaiak direla?**
BAI/EZ
 - **Non landu beharko liriateke gai hauek?**
Etxean, eskolan, aisialdian, eremu guztietan, beste bat...
 - **Noiz hasi beharko ginатеke hau lantzen?**
Jaiotzatik, 3 urterekin, 6 urterekin, 12 urterekin, 18 urterekin, beranduago...
 - **Haur Hezkuntzako haurrekin gaia lantzea posible dela deritzozu? Zergatik?**
(Galdera irekia)
 - **Zein modutan landuko zenuke gaia Haur Hezkuntzako ikasgeletan?**
(Galdera irekia)
 - **Zer nolako formakuntza eduki beharko luke gai hauek ikasgela batean landuko dituen irakasleak?**
(Galdera irekia)

- **Irakasle horrek nola/noiz/norengandik jaso dezake edo jaso beharko luke formakuntza hori zure ustez?**
(Galdera irekia)
 - **Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Fakultateetako ikasleei formakuntza hori eskaintzen al zaie ikasgela barruan edota kanpoan?**
(Galdera irekia)
 - **EHUko Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterrean zehar jorratzen al dira gai hauek (generoa eta sexualitatea)? Zein eratarata?**
(Galdera irekia)
 - **EHUko Ikasketa Feministak eta Generokoak Masterraren arduraduna zaren heinean, jakingo al zenuke esaten masterrean formatzen diren ehuneko zenbatekoa den Hezkuntza Fakultateetako ikaslea? Eta Haur Hezkuntzako ikaslea?**
(Galdera irekia)
 - **Zein da gai hauen formakuntza eskaintzari buruz jaso duzun iritzia EHUko (zuen inguruko) irakasle eta ikasleen partetik? Zein iritzi duzu zuk eskaintzen den formakuntzaren inguruan?**
Pozik daude eskaintzarekin eta haien burua ondo prestatuta dutela uste dute, bestelako formakuntza bat nahiko lukete, eskaintza handitzea eskatzen dute, ez duzue honen inguruko iritzirik jaso...
 - **Orain, etorkizunari begira jarriko gara. Aurreko galderari erantzun ondoren, ondorio batzuk atera edo gogoeta bat partekatzea eskatu nahi dizugu. EHUko Haur Hezkuntzako Graduako ikasleek egun sexualitate eta genero kontuetan duten formakuntza eskaintza kontuan izanik, zure ustez badago hobetzeko alderdirik, edo aldatuko zenukeenik?**
(Galdera irekia)
 - **Amaitzeko. nire ikerketari begira oso lagungarriak izango zaizkidalakoan, asko eskertuko nizuke Hezkuntza Fakultateetako irakasle feministen edota sexualitate eta genero gaietako irakasle aktibisten izen-abizenak/kontaktuak emango bazenizkit. Izan ere, bigarren fase batean haiekin kontaktuan jartzea gustatuko litzaidake haien iritzi, esperientzia eta gogoetak ere jaso ahal izateko.**
(Galdera irekia)
- d) Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntzako Graduaren koordinazioko kidearentzako prestatutako galdetegia.

- **Iruditzen zaizu generoa eta sexualitatea landu beharreko gaiak direla?**
BAI/EZ
- **Non landu beharko lirateke gai hauek?**
Etxean, eskolan, aisialdian, eremu guztietan, beste bat...
- **Noiz hasi beharko ginateke hau lantzen?**
Jaiotzatik, 3 urterekin, 6 urterekin, 12 urterekin, 18 urterekin, beranduago...
- **Haur Hezkuntzako hurrekin gaia lantzea posible dela deritzozu? Zergatik?**
(Galdera irekia)
- **Zein modutan landuko zenuke gaia Haur Hezkuntzako ikasgeletan?**
(Galdera irekia)
- **Zer nolako formakuntza eduki beharko luke gai hauek ikasgela batean landuko dituen irakasleak?**
(Galdera irekia)
- **Irakasle horrek nola/noiz/norengandik jaso dezake edo jaso beharko luke formakuntza hori zure ustez?**
(Galdera irekia)
- **8) Zeuen unibertsitatean formatzen diren Hezkuntza Fakultateetako ikasleei (HHkoak eta LHkoak) formakuntza hori eskaintzen al zaie? Nola, zein da sexualitate eta generoaren inguruan eskaintzen den formakuntza? Zein iritzi duzu eskaintzen den formakuntzaren inguruan?** Dagoen eskaintza nahikoa da edo handitu/txikitu beharko litzateke, Gradu edo Campus desberdinetan orekatuta dago, ikasgela barruan ematen da edo osagarri gisa eskaintzen da, Berdintasun Batzordeak formakuntza eskaintzen du...
(Galdera irekia)
- **Zein da gai hauen formakuntza eskaintzari buruz jasoz duzuen iritzia EHUko zuen inguruko irakasle eta ikasleen partetik?**
Pozik daude eskaintzarekin eta haien burua ondo prestatuta dutela uste dute, bestelako formakuntza bat nahiko lukete, eskaintza handitzea eskatzen dute, ez duzue honen inguruko iritzirik jaso...
- **10) Amaitzeko, etorkizunari begira jarriko gara. Aurreko galderei erantzun ondoren, ondorio batzuk atera edo gogoeta bat partekatzea eskatu nahi dizugu. Haur Hezkuntzako (zein Lehen Hezkuntzako) Gradu(eta)ko ikasleek egun sexualitate eta genero kontuetan duten formakuntza eskaintza kontuan izanik, zure ustez badago hobetzeko alderdirik, edo aldatuko zenukeenik?**

(Galdera irekia)

2. Eranskina - Elkarrizketetako gidoia

- Hezkuntza sisteman, bereziki HHn, genero eta sexualitate kontzeptuei buruzko lanketa egin litekeela uste duzu? Zein iritzi duzu honen inguruan? Zein erataro landu litezke gai horiek HHko (eta LHko) ikasgeletan?
- Zure edo zure ingurukoen esperientzien arabera, hezkuntza-sisteman (bereziki HHn) gai hauekiko lanketa ematen da?
- Ikasgeletan gai horien lanketa egin ahal izateko, zer nolako formakuntza beharko luke irakasleak? Irakasle horrek nola/noiz/norengandik jaso beharko luke formakuntza hori zure ustez?
- Formakuntza hori EHUko Hezkuntza Fakultateetako ikasleei eskaintzen zaie? Hezkuntza planen barruan ala kanpoan dago eskaintza hori? Implizituki edo esplizituki ematen al da? Formakuntza hori unibertsitateetako irakasleen baitakoa dela uste duzu?
- Zein da gai hauen formakuntza eskaintzari buruz jaso duzun iritzia EHUko (zure inguruko) irakasle eta ikasleen partetik? Zein iritzi duzu zuk eskaintzen den formakuntzaren inguruan? Badago hobetzeko alderdirik? Hobetzeko alderdirik balego, nola bultzatu dezakegu hobekuntza hura?
- Unibertsitateetik kanpo, irakasle izango garenok formakuntza hori jasotzeko aukera dago? Nora jo dezakegu gai hauetan gehiago sakondu ahal izateko?
- Amaitzeko, gaiari loturiko iritzi, hausnarketa edo bestelako esperientziarik gehitu nahiko zenuke?

3. Eranskina - Elkarrizketen transkripzioak:

- Amaia Elizalde:

G. Eskitxabel: Elkarrizketari hasiera emateko, lehenik eta behin zure burua aurkeztea eskatu nahiko nizuke.

A. Elizalde: Amaia Elizalde naiz, orain EHUko Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean eta orain gutxi arte Gasteizen nengoen, Hezkuntza eta Kirol fakultatean. Unibertsitatean irakasle kontratatu bezala hiru urte daramatzat, hizkuntzaren eta literaturaren sailean. Ni filologiatik nator, hispaniar eta euskal filologiak egin ditut eta ondoren masterra literaturan eta kultur kritikan espezializatua. Gero tesia egin nuen, XX. mendeko euskal idazle bati buruzkoa. Eta orain hezkuntzan nabil klaseak ematen.

G. Eskitxabel: Mila esker Amaia. Bada, ni Garazi Eskitxabel naiz, Haur Hezkuntzako 4. mailako ikaslea Gasteizen, eta orain Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz irakasle izango garenok genero eta sexualitateari buruz jasotzen dugun formakuntzaren inguruan, Amaia Álvarez-Uria zuzendari izanik. Elkarrizketa honen bidez zure esperientzi, hausnarketa eta

iritziak bildu nahiko nituzke nire ikerketarako aberasgarriak izango direlakoan. Hasteko, lehenengo galderari joko diogu: Hezkuntza sisteman, eta bereziki HH-n, genero eta sexualitate gaietarako buruzko lanketa egin litekeela uste duzu?

A. Elizalde: Bai, noski.

G. Eskitxabel: Zein iritzi duzu egiten den lanketaren inguruan?

A.Elizalde: Nik uste dut beharrezkoa dela lanketa batez ere kanpoan dagoenari begira. Gure kultura ez balitz egongo tradizionalki kodifikatua egon den moduan, ez litzateke ezer egin beharko. Besterik gabe, naturalki hazten utzi eta... Baina beno, suposatzen da badagoela errealitate kultural bat nahi duguna deseraiki, eta horregatik da beharrezkoa lanketa bat egitea. Uste dut era asko daudela lanketa hau egiteko, eta uste dut hurrekin are gehiago, beraientzako oso erraza baita. Datozen belaunaldietan ikusten da, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleetan igartzen da oso irekiak direla eta normaltasun handiarekin ikusten dutela guzti hori. Betiere normaltasunarekin tratatu duten ingurune bat izan badute. Ez bakarrik eskolan, baizik eta ingurune osoan. Esango nuke eskolaz gain eremu zabalagoan ere lanketa egin behar dela. Adinak ez du inporta.

G. Eskitxabel: Zure ustez, nola egin liteke gai hauekiko lanketa hezkuntza sisteman? Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan bereziki.

A.Elizalde: Nik uste dut beharren arabera. Ikastetxe guztietan ez dago errealitate berdina, ez daude behar berdinak, ezta aukera berdinak ere. Ikastetxe batzuetan egon liteke nolabaiteko erresistentzia gurasoen aldetik. Eskola publikoaz ari baldin bagara, gurasoengandik datozen erresistentziak baleude ere ez lirateke onartuak izan beharko... Zirkulstantzia desberdinak daude, eta askotan nik uste dut hoberena dela abiatzea dagoen horretatik. Ikusten baldin bada hurrek oso normaltasun handiz daramatela, etxetik gaia oso modu askean bizi dutela, hori oso ondo dago eta hori egin behar dena da mantendu eta elikatu eta saiatu zaintzen, hori izan beharko litzateke irakaslearen lana. Aldiz, ikusten baldin badugu hurrengan hasi direla estereotipo rolak, jarrerak eta komentarioak agertzen, lanketa sakonagoa egin dezakegu. Materialetatik hasita, abestiak, ipuinak, etab. Gero, kasuan kasu ikusten diren beharren arabera, esku-hartze edo planteamendu desberdinak egin daitezke, intentsitate desberdinekin, haurren errealitateen arabera. Ikasgelan edo ikastetxe mailan ikusten diren beharren arabera. Zaila da gauza hauei formula bakar bat ematea. Baita ere, egia da, tradizioa lantzea ere ez dagoela gaizki, baina betiere ikuspuntu kritiko batetik. Hau da, ipuin tradizional pila bat kontatzen ari bagara, eta denbora guztian emakumea desira objektu bat baldin bada, eta gizona baldin bada desiratzen duena, eta horrelako harremanak baldin badaude denbora guztian, ba agian, horren inguruko lanketa bat egitea, aniztasuna sartzeara... Hezitzaila gauza horietaz ohartzea garrantzitsua da.

G. Eskitxabel: Zure edo zure inguruko esperientzien arabera, gaur egun Haur Hezkuntzan gai hauekiko lanketa ematen da?

A.Elizalde: Ez naiz aritu irakasle bezala Hau Hezkuntzan, baina bai, badaude inizatibak. Adibidez lanbideekin lotuta, YouTubeen badago bideo bat estereotipoak apurtzen saiatzearekin lotuta, etab. Badaude gauzak, baina zerbait sistematikoki egiten denik ez zait iruditzen. Ez zait iruditzen ere irakasle batzuek horretan arreta jartzen dutenik, batzuek ez dute sentsibilitate hori, agian estereotipoekin bat egiten dute... Beraz, ikastetxe batzuetan lanketa ematen da, baina ez da zerbait transbertsalki eta sistematikoki, modu planifikatuan, ematen dena. Suposatzen da curriculum ezkutuan badagoela, baina oso ezkutututa. Nik bai egin dudala lan Bigarren Hezkuntzan, eta ez zen gaia jorratzen. Egin liteke edo ez, bakoitzaren esku.

G. Eskitxabel: Irakaslearen borondatearen eta legediaren arteko oreka bat egon beharko litzatekeela uste duzu?

A.Elizalde: Bai, hori ere gertatzen da euskararen kasuarekin. Azkenean derrigorrezkoa da, baina gero hautazkoa da. Gutxiengoan gauzak. Genero, sexualitate eta hizkuntza gutxituen gauzak.

G. Eskitxabel: Ikasgeletan genero eta sexualitateen lanketa egiteko zer nolako formakuntza beharko luke irakasleak?

A.Elizalde: Ez nuke jakingo oso ongi esaten zeren alde batetik itsusia egiten zait esatea, baina bestalde, iruditzen zait beharrezkoa dela, eta da ideologikoa. Ni ez nago doktrinen alde, baina hemen dago hezkuntza proiektua, egiten dugu apustu hezkuntza baten alde, eta suposatzen da bertan dauden langileek sentsibilitatea eduki behar dutela gutxiengoetik. Jakin behar dutela baita ere egiten diskriminazio positiboa, egin behar baldin bada momenturen batean. Horrelako jarrerak, kontzeptuak oso barneratuta eduki behar dira. Nik uste dut hori izaera kontu bat dela. Horregatik nik defendatzen dut elkarrizketa pertsonalak egin behar direla jendearekin irakasle eskoletan sartzeko (Gradu mailan). Bestelako proba batzuk egin beharko lirake, bestela ez du balio. Nota media batekin ez daukazu ezer ziurtatuta, eta horrela curriculumaren hainbat eta hainbat aspektu ez dira gero praktikara ekarriko. Baina hori nola koordinatzen da? Ba ez dakit oso ondo. Hori irakasgai batean sartu beharko litzateke? Nola? Baina beno, gaur egun daukagun planteamenduetarekin, iruditzen zait izan beharko litzatekeela gai bat transbetsala, baina benetan transbetsala. Transbetsala izatea eta curriculum ezkutuaren parte izatea, ez izatea inon ez dagoen zerbait. Jada ez da toki guztietan dagoela, kontua da ea ez den inon egongo. Ba hor adibidez, Gasteizen, modulu lana egiterakoan, hurrengan pantailen eragina lantzean, genero estereotipoak lantzen dira. Nik uste dut aspektu desberdinetan txertatu beharreko zerbait dela. Hasi sexualitateetik, aspektu biologikoetatik ere bai, zeren nik uste dut hor konfusio handia dagoela. Genero kontuetan jendeak dio buruko gauza, hautu gauza, gauza kulturala dela... Baina ez da hori bakarrik, hor daude hormona kontuak... Transexualitateari buruz adibidez, asko eta erraz hitz egiten da, baina desberdintasunek ez dute mugarik, eta hori ez da ikertzen. Eta hain eremu ezezaguna izatea ez da batere egokia, zeren irakasle batek ez daki bere ikasleen errealitate biologikoak zeintzuk izan daitezkeen. Edo familia motez hitz eginda, ikasgeletan behin eta berriz aita eta ama dio askotan irakasleak, baina izan liteke haur batek bi aita edo bi ama edukitzea, edo aita edo ama bakarra, edo ez aita ez amarik. Askotan, nik uste dut ez dela sentsibilitate kontua, batzuetan jakintza kontua ere bada. Orduan, nik uste dut ezagutza maila, behintzat, daukagun sistemarekin, asko elikatu litekeela, asko hobetu.

G. Eskitxabel: Ikasgeletan genero eta sexualitateen lanketa egingo duen irakasleak nondik jaso dezake gai horiekiko formakuntza?

A.Elizalde: Unibertsitateko irakasleek edo Haur Hezkuntzako irakasleek ari zara?

G. Eskitxabel: Bereziki Haur Hezkuntzako irakasleek. Hala ere, biak erlazionatuta daudela esan liteke. Zer iritzi duzu honen inguruan?

A.Elizalde: Bai, unibertsitateetako irakasleek ere gai hauekiko formakuntza beharko genuke. Gure esku dago ikastaroak eta honelako gauzak egitea, nahiz eta beti eskaintzarik ez dagoen. Hau da, urte batzuetan ateratzen da agian "0-6 urte tartetako haurren sexualitate garapena", edo ez. Ez dago ziurtatuta formazio eskaintza bat edukiko duzunik, ez unibertsitateko irakasle gisa, ezta H.H. edo L.H.-ko irakasle gisa ere.

G. Eskitxabel: Aipatu duzun ikastaro hori EHUK antolatzen al du?

A.Elizalde: Hori UEUK (Udako Euskal Unibertsitatea) antolatzen du, edo Euskal Herriko Unibertsitateak ere udako ikastaroetan. Gero masterrak ere badaude, baina irakasleok sakondu beharreko gauza bakoitzarekiko master bat egin behar badugu... Formakuntza minimoa Graduan eman beharko litzateke. Eta bestela, konponbide bakarra da, modu

autonomoan (eta hori okerragoa da), autodidakta moduan jardutea, gaur egun informazio ugari dugu eskuragarri, interneten, liburutegietan, ikus-entzunezkoak daude... Baina nik uste dut askoz interesgarriagoa dela taldean gauzak egitea, dela ikastaro batean, irakurketa dialogiko talde batean... Baina nik, behintzat, ez dut ezagutzen irakasleei zuzenduriko formakuntza hainbeste, ez, behintzat, modu sistematikoan ematen dena.

G. Eskitxabel: Beraz, formakuntza minimoa Graduan eskaini beharko litzateke?

A.Elizalde: Bai. Ez dakit zehazki nola, baina ziurtatu egin beharko litzateke. Baina ziurtatu beharko litzatekeen bezala jendeak euskaraz jakitea. Oinarrizko gauza batzuk, tratuan jakitea, hizketan jakitea... Eta nik uste dut, gaur-gaurkoz, Graduek ez dutela erabat ziurtatzen. Genero eta sexualitateari buruzko edukiak ere ez daude ziurtatuta.

G. Eskitxabel: Irakasle izango garenon formakuntza gai hauen inguruan, Gradu irakasleen baitakoa dela uste duzu?

A.Elizalde: Bai. Unibertsitate publikoaren erantzunkizuna da hezitzaile "egokiak" prestatzea. Eta orduan, horretarako, gai hauekiko formakuntza ezinbestekoa da. Eskaintzen diren ikasgai guztietan txertatu litezke horri lotuta. Ez dakidana da unibertsitateak egin beharko lukeen "por decreto". Gainera, unibertsitatean zaila da, zeren hor dago katedra-askatasuna. Irakasle bati ezin zaio erraz esan zehazki zer eta nola eman behar duen. Gaurkoz ez dago horrela planteatuta. Modu transbertsalean egin behar bada, irakasle askoren plangintzak ukitu behar dituzu. Irakasgai bat eskaintzen baduzu, beharbada errazagoa da, irakasle batek hartzen du horren ardura, eta ziurtatuta dago, zeren horri buruzko ikasgai bat da. Hori bai, gerta liteke ikasgai horretan emango dena kontraesanean sartzea beste irakasgaietan emango den kontzeptuekin.

G. Eskitxabel: Zein izan da unibertsitateko zure inguruko ikasle edo irakasleek eman dizuten iritzia unibertsitatean ematen den gai hauekiko formakuntzari buruz?

A.Elizalde: Ez didate gaia aipatu. Gauza interesgarri bat gertatu zen behin eta zen, beno, nik ikasgelan gaiak ateratzen nituen pentsatuz beraiek jada bazekizkitela zenbait gauza, baina esan zuten: "guk nola landuko dugu hau haurrekin guk geuk ere ez badakigu? Ez badugu horri buruz hitz egiten?". Orduan, gauza ez da ikasleek ez dutela gaia akademikoki landu, baizik eta pertsonalki oso landuta ez daukatela, eta taboo bezala daukatela. Hor ere sartzen da heriotza... Hor kuestionatu liteke zer den unibertsitatea eta zer izan beharko lukeen. Zeren, hirugarren mailako ikasleek, hezitzaile izango diren ikasleek, hori esatea... Ez didate inoiz esan gaiak landu beharko liratekeenik, baina esan gabe ere esan didate. Nik hori ondorioztatzen dut. Hobetzeko alderdi asko daude.

G. Eskitxabel: Nola bultzatu dezakegu hobekuntza hura? Ze bide hartu beharko litzateke unibertsitatean gai hauek eskaintzeko? Nondik jo beharko nuke?

A.Elizalde: Ze zaila... Ez dakit. Modu ezberdinak daude, eta segun eta zein bide aukeratu den, modu batera edo bestera. Hau da, aukera bat da transbertsalki ematea, beste aukera bat da ikasgai bat sortzea, beste era bat da egiturak eta ikasketa planak pixka bat aldatu eta gaitegia gehiago zehaztu, seminario gehiago antolatu, irakurketa dialogikoak, beste modu batera ikasi, etab. Baina horretarako ez dira behar bakarrik irakasle ezberdinak, ikasle ezberdinak ere behar dira. Ari naiz erakundeari egur pixka bat ematen, badauzkalako bere ahuldadeak, baina ikasleak eurak ere badira erakundea, eta gauza asko atera daitezke ikasleengandik. Nik nire esperientziagatik dakit, askotan irakasleei eskatzen diezunean hitz egitea gai bati buruz, gai bat lantzea maila akademiko batean, esan nahi du irakurri behar duzula. Prestatu eta hausnartu beharko duzula sakonki, eta orduak dedikatu beharko dizkiozula zure ikaskuntza prozesuari. Nik konfiantza ematen dizut eta gero planteatzen dut irakurketa dialogiko bat, eta harrizko zinateke irakurgaiak irakurtzen dituen ikasleen portzentai txikiak. Askotan irakasleek planteatzen dituzte ikasleek planteatzen uzten

dizkieten jarduerak. Askotan esaten da ikaslea azken ebaluazio batekin ezin dela ebaluatu, baina beste ebaluazio era bat planteatzen baldin bada, berdin-berdin lan handia egin behar dena edo gehiago, ikasleak ez dira sartzen. Azkenean oso zaila da, eta ez da bakarrik egitura kontua. Ez da bakarrik unibertsitateak eta irakasleek zer egin dezakegun horretarako, baizik eta zer egin dezakegun gure errealitatearekin. Eta hor sartzen dira ikasleak, eta zertara sartzen diren ikasleak irakasle-ikasketetara. Ikasle desberdinak daude, baina badago profil konkretu bat, portzentaje altua hartzen duena, eta ez dena lan asko egiteko gogoia duen profil bat. Orain, hain zuzen ere, planteatzen ari dira hezkuntzara bideratutako ikasketetarako frogak berezia jartzea. Nik uste dut hori behar-beharrezkoa dela, ez bakarrik generoa eta sexualitatea berriaz eta behar den sakontasunarekin lantzeko, baizik eta edozein gai. Behar da ikasle aktiboa, jakin-mina daukana. Eta esango diozunean sakontzeko gai batean, sakonduko duena. Ikasteko gogoia duena. Arazoak dimentsio ezberdinak dauzka, eta ez bakarrik gai honetarako. Hor daude ikasketak planak, hor daude zenbait gauza, baina behar dena da hezkuntzarekiko beste jarrera bat. Beste seriotasun bat lanbidearekiko, ikasketekiko... Orokorrean beste prestigio bat. Europako zenbait tokitan, elite intelektualak irakasle-ikasketak egin nahi du medikuntza bezala. Garrantzi handia duen lanbidea da, eta oso gai konplexuak eta sakonak landu behar dira. Eta ez da behar koefiziente intelektual altua, behar da gaitasuna pentsatzeko, hausnartzeko eta hitz egiteko pentsatzen dugunaz. Bestela, genero eta sexualitate bezalako gaiak ezin dira landu. Ezin da, oso zaila da. Ikasle askoren kasuan oinarriak falta dira. Orain ari naiz arazoaren beste aldea erakusten, alde hau gabe gauzak ezin dira aldatu. Gauzak aldatzeko, denen aldatzea eman behar da. Hainbat eta hainbat ikastaro interesante planteatzen dira, eta geratzen dira atera gabe.

G. Eskitxabel: Unibertsitateetik kanpoko ikastaroez ari zara? Jakingo zenuke esaten ze eskaintza dagoen?

A.Elizalde: Antropologiako fakultatean potentziala dago, nahiko prestigioa duen masterra eskaintzen da. Ikastaro eta hitzaldiak ere badaude. Herenegun joan nintzen hitzaldi batera: "Artea eta emakumea", San Telmo-n dauden erakusketekin lotuta, eta geunden hiru, bi jubilatuta eta ni. Non daude gazteak? Kontua da begiratzea, gauzak badaude. Ni kontsolatzen nauena da gazteek kontsumitzen dituztela pantaila pila bat, eta produktu batzuetan adibidez genero estereotipoak eta sexualitatearekiko joerak hausten dira. Gazteek hori guztia normalizatzen badute, igual ez da egongo zer deseraiki beharrik. Beraien errealitatea desberdina izango da beharbada, baina hori ere ez dago ziurtatuta. Ziurtatuta dagoena da hau guztiak pasako direla eskolatik. Zeren, pantailatan batzuek ikusten dute gauza bat eta beste batzuek beste gauza bat. Azkenean, hezkuntza da nik uste eragile indartsuena zerbait aldatzeko. Eta formatzeko? Ba ikastaroak daude, baina puntualki. Ondo legoke formakuntza bat sistematikoa, eta urtero ateratzea. Online edo presentzialki. Niretzako presentzialtasunak potentzial handia dauka. Besterik ez dagoenean, aukera dago online egiteko eta ondo dago. Baina, bertatik bertara nik uste dut askoz hobeto dela.

G. Eskitxabel: Bukatzeko, aukera eman nahiko nizuke gehitzeko komentatu nahiko zenukeen esperientziaren bat, edo iritzi edo hausnarketaren bat.

A.Elizalde: Unibertsitatean, eta gurea presentziala denez gero, aprobetxatu beharko litzateke gauzak beste era batean planteatzeko. Baina hori sakoneko kontu bat da. Jakintzak beste modu batera transmititzeko, elkarriketa gehiago sustatzeko lehenengo mailatik, beste era batera ikasteko. Bestela ikasleentzako ez da erakargarria ere, ez badago hizketarik, ez badute beraienera ekartzen. Beraien errealitateetik abiatu behar da, baina askotan unibertsitateko irakasleak ez gaude horretarako prestatuta. Prestatuta gaude ikertzeko, kongresuetan parte-hartzeko... Baina, azkenean klase batean horrelako jarduerak

planteatzeak suposatzen du desordena bat, zure eskuetatik errazago ihes egin dezakeen egoera bat. Horrek segurtasunik eza ematen du. Eta nola ebaluatu? Horrez gain, niretzako unibertsitatera doan ikasleak berezko motibazioa eduki beharko luke jakintzarekiko. Eduki beharko luke gogoia jakiteko gauza pilo bat. Beharbada horrek ere irakasleoi bultzatuko liguke gauzak beste era batera planteatzera. Pentsa, galdera bat egin eta erantzunik ez. Zer egingo dugu? Eta gaira bueltatuz, nik Haur Hezkuntzan ikusi ditut nahiko dinamika politak, baina noski, irakaslearen araberrakoak. Adibidez, mozorro festa bat egin zuten eta mutil batek jantzi zuenean printzesa trajea beste batek esan zion hori neskena zela. Irakasleak hori entzutean, ikasleei galdetu zien zergatik uste duten hori neskena dela, ea zer iruditzen zitzairen. Gero denak bilgunera joan ziren gaiaz eztabaidatzera eta ondorio batera iritsi ziren elkarrekin, printzesa mozorroa ez dela bakarrik neskena, etab. Orduan, gauza horiek txikitatik hitz egitea da garrantzitsua, ez dauka beste misteriorik. Ez da behar metodologia espezifikorik. Irakasleok sentsibilitate eta entzute aktibo pixka bat baldin badaukagu, gaiak lantzeko aitzakiak ikasgelan ateratzen dira, egoera konkretuetatik atera daitezke elkarrizketak.

- Laura Mintegi:

G. Eskitxabel: Hasteko, zure burua aurkeztea eskatu nahiko nizuke.

L. Mintegi: Laura Mintegi Lakarra naiz, Bilboko Hezkuntza Fakultateko irakaslea. Horrez gain idazlea ere banaiz, euskal literatura egiten dut, narrazio laburrak egin nituen hasieran eta 5 nobela argitaratu ditut. Euskal Herriko Unibertsitatean ematen ditut klaseak, Bilbon, aurten 40 urte bete ditut bertan, eta batez ere komunikazio gaitasuna, elebitasuna eta hezkuntza, literaturaren didaktika eta literatur-sormena landu izan ditut urte hauetan guztietan.

G. Eskitxabel: Mila esker. Bidali nizun emailean azaldu bezala, elkarrizketa hau nire Gradu Amaierako Lanean egiten ari naizen ikerketaren parte izango da, zeinean Haur Hezkuntzako irakasle izango garenon genero eta sexualitate gaiekiko formakuntza aztertuko dudana. Horretarako, zurekin harremanetan jartzea erabaki dugu, zure esperientzia, iritzi edota bestelako ekarpenak ikerketarako baliagarri eta aberasgarriak izango direlakoan. Bada, lehenengo galderarekin hasiko gara: Zure ustez, hezkuntza sisteman, eta bereziki Haur Hezkuntzan, genero eta sexualitate kontzeptuei buruzko lanketa egin liteke?

L. Mintegi: Ez bakarrik egin litekeela, egin behar dela uste dut. Uste dut ezinbestekoa dela. Haurrak inoiz ez dira gazteegiak heziketa jasotzeko. Adinaren arabera moldatu beharreko heziketa da, baina esango nuke eskolan eta etxean aldi berean eta elkarri lotuta eman behar dela formazio hori, lehen-lehen unetik. Hain zuzen ere, haurrak jaiotzen diren unetik –eta nik esango nuke lehenagotik ere ari dira zenbait input hartzen gizartetik eta, orduan, garrantzitsua da lehen unetik ere irizpideak ematea horren gainean. Zein erataratara? Ba betiere moldatuta ikasleen adinera. Hezkuntza baldin bada pertsona kritikoak sortzea (ez dut esaten doktrinatu behar denik edo kontzeptu itxiak eman behar direnik), irizpide orokor batzuk eman beharko dira, betiere giza eskubideetan oinarrituta. Nire ustez, erreferente nagusia hori da. Giza eskubideak hartzen baditugu ikusiko dugu zer esaten den berdintasunari buruz eta generoaren gainean eta, horietan oinarrituta, irizpideak eta informazioa eman beharko lirateke, ikasleek haien iritzi propioa eratu dezaten.

G. Eskitxabel: Bigarren galderari joko diogu orain. Zure esperientziaren arabera, hezkuntza sisteman, eta bereziki Haur Hezkuntzan, gai hauekiko lanketa ematen da?

L. Mintegi: Ez dut esperientzia handirik irakasle moduan, ez baitut inoiz irakatsi Haur Hezkuntzan. Nire esperientzia gurasoarena da, ama naizen aldetik seme-alabei eman zaiena. Ikusi dudanagatik, orokorrean lanketa egokia dela iruditu zait, baina irakaslearen arabera. Hau da, gauza bat da gai hauen inguruan egin daitekeen plangintza, eta beste gauza bat da irakasleen inplikazioa. Nik uste dut orokorrean eskolek badutela honen gaineko kontzientzia, curriculumean sartzen dira heziketa sexualari buruzko programak, baina gero lekuan lekukoa oso desberdina izaten da bertako irakaslearen inplikazioaren arabera. Nik ez dakit lotsa den, ezjakintasuna den, edo beldurra den, irakasleek batzuetan ez dutela garatzen garatu beharko luketen beste. Irakasleak batzuetan beldur izan daitezke gurasoen erantzunagatik, haurrek ikasgelan ikasitakoa kontatu ondoren horren aurrean erreakzio negatiboa eduki dezaketelako. Orduan, nola ikusten dut nik? Ikusi dudana ez-nahikoa iruditu zait. Iruditu zait azalekoa, beldurtia, eta noizbait arazorik egon izan bada, sistemak ez duela jakin izan erantzunik ematen.

G. Eskitxabel: Ikusi duzunaren arabera, ikasgeletan gai hauekiko lanketa nola eman izan da?

L. Mintegi: Gure kasuan zorte handia izan genuen, hain zuzen ere, gure haurren adin bereko edo pixka bat gazteagoa zen ikasle bat transexuala zelako. Bere familia oso inplikaturik zegoen *Chrysallis* elkartearen eta geroago *Naizen* elkartearen sortzaileetarikoa izan zen. Egoera honek lagundu zigun kontzientzia arinago hartzen eta aukera ederra eman zigun gure seme-alabak hezteko eremu horretan. Ustez mutil jaio zena neska da, eta gure seme-alabekin aritzen zen kirolean, dantzan, igerilekuan, etab. Lehenengo momentotik haren familiak aldarrikatu zuen haurren transexualitatea eta horrek aukera paregabea eman zigun gainontzeko gurasoei haurrak ildo horretan hezteko. Zorte handikoa izan zen gurea, bazegoelako transexual bat alboko gelan, eta familia horrek bere gain hartu zuelako aldarria egiteko erantzukizuna. Baina baliteke ustekabearen pasatzea, eta hala izango da kasu gehienetan, ez dagoelako familiaren inplikazioa.

G. Eskitxabel: Familiaren inplikazioa azpimarratzeaz gain, irakasleen inplikazioaren garrantziaz zer deritzozu?

L. Mintegi: Irakaslearen inplikazioa gakoa da, gai honetan eta beste guztietan. Curriculumaren edozein arlo hartzen badugu, era mekanikoan eta azalekoan egin liteke lana, edo inplikazio pertsonala egon liteke. Berdin du matematika, literatura... Guztiok dugu esperientzia nola irakasle bati esker gehiago maite dugun gai bat eta nola gorrotatzen dugun beste arlo bat irakaslearen erruz. Gutxienez bermatu beharko litzateke edozein irakasleak edukitzea formazioa edozein egoeratan jarduteko, ezin baitugu utzi boluntarismoan bakarrik. Edozein irakasleak formazio nahikoa jaso beharko luke alde batetik formazioa emateko eta, bestetik, bere eremuan kasu bereziren bat sortzen bada, erantzuten jakiteko. Beraz, bi gauza beharko lirateke, legez antolatzea eta aurreikustea (curriculumean ezartzea irakasle batek ezagutu behar duen eremua), eta irakasleen inplikazio eta motibazioa, konpromisoa, baina hori ezin da legez inposatu, beharrezkoa bada ere. Bi horien elkarrekintza gabe porrot egiteko aukera handia dago. Norberak lan egin dezake boluntarismoari esker, baina horrek ez du iraupenik ezta bermerik ere ea hurrengoak landuko duen. Eta, alderantziz, gauza bera gertatzen da: legez inplementatu dezakegu baina alperrik da irakasleek lanketa egiteko konpromisurik ez badute. Hala ere, hasteko, aintzat hartu beharko litzateke araudi eta legedietan.

G. Eskitxabel: Irakasle batek ezagutu beharko litzatekeen kontzeptuen harira, formakuntza hura nondik edo norengandik jaso beharko lukete?

L. Mintegi: Gai bakoitzeko adituengandik. Hezkuntza fakultateetan gauden irakasleak ez gara adituak gai horietan, gure eremuak dira literatura, hizkuntza, matematika, musika... Ez

gara adituak, uste dut formatzaileok ere formazioa jaso behar dugula gero formatzaile izango direnei formazioa emateko. Hau da, dena katean doa. Nik uste dut, zorionez, asko aurreratu dela azken urteetan. Hala ere, egia da gauza batzuk transbersalak izan behar direla. Gai batzuekin konpartimentu estankoak egin ditugu gehienetan, euskararekin esaterako. Euskara transbertsala izan beharko litzatekeen bezala, gai hau ere transbertsala izan beharko litzateke. Oraindik aurrefase batean gaude, genero eta sexualitatea konpartimentu estankoak balira bezala ikusten dira. Baina alderik alde zeharkatu beharko litzukete irakasgai guztiak. Ez dago zalantzarik, jakina, guk ere formazioa behar dugula.

G. Eskitxabel: Formakuntza hori Euskal Herriko Unibertsitatean eskaintzen al da?

L. Mintegi: Ez, ez dut uste eskaintzen dugunik. Edonola ere, generoa lantzen duten GrAL-ak gero eta gehiago saritzen ditu unibertsitateak instituzionalki, Francisca de Aculodi Sariaren bidez, eta Micaela Portilla Sariak generoa lantzen duten doktorego-tesiak saritzen ditu. Hau da, gehiago ari dira sustatzen eta bultzatzen genero ikasketak egitea ikerketa munduan, eta ezinbestekoa da, bai doktorego-tesietan, bai GrAL lanetan, eta bestelakoetan ere. Gero eta gehiago ikusten ari gara nola ari den transbertsalizatzen gaia, baina nik esango nuke EHUko irakasleok orokorrean ez dugula formazio hori eskaintzen. Egia da irakasleontzat ikastaro batzuk egon badaudela, eta unibertsitatean badagoela Berdintasunerako Zuzendaritza. Baina, ikastaroak ez doaz horrenbeste generoaren eta sexualitatearren gaineko formazioa lantzerako, baizik eta emakumeak prestatzea ardurak lantzeko. Hau da, ahalduz ikuspegia dute gehiago. Piramidea oso argia da, beheko arduretan emakumezko gehienak daude eta zenbat eta gorago joan (departamentuko zuzendaria, dekanoa, etab.) gero eta gizonezko gehiago daude. Dena dago lotuta. Emakumeen presentzia publikoa lantzen bada, horrek ere lagunduko du bestelako sexualitate eta adierazpen subjektibo motak adierazten..

G. Eskitxabel: Unibertsitatean beraz, irakasle izango garenok formakuntza hori ez eskaintzearen zergatia zein dela uste duzu?

L. Mintegi: Neurri batean unibertsitateko irakasleen formakuntza faltagatik. Gai hauetan formatuta ez gaudenez, norberak egin behar du ibilbide pertsonala arlo horretan.

G. Eskitxabel: Hitz gutxitan, zein da irakasle izango garenok gai hauekiko eskuragarri dugun formakuntzari buruz duzun iritzia?

L. Mintegi: Nik uste dut, eta orokorra da hori, gizarteak dauzkan gabezia guztiak eskolan konpondu nahi direla, eta eskolak mugak ditu. Egia da eskola oso garrantzitsua dela, egia da ez dela soilik edukia eta ezagutza transmititzen, baizik eta baloreak, ohiturak, tradizioak, jokaera, hausnarketa, bizipena... Baina eskolak bakarrik ezin du. Nik uste dut laguntza gehiago eman behar zaiela irakasleei, babesgabe uzten baitira gainera datorkien guztia egiteko. Eta gizarteak ez badu bere kabuz ere zerbait egiten, ezer gutxi lortuko du eskolak. Egunez egun ikusten dugu eskolaren eragina handia dela, baina etxekoen eragina are handiagoa da. Esate baterako, hizkuntza erabiltzeko orduan argi eta garbi ikusten da. Ondo dago hezkuntzak ardurak hartzea, kontziente izatea, ahalik eta hoberen egitea, baina eskolek bakarrik ezin dute. Eskola batzuetan gurasoentzako formakuntzak eskaintzen dira, familiek laguntza behar dutelako. Baina hor ere arazoak egoten dira. Adibide bat jartzeko, Nafarroako muturreko kasua dugu. Ideologia kontserbatzaileko familiak, Opus Dei ingurukoak, Skolae programa atzera botatzen saiatu dira, nahiz eta hezkuntza arloan itzelezko arrakasta duen eta European ere sariak jaso dituen. Oso interesgarria da Skolae programaren inguruan sortu den mugimendua.

G. Eskitxabel: Aipatu duzu gurasoentzako formakuntza eskaintzen dela eskola batzuetan. Baina, formakuntza horietara jotzen duten familiak ez ote dira behar gutxien edo kontzientziario gehien dutenak?

L. Mintegi: Hori beti gertatzen da, hau da, gutxien behar dutenak joaten dira. Formazio gehien daukatenak eta kontzientzia handiena dutenak izaten dira. Entzuteko beharrian handiena dutenak, aldiz, ez dira joaten.

- Urtza Garay:

G. Eskitxabel: Uste duzu Haur Hezkuntzan genero eta sexualitate gaiak landu daitezkeela? Landu behar direla uste duzu? Zein iritzi duzu honen inguruan?

U. Garay: Uste dut beharrezkoa dela, egin beharko litzatekeela. Moldatuta beraien adinera eta beraien ulermen mailara, baina bai hori eta baita beste hainbat gai ere. Uste dut gaiak ez direla derrigorrez adinka bereizi behar. Baizik eta gai guztiak adin guztietan landu beharko lirateke, moldatuta adin bakoitzeko ezaugarrietara.

G. Eskitxabel: Ikasgeletan lanketa hori egin ahal izateko, zein formazio eduki beharko luke irakasleak zure ustez?

U. Garay: Beharko lukete genero eta sexualitate ikuspegia ondo landuta eta garatuta izan, ondo ulertzea zer esan nahi duen horrek. Baita ere, dibertsitatearen ingurukoa. Baina ez bakarrik formakuntza, baizik eta hausnarketa edo gogoeta beharko litzateke. Askotan formakuntzak ez du aldatzen gure pentsatzeko era, edo gure usteak. Formakuntzak bakarrik ez du balio, baizik eta enpatia sortzea, ulertzea. Baita ere sexu-adierazpen mota ezberdinen eta genero identitateei buruz jakitea, bestela taboo pila bat dauzkagu. Baita ere familia eredu ezberdinen aurkezpena, bizitzeko eredu ezberdinak ezagutaraztea. Txiki-txikitatik hasi behar gara horrekin. Nik proba eginda daukat, umeek ez dituzte azal kolore ezberdineko pertsonak bereizten. Beraientzat umeak dira. Gauza hauek ere gaiarekin nahiko lotuta daude, elkarbizitzarekin, errespetuarekin, bazterreko jendea erdigunera ekartzearekin. Bazterretako jendea ez badugu erdigunera ekartzen, inoiz ez dugu ezer aldatuko. Gainera, errazagoa da lanketa hori adibidez 4 urterekin ematea, eta ez 15ekin.

G. Eskitxabel: Zure ustez unibertsitatean, ikasgela barruan eta kanpoan, genero eta sexualitateari buruzko formakuntza ematen da?

U. Garay: Orain kontzientzia gehiago hartzen ari gara Graduetan, genero eta sexualitate ikuspegia lantzen den ikasgairik ez dago, baina ikuspegi hau nik uste dut bai ari dela zeharkako era batean sartzen (bai unibertsitatean eta bai beste hezkuntza eredu profesionaletan). Nik uste dut egon beharko litzatekeela Graduetan irakasgai bezala. Nik uste dut batzuetan badagoela presente, irakasle gehienek badute kontzientzia hori eta beraien irakasgaietan ere kontuan hartzen dutela. Era espezifikoan ere formakuntza ematen da, badaude online ikastaro batzuk guk ematen ditugunak. Baina nik uste dut ez dela nahikoa, nik uste dut gehiago egin daitekeela. Nik uste dut Gradu barruko formakuntzan sartu beharko litzatekeela, baina ulertzen dut ere hori oso konplikatu dela. Konplikatu ez gaietatik, baizik eta Graduak aldatzeko dagoen kalitate sistematik. Horrek suposatzen ditu tramite handi batzuk, eta batzuetan ez dira errazak. Kanpotik ere ebaluazio pila bat jaso behar dira... Denborarekin egin beharko litzatekeela? Bai. Baina batzuetan gauzak nahastu egiten dira. Gauzak batzuetan ez dira estankoak, eta estankoak ez diren bitartean oso zaila da gauzak aurrera eramatea. Graduondokoak egotea ere ondo legoke. Baina horrekin lotuta, uste dut Hezkuntza Graduetako ikasleen kultura aldatu behar dugula. Gehienetan ikasleek diote "beno, 4. maila bukatu eta lanera". Beharbada, kultura hori aldatuta eta

ikerketa bideak begiratuta, etengabeko formakuntza horrekin genero ikuspegiarekin eta sexualarekin lotutako formakuntzak bideratuko lirateke.

G. Eskitxabel: Badakizu ea noizbait planteatu den gaiekin loturiko formakuntza eskaintzea unibertsitatean?

U. Garay: Bai. Irakasleen artean komentatu izan da. Fakultate barruko juntetan ere gauza hauek proposatu dira eta nahi izan dira aurrera eraman, baina zailtasun ezberdinak daude. Nik badakit, ezin dut gauza askorik kontatu, baina badaude inizatiba batzuk gai hauetan adituak diren pertsonak (emakumeak batez ere) graduondokoak edo masterrak proposatzeko.

G. Eskitxabel: Proposamenak Graduaren ondorengo formakuntzak eskaintzeko izan dira gehienbat beraz? Ala Graduaren barnean ere eskaintzaren bat proposatu al da?

U. Garay: Bi gauzak egin nahi dira, kontua da Graduaren aldaketa oso konplikatu dela. Baina unibertsitatean badago sentsibilizazioa eta gai hauei buruz asko dakien jendea, profesionalak. Eta horiek lan handia egiten dute. Irakasleak ere badaude sartuta talde feministetan ikasleekin batera, eta fakultateetan bideratzen dituzte ekintza desberdinak bidea ematen dutenak hau guztiarentzako. Beraz, inizatibak badaude eta nik uste dut denborarekin lortuko dela, gertatzen dena da gauza hauek lan handia dakartela. Eta ez bakarrik gaiarekin lotuta baizik eta administratiboa, etab. Hau unibertsitate publikoa da eta jarraitu behar dira unibertsitate publikoak dauzkan arautegi guztiak. Bai gureak eta baita Eusko Jaurlaritzakoak eta Espainiako Gobernuakoak ere.

G. Eskitxabel: Beraz, gaur egungo eskaintza edo eskaintzarik eza arautegia jarraitzeak dakartzan zailtasunen ondorioa dela esango zenuke?

U. Garay: Orain eskaintzen dena ikusita nik uste dut pausu handia izan zela online ikastaroak eskaintzea. Kuriosoa da zeren online ikastaro horiek bi aldiz egiten ditugu urtean eta bakoitzean 100 bat ikasle sartzen dira, eta daramatzagu urte nahikotxo horrela. Egia da guretzako esfortzu handia dela, gure lanaz gain egiten dugun zerbait da. Baina uste dut horri esker ikasle asko eta asko, behintzat maila xume batean, gai hauei buruz informatu direla. Ez bakarrik hezkuntza fakultateetako ikasleak, orain beste Graduetako ikasleak ere sartzen ari dira, ikusi zelako beharra Bigarren Hezkuntzan lan egingo zuten ikasleak parte-hartu zezaketela. Gehiago behar dela? Bai, ni ados nago. Nik ahalko banu sortuko nuke irakasgai bat Graduetan, Gradu guztietan.

G. Eskitxabel: Uste duzu ikastaro horietan parte-hartzen duten ikasleen gehiengoak gaiari buruzko formakuntza minimo bat dutenak direla?

U. Garay: Ez dut uste, uste dut badagoela jendea ez dakiena, eta sartzen dena gaian ikusteko ea zer diogun. Ikasleen artean ikusi dut batzuk badakitela eta besteak ez. Ikusi dut gero eta mutil ikasle gehiago sartzen direla, kuriositatez eta ikasteko gogoz, jakin-minez. Irakurtzen ditugun iruzkin eta gogoetetan, edo foro eta azken ebaluazioan, agertzen dira esaten ez zekitela ezer eta ulertu dutela zerbait. Nik uste dut badagoela politika orokor bat hurbiltzearena, orain ondo ikusia dago. Nik jada urte batzuk dauzkat eta nire garaian feministak ziren bakarrik eremu ideologiko zehatz batzuetan onartuak eta limite bateraino. Orain uste dut feminismoarekin lotutako gauza asko nahiko sozializatuta daudela. Espainiar Estatuan badago Berdintasun Ministerio bat eta feminista autodeterminatzen direnak. Lehen ez zegoen horrelakorik, ezta beste militantzia maila batzuetan ere. Martxoak 8-ko manifestazioetan ere, gero irakurketa desberdinak egin daitezke, baina ideologia askotako jendea egoten da. Badago aurrerapen bat, behintzat feminismoa era egokian ulertzeko. Orduan jendea bai hurbiltzen dela. Eta hezkuntzan aritzen zaretenok, batzuk badaude badakitenak, eta beste batzuk irakasle izango direlako badute ardura hori eta jakin nahi dute, eta hurbiltzen dira. Baina ulertzen dut ez dela berdina ikasgai bat edukitzea eta

denengana iristea eta derrigorrezkotasun bat ezartzea (ez dakit derrigortasuna egokia den), edo Graduaz gain beste zerbait egitea. Nik ikastaro horietan beti pentsatu dut nahikoa dela behintzat irakurtzen eta gogoeta txiki bat egiten badute, ezin diet eskatu maila altuko zerbait zeren ari dira haien ikasketez gain zerbait gehiago egiten. Nik uste dut horretan sartzen den jendeak behintzat badaukala sentsibilizazio bat, gero egongo da zerbait ez dakiena, baina behintzat ikusten dute bere buruak behar duela hori. Normalean ikasleek eskertu egiten dute.

G. Eskitxabel: Ikastaro horietan bai generoa eta bai sexualitatea lantzen duzue?

U. Garay: Genero gaiak, hezkidetzak. Oso oinarrikoa. Pentsa ezazu dela unibertsitateko edozein Gradutan dagoen ikasle batentzat, orduan hor lantzen ditugunak dira mikromatxismoak, horiek agertzen diren eremu ezberdinak, eskola-eremuak hezkidetzaren ikuspuntutik. Sexualitatea ez da lantzen. Ikastaro hau ematen dugu lau irakasleren artean, hezkuntzako hiru irakaslek eta laugarrena komunikaziokoa uste dut dela, baina bera berdintasun masterrean dago. Irakasleen artean badaude bi oso adituak eta badaude beste bi ez garenak hain adituak. Nik ez dut honetan ikertzen, ni teknologiakoa naiz. Baina nire eremuan beti gizonezko asko egon dira, eta beti eduki dut kontzientzia hori. Gai hauetan ere emakumeen ikuspuntua oso garrantzitsua da, eta egin ditugu ikerketak badagoela Graduko emakumeen artean tendentzia bat haien burua teknologiarako ez dutenak gai ikusten.

G. Eskitxabel: Ezagutzen duzu sexualitateari buruzko formakuntza eskaintzaren bat, unibertsitatearen barnean edo kanpoan?

U. Garay: Unibertsitate barruan ez dut ezagutzen. Badakit IVAPen eta ari direla orain haurren aurkako abusu sexuarekiko buruzko ikastaroak ematen. Baita ere badaude Eusko Jaurlaritzatik urtero ateratzen diren ikastaroak. UEUn ere orain emango dute biolentzia matxistaren ingurukoak... Sexualitateari buruzkorik ez dut ezagutzen zehazki, ez bainaiz inoiz hurbildu.

G. Eskitxabel: Mila esker! Beste iritzi edo hausnarketarik bota nahiko zenuke?

U. Garay: Uste dut hezkuntzan gauza guztiak daudela lotuta gure ikuspegi aldaketarekin. Uste dut formakuntzak eta ikerketek ere onurak dakartzatela, baina nik esaten diet nire ikasleei: jarri zaitezte besteren tokian. Eta lortzen ez dugun arte onartzea mundua ikusteko era asko daudela eta eskolan denak elkartzen direla, hezkuntza ez da inoiz aldatuko. Ez da inoiz bidezko hezkuntza bat izango. Eta hezkuntza ez bada aldatzen, gizartea ere ez da aldatuko. Niretzako periferia oso argia da, ez da periferia arautegira ekarri behar, baizik eta arauak aldatu behar dira periferiakoei egokitzeko. Hori da guztiaren oinarria. Desberdinak denok gara, ez dago bi pertsona berdinek. Orduan zergatik eskolan denak izan behar gara berdinak eta denak ebaluatu behar gaituzte berdin? Eta zergatik denok erakutsi behar ditugu gure jakintzak era berdinean? Eta berdin bakoitzaren genero eta sexualitatearekin, bakoitzak bizi edo sentitzen du era batera. Askotan heteropatriarkatuari buruz hitz egiten denean ematen du bakarrik emakumea zapaltzen dela baina ez, heteropatriarkatua arraza bat da, adierazpen sexual zehatz batzuk, genero-identitate zehatz bat, etab. Nire ikuspuntuaren arabera, ama bezala, Haur Hezkuntzan badago zer aldatu, hori zuen (irakasleen) esku. Oraindik nahiko "tradizionala" da Haur Hezkuntza.

- Uzuri Albizu:

G. Eskitxabel: Elkarrizketa hasi baino lehen, zure burua aurkeztuko zenidake mesedez?

U. Albizu: Hezkuntza Fakultateko Matematikako irakaslea naiz, 6 urte daramatzat hemen lanean. Formakuntzaz matematikaria, eta gero hasieran espezializatu nintzen matematikaren didaktikan eta ondoren genero ikasketetan, eta tesia horri buruz ari naiz egiten, matematikarekin, hezkuntzarekin eta generoarekin lotutako ikerketa bat ari naiz egiten.

G. Eskitxabel: Eskerrik asko. Ni Haur Hezkuntzako 4. mailako ikaslea naiz, eta bidali nizun emaillean azaldu bezala, elkarrizketa hau nire Gradu Amaierako Lanean egiten ari naizen ikerketaren parte izango da, zeinean Haur Hezkuntzako irakasle izango garenon genero eta sexualitate gaiekiko formakuntza aztertu nahi dudana. Horretarako, zurekin harremanetan jartzea erabaki dugu, zure esperientzia, iritzi edota bestelako ekarpenak ikerketarako baliagarri eta aberasgarriak izango direlakoan.

U. Albizu: Beno, nik esan beharra dizut Haur Hezkuntzarekin ibilbide laburra izan dudala. Unibertsitatean egon nintzen urte betez Haur Hezkuntzan Pentsamendu matematikoa eta bere didaktika ikasgaiarekin, eta egia esan maitatu nuen, baina urte bakar bat izan zen. Pixka bat inplizituki hitz egingo dizut gehiago, eta irakurri ahal izan ditudan artikuluko zientifikoetatik. Eta sexualitatea ere oro har da gai bat ez dudana landu.

G. Eskitxabel: Lasai, gai hauek unibertsitatean duten presentzia ezagutzen baduzu edo horri buruzko iritzirik baduzu nahikoa izango litzateke.

U. Albizu: Egia esan, gogoan dut artikuluko bat, *“How does gendering matter in preschool science”* deitzen dena, eta bertan hausnartzen zuten Haur Hezkuntzan zientzia nola dagoen presente. Nola irakasten den edo nola prestatzen den espazioa zientziaren inguruko esplorazioak egiteko eta. Agertzen ziren hor elementu interesgarri batzuk, hasteko eta behin generoari erreparatuz, oso berezita zeuden neska eta mutilak esplorazioetan, neskak normalean egoten direla mahai baten inguruan, marrazkiak egiten edo artaziekin figurak moztzen, eta pixka bat aztertzen zuen horren atzean zegoen zientzia guztia. Mutilen kasuan gehiago egoten omen ziren sortzen instrumentu batzuk ondoren biratu ahal izateko, eta hor ere aztertzen zuten horren atzean dagoen zientzia guztia. Esaten zuen espazioak oso modu desberdinean hartzen zituztela neska eta mutilak, neskak leku konkretuetan gehiago eta mutilak espazio zabalagoan, etab. Artikuluan ere esaten zen azkenean generoa dela zerbait doana sortzen eta eratzen egiten duzun heinean eta Haur Hezkuntzan errutinak oso garrantzitsuak direla, azkenean egunero zientziari eskaintzen diogun espazioan neskak baldin badaude eserita eta mutilak altxatuta eta korrika, azkenean hor ere identitatea eratzen ari zara, errutina horien errepikapen horretan. Artikuluan esaten zuen aipaturiko kasuan adibidez irakasleak esku-hartze bat egin beharko lukeela, identitatea eratzen dugulako adin horietatik. Eta bilatu behar da pixka bat estereotipoekin apurtzea, ez derrigorrezkotasunaren bitartez baina gonbidapen berriak eginez ikasgelan beste era batera egoteko espazioan adibidez. Eta horrek gogorarazi dit Lehen Hezkuntzan gertatzen den gauza bat eta da inertzia uzten dugunean bere horretan bertan, normalean inertziak eramaten duela erreproduzitzera norma. Orduan irakasle bezala, hasteko eta behin, izan behar gara gai identifikatzeko zer ari den gertatzen eta gero ere garatu behar ditugu erremintak inertzia horiei buelta emateko. Lehen Hezkuntzan adibidez oso garrantzitsua da parte-hartzea, nola antolatu edo nola kontrolatu, materiala kritikoki errebisatu, gorputz-hezkuntza ea leihakortasuna edo beste hezkuntza era batera antolatu, etab. Baina hori egiteko ere behar dugu irakasleok gaitasuna egoera horiek identifikatzeko.

G. Eskitxabel: Zure ustez genero eta sexualitatea ardatz diren konfliktoak identifikatzeko gaitasun hori non edo nola landu beharko litzateke irakasleengan?

U. Albizu: Hor formakuntza behar da, hori argi dago. Nik uste dut fakultatetik hasi beharko genukeela formakuntza ematen, baino lehenago unibertsitateko irakasleok ere formakuntza behar dugu. Baina bai, nik uste dut formakuntza hori hasi behar dela unibertsitatean.

G. Eskitxabel: Unibertsitatean genero eta sexualitate gaiekiko formakuntza nola egituratuko zenuke? Era tronkal batean ikasgai konkretu baten bidez, edo transbertsalki irakasgai guztietan inplementatuz, edo beste eraren batera...?

U. Albizu: Badago artikulua bat Gasteizko Hezkuntza Fakultateko langile batzuek idatzitakoa (*La perspectiva de género en los títulos de Grado en la Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz*) eta egiten dutena da hitz egin nola modulu lanak sortu zirenean, magisteritza diplomatura izatetik Gradu izatera pasa zenean, hitz egin zutela gai hauei buruz. Hasieran egin zutela ahalegin bat eta tanteatu zuten aukera bat gai hauekiko irakasgai bat egotearena, eta ezin izan zuela izan goitik ez zietelako utzi hori egiten. Orduan, beraien saiakera izan omen zen modulu lanen bitartez ikuspegi hori txertatzea. Nik bakarrik ezagutzen ditut K2-a eta K5-a, eta ez daukat sentsaziorik hor generoaren inguruko lanketarik egiten denik, nire irudipena irakasle bezala da hor ez dagoela ganorazko lanketarik. Eta ea izan beharko lukeen ikasgai bakoitzean sartua edo irakasgai batean landua, nik uste dut interesgarriak biak direla. Generoak izan behar du elementu transbertsal bat. Badaude gai batzuk ez direnak diziplinarrak, direla gehiago diziplinartekoak, eta genero eta sexualitatea da horietako bat. Baina gero badaude baita ere diziplinak oso orokortuta daudenak, matematika, gorputz-hezkuntza... Hor genero ikuspegia egon behar da, eta igual irakasgai orokor batean hori egotea zailagoa da. Orduan irakasgai orokorrako batek balioko luke agian gai interdiziplinarragoak edo lantzeko, edo ez daudenak hain lotuak edukiekin, baina gero nik uste dut irakasgaietan egon behar dela ikuspegi hori. Eta iruditzen zait falta dela. Eta sexualitatearen inguruan, ez daukat inongo formakuntzarik, baina irakurri dudana egatik eta bizipen propioengatik ondorioztatzen dudana da haurrei sexualitatea asko erreprimitzen zaiela. Beraien jolasen parte da askotan sexua, edo sexualitatea esploratzea. Baina taboo bat den heinean gizartean... Orduan nik uste irakasle bezala, eta beno gurasoek ere bai, ondo legoke jakitea. Haurtzaroa eta sexualitatea dira gizarte bezala ezin direnak batera joan, eta da gai oso ezezagun bat. Orduan nik uste dut gizarte bezala argi pixka bat beharko genukeela, eta irakasle bezala noski. Ni neu ere ikusten naiz oso ezjakin.

G. Eskitxabel: Zuk uste duzue genero eta sexualitate formakuntza eskaintzen zaigula etorkizunean irakasle izango garenoi, unibertsitatean, ikastaroen bitartez, etab.?

U. Albizu: Nik batez ere Lehen Hezkuntzako Gradu ikasleekin eduki dut harremana, baina beraiengandik jaso dudana 4. mailara iritsi direnean izan da... Adibidez ni ari natzaio 1.go mailan matematika eman nion ikasle bati Gradu Amaierako Lana zuzentzen, alardeari buruzkoa egiten ari da. Nik esan nion matematikako irakaslea nintzela eta hobeto zuzendu edo gidatuko lukeela gizarte zientzietako irakasle batek, baina esan zidan Gradu lau urteetan ez zuela jaso beste irakasleengandik generoaren inguruko formakuntzarik. Nigana jo zuen nik landu nuelako generoa lehenengo mailan, eta ez dut pila bat lantzen. Egiten dugu lantxo bat eta klase magistral bat ematen diet gauzatxo batzuekin. Orduan, hortik jasotzen dudana da formakuntza oso urria dela. Badaude irakasleak lantzen dutenak generoa, sexualitatea ez dakit, baina da bolondreski egiten den zerbait. Ez dago arautua, ez dago jasota inon. Nik neuk egiten dut bolondreski, nahi izan nituelako ikasketak egin nire kabuz eta horrek eman didalako ezagutza zerbait irakatsi ahal izateko. Baina ez dago jasota eta ez da egiturazko ezer.

G. Eskitxabel: Beraz, unibertsitateko irakasleei ez zaizue inongo eskaerarik egiten ikasgeletan gai horien lanketa egiteko, ezta? Erakundearen aldetik esan nahi dut.

U. Albizu: Ez, niri inork ez dit eskaera hori egin. Egia da egon izan naizenean Practicum I-ean, nolabait eskatzen zaie ikasleei behaketa bat egiteko. Behaketa horretan faktore sozial ezberdinei begiratu behar zaie, eta bat da generoa. Orduan, badago presente lekutxo batzuetan, baina niri ez dit inork eskatu generoari eta sexualitateari buruz hitz egiteko. Beharbada dokumenturen batean egongo da jasota baina nik ez dut irakurri.

G. Eskitxabel: Lehen esan didazu Haur Hezkuntza diplomatura izatetik Gradua izatera pasa zenean genero ikuspegia duen ikasgai bat sartzen saiatu zirela ikasketa-planean, eta azkenean modulu-lanen barne sartu omen zela. Baina, gaur egun zuk badakizu ea genero edo sexualitatea ikasketa-planetan edo behintzat unibertsitatearen barnean sartzeko biderik eraikitzen ari den?

U. Albizu: Nik uste dut ikastaroak nahiko berriak direla. Nik bai ikusten dudala jendea gai hauekiko interesarekin, irakasle eta ikasleak. Nik uste dut feminismoak azken urteetan indar asko hartu duela, gauza batzuk lehen asko kostatzen zirenak, gaur egun oso politikoki desegokia da esatea "ez nago ados". Kontua da gauza batzuk oso zailak direla, Gradu batean irakasgai berri bat sartzea oso zaila da burokratikoki. Jendea fakultatean badago oso erreferentea dena, Amaia Álvarez-Uria edo Gemma Lasarte, Berdintasun Batzordean dagoen jendea, Pilar (Pili) Aristizabal edo Maria Teresa (Mariate) Vizcarra, jende honek lan asko egin du genero gaien inguruan. Jendea badago lanean, beti dago bidea egiteko. Bide horren zati bat bada egitura ematea, askotan zeharkakoa den hori galdu egiten da eta irakasle bakoitzaren eskuetan geratzen da. Gainera, formakuntzarik ez baduzu, gai hauei buruz hitz egitea arriskutsua da. Nik uste dut sortu behar dela zerbait egituratua, eman behar zaiola identitate bat. Lehen esan bezala, uzten baditugu gauzak bere baitan... Irakasle izateko irizpide batzuk bete behar dira, edonork ezin du irakasle izan. Lehengoan entzun nuen irakasle-ikasketetan sartzeko azterketa bat egingo omen dutela, eta irratian entzun nuen "eta guraso izateko ez?". Baina, irakasle izateko ere ez? Oinarrizko elementu batzuen inguruan aztertu beharko gintuzkete, oinarrizko gauza horietako bat izanik ez izatea misoginoa edo arrazista. Hor formakuntza ezinbestekoa da, inertziatz denok gara misogino, arrazista, etab. Ezinbestekoa da formakuntza.

G. Eskitxabel: Mila esker! Jada egin beharreko galdera guztiak egin dizkizut, baduzu zerbait gehitu nahiko zenukeena?

U. Albizu: Duela gutxi egon naiz bilera batzuetan parte hartzen. Pekinen egin zen duela 30 urte konferentzia garrantzitsu bat genero berdintasunaren inguruan, eta aurten izan da 30. urteurrena. Eta unibertsitatean hainbat emakume egon gara biltzen egiteko balantzea, 30 urte hauetan ea zer aldatu den eta zer ez, zerk egin duen aurrera eta zerk ez... Ni joan nintzen batez ere entzutera, nik ez baitaukat perspektiba hori, nik duela 30 urte 2 urte nituen. Baina oso aberasgarria izan da entzuteko nola aldatu den unibertsitatea urte hauetan. Eta oso garrantzitsua izan omen da Berdintasun Zuzendaritza bat sortzea, nolabait gai hauen inguruan eskua hartuko duen entitate bat. Lehen esan bezala, egiturazko zerbait ez dagoenean, gauzak geratzen dira airean. Hor adibidez sortu dute protokolo bat eraso sexistak salatzeke, ikasleek irakasleen partetik edo ikaskideen partetik, edo irakasleek salatzeke ere bai. Baita ere, esaten zuten badaudela programa batzuk deitzen direnak *Indartu* (emakumezko ikasleei zuzendurikoa) eta *Eraldatzen* (gizonezko ikasleei zuzendurikoa), eta emakumezkoak ahalduntzeko eta gizonezkoek haien pribilegioak ezagutzeko balio dute besteak beste. Komentatzen zuten harrিতa zeudela oso ezezagunak zirelako ikasleen artean. Eta hori zergatik da? Irakasle bolondresen esku geratzen delako ikasleei horien berri ematea. Bilakatu beharko litzateke egin beharreko zerbait, honelako gauzez ikasleei hitz egitea eta informatzea, edo E-gelan adibidez ikusgarri egotea... Bileran 30 urtetan eman diren aldaketak entzutea asko eskertu nuen, jakitea nola baloratzen duten

haiek ere egon diren aldaketak. Zeren, batzuetan jada badagoenean ez dugu baloratzen, baina daukagun guztia norbaitek lortu du, borroka askorekin.